



Udan, Mozambique eta Senegal ezagutzen

Joseba Rios arkeologoari elkarrizketa



## AINHOA

### AGIRREAZALDEGI REKONDO

*Txapelketan eman nahi  
norberak berea  
Oñati da lehiaren  
lehenengo xedea  
Arantzazun itzalaz  
hizketan jendea  
nahiz lehen santutegiak  
zuen boterea  
guk Loidiren bidean  
daukagu fedea. (Bis)*

Doinua: Espainian behera.



## ANE

### ZUAZUBISKAR IÑARRA

*Emakume gu eta  
debagoiendar gu...  
Inoren ordezkari,  
baina zenbat kargu...  
Ni-tik eta gure-tik,  
zerbait badakargu,  
bertsoaren errotak  
buelbaka dihardu,  
eta xehetu beste,  
goxatu behar du. (Bis)*

Doinua: Amodioak gaitu.



## MAIDER

### ARREGI MARKULETA

*Bertsotan irakurri  
nahi dugu mundua;  
gorputza martxan jarri,  
ez soilik burua;  
konplizitatez bizi  
gure ingurua...  
Garrantzitsu den arren  
puntu kopurua,  
lehia ez da izango  
lehen helburua. (Bis)*

Doinua: Espainian behera.

## BERTSOTAN LEHIATZEKO GERTU

Oñatin hasiko da bihar, zapatua, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. 48 bertsolari abiatuko dira txapelaren bila. Hiru bertsolari debagoiendar ariko dira lehian: Ainhoa Agirreazaldegi elgetarra, Ane Zuazubiskar arrasatearra eta Maider Arregi oñatiarra; azken hori bihar hasiko da, etxean / 40



**Telesforo Monzon laborategia aurkeztu dute Bergaran, "Euskal Herriaren" erronkei erantzuteko** / 2

### SINADURAK



ESTEPAN PLAZAOLA / 8



OSCAR GARCIA / 11



ANDER ETXEBERRIA / 48

**ALKIDEBA**  
SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

**MAKINERIA ALOKAIKURUA ERAIKUNTZARAKO ETA INDUSTRIARAKO**

**NILFISK-en banatzaile ofiziala**

Maltzaga - Sorluze errepidea.  
Tel.: 943 75 15 54 • Sorluze (Gipuzkoa)

Goitondo industriagunea, 3, pabillola  
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)

administracion@alkideba.net  
Saskibaloi taldearen babeslea

**OINTXE!**



Laborategiaren aurkezpenean parte hartu zuten hainbat lagun Olaso Dorreko lorategian. JOKIN BEREZIARTUA.

## Gogoetarako ideien laborategia Bergaran

Telesforo Monzon Euskal Herrigintza laborategia zabalik dago Bergarako Olaso Dorrean, atzo ezker. Euskal Herriak egun dituen erronkei aurre egiteko asmoz sortu dute eta esparru askotako ordezkariak egon ziren aurkezpeneko ekitaldi publikoan

### Oihana Elortza BERGARA

Telesforo Monzon Euskal Herrigintza Laborategia zabaldu du Bergaran Olaso Dorrea fundazioak, politikari abertzalea zenaren sorlekuan. Euskal Herriak gaur egun dituen erronkei aurre egiteko asmoz sortu dute; ekitaldi publiko baten eman dute "ideia laborategiaren" berri fundazioko lehendakari Iratxe

Esnaolak eta bertako zuzendari Urko Aiartzak, eta eguen eguerdian egin zuten aurkezpenean izan ziren hainbat eragile politiko, sindikal eta sozialetako ordezkariak ere.

### "Ekinbide berriak behar"

Eragile politiko, sindikal eta sozialetako ordezkarien barruan, aurkezpenean egon ziren, besteak

beste, EH Bilduko Arnaldo Otegi eta Maddalen Iriarte, EAJko Andoni Ortuzar eta Juan Mari Atutxa eta ELAko, Eusko Ikaskuntzako, Agirre Center-eko, Gaindegiako, Gure Esku-ko, Deustuko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko ordezkariak.

Laborategiaren zerumuga zein izango den azaldu zuten Olaso

Dorreko lorategian egindako aurkezpenean. "Laborategiaren zerumuga elkarkidetzan eta gizarte kohesioan erreferentzia den Euskal Herria burujabea da. Askatasun demokratikoak, aukera-berdintasuna eta gizarte inklusioa ardatz dituen Euskal Herria burujabe bat: hori da gure zerumuga", adierazi zuen Iratxe Esnaolak, fundazioko presidentea.

Horrekin batera, fundazioko zuzendari Urko Aiartzak gaineratu zuen lan-ildo berriak behar dituela Euskal Herriak: "Bizi dugun testuinguruan ekinbide berriak behar ditugula uste dugu, gure herriaren bideragarritasun ekonomikoa, soziala eta kulturala eta bere ongizatea bermatzeko tresna eta egiteko modu berriak behar ditugu".

### Hirugarren zikloaren hasiera

Olaso dorrea XVI. mende hasieran altxatu zuten eta XX. mendean zehar Telesforo Monzonen eta Maria Josefa Ganuzaren bizilekua izan zen; 1982an, Olaso Dorrea fundazioa sortu zuten, Monzonen azken nahiei erantzunez.

Atzo, eguna, ireki zuten fundazioaren patronatuaren hirugarren zikloa. Bigarren eta hirugarren zikloen arteko zubilanean aritu den Jose Luis Elkorok ere hartu zuen hitza aurkezpen jendetsuan. "Niretako, garrantzitsua da bere [Telesforo Monzonen] mezua, Euskal Herriarekiko eta euskarekiko maitasuna, bere konpromisoa, hori da transmititu ziguna. Gehien nahi duguna da hori jasotzea, eta jasoko duen taldea atzetik etorriko dela ikustea; badugu konfiantza, badakigu nortzuk diren eta sintonian daude Telesfororen filosofiarekin.

Badakigu bide horrekin jarraituko dutela", adierazi zuen Elkorok.

### Monzonen balioei jarraiki

Egitasmo berria Euskal Herriaren garapenean estrategikoak diren jakintza esparruetan proposamen kualifikatuak egiteko ideien laborategia da. Laborategiaren lan-ildo nagusiak izango dira: globalizazioa, identitatea, ongizatea eta lurralde kohesioa. Era berean, Telesforo Monzonen bizitza gidatu zuten balioak izango ditu oinarri laborategi berriak. Balio horien artean nabarmendu dituzte "herri honekiko eta bertako herri-tarrekiko konpromisoa"; "belaualdi berrien ideia eta kezkekiko irekitasuna"; "zorroztasuna, analisisian eta horien azalpenean"; eta "sormena".

### Ideien laborategia

Bergarako Olaso Dorrean egongo da gogoetarako laborategia eta bertako lorategian azaldu zuten zer-nolako gogoetak eta ideiak eraikiko dituzten bertan. "Euskal Herriak herri gisa dituen erronkak ikaragarriak dira, kezka nabaria da eragile sozial, publiko eta pribatuetan. Herri gisa ditugun galderak aldatu egin dira eta garaiaren neurriko erantzunak eskaini gura dizkiegu. Euskal Herriak aurrea egiten lagunduko dien ereduak begiratu behar die", azaldu zuen Olaso fundazioko presidentea, Iratxe Esnaolak.

## LABORATEGIAREN, OLASO PATRONATUAREN, HIRUGARREN ZIKLOA HASI DA

## "Kezkatuta" eta "babestuta" doa Zubizarreta epaiketara

Hiru autobus doaz bihar egingo den manifestaziora eta astelehenerako elkarretaratzea deitu dute Arrasaten

### O.E. ARRASATE

Domekan abiatuko dira auzipe-tuak Madrilera, astelehenean hasiko den epaiketarako, eta abendura bitartean joan-etorri bat baino gehiago egin beharko dituzte, hemezortzi saiotan egon

beharko dute eta. "Eskaerak eta akusazioak lehengoak dira, 600 urtetik gorako espetxe-zigorra. Eta kezkatzeko modukoa da hori. Txanponaren beste aldean, berriz, herriaren babesak dugu. Norbanakoen zein eragile eta erakun-

de askoren babesak jaso dugu Euskal Herri osoan, eta hori pozgarria da. Babes horrek laguntzen du, bai", dio Ekain Zubizarretak. Fiskalak hamahiru urte eta erdiko espetxe-zigorra eskatzen du beretzat, ETAko kide izatea eta terrorismoa goratzeaz akusatuta. Dio euskal presoak gutxitzeko egin dutela lana eta zentzu berean jokatu dutela epaiketan, "arduraz". Auziaren aurrean Euskal Herri eta herri mailan jasotako babesaz eskertuta dagoela ere esan du.



Bailara mailan elkartasuna adierazteko egindako agerraldia Monterronen. T.M.



**Amaia Zabala Tolosa** ARRASATE

1955ean, Accion Catolicako beste lau kiderekin batera, eta Jose Maria Arizmendiarraren eskutik, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa izenarekin bataiatu dena garatzen hasi zen. Bertako liderretako bat izan zen; bizitza guztia hari eskaini zion.

1959an, Ulgor-en presidente arduratu zuen eta 24 urtez izan zen kargu horretan. Urte berean, Euskadiko Kutxaren gaur egun Laboral Kutxa- presidente izendatu zuten eta 1989ra arte egon zen. Fagor Taldearen presidente ere izan zen 1965 eta 1989 artean, eta MCCrena 1984 eta 1989 bitartean. Horiez gain, Euskadiko Kooperatiben Federazioko presidente eta Eusko Jaurlaritzako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialeko eta Espainiako Kooperatiben Federazioko kide ere izan zen, besteak beste. Kooperatiba askoren estatutu eta araudien *aita* ere bazen.

**Aitorpen ugari**

Ibilbide profesional oparogatik hainbat aitorpen eta esker on jaso zituen: Gipuzkoako Foru Aldundiaren urrezko domina eta Ekonomia Sozialaren Txemi Cantera saria, besteak beste.

Gainera, Juventud Deportiva de Mondragon elkarteiko presidente izan zen eta Jose Maria Arizmendiarreri fundazioko ohorezko kide ere bai. Erligioarengan uste sendoak zituen eta Accion Catolicako batzordeko kide ere izan zen.

Arizmendiarraren Lagunak Elkarteak Gorroñoigoitia eta Ormaetxea omendu zituen maiatzean, "bizitza osoan zehar balio kooperatiboak defendatzeko eta garatzeko egindako lanagatik".



Alfonso Gorroñoigoitia eta Jose Maria Ormaetxea, erdian, Arizmendiarreri plazaren inaugurazio egunean, 2016an. GOIENA

## Alfonso Gorroñoigoitia, betiereko presidente

Arrasateko industria mugimendu kooperatiboaren fundatzaile Alfonso Gorroñoigoitia (Arrasate) hil zen joan den barikuan, hilak 6, etxean, 94 urterekin. Jose Mari Ormaetxea uztailean hil zenetik sortzaileen artean bizirik geratzen zen azkena zen

**Galera handia**

Galera handia izan dela uste du Arizmendiarraren Lagunak Elkarteak Migel Angel Laspiur presidenteak: "Nik uste dut Mondragon-en kooperatiba izaera gehien ordezkatu duena izan dela Gorroñoigoitia, bai bere gizatasunagatik, bai gizon solidarioa eta kooperatiboa zelako, baita oso gertukoa ere. Beti

hartu da presidentetzat, hala deitu izan zaio; izan ere, luzaroan izan zen presidente Laboral Kutxan zein Ulgor-en".

Jesus Mari Herrasti aretxabaletarrak bizitza profesional osoa egin du kooperatiba munduan eta Fagorreko lehendakari ere izan zen. 25 urte zituela Copreciko lehendakari izendatu zuten eta orduan ezagutu

zuen Gorroñoigoitia. "Jendeak konfiantza handia zuen Gorroñoigoitiarengan; izan ere, sinesgarritasuna transmititzen zuen", dio Herrastik.

Jose Antonio Altuna *Txatillo*-k, berriz, adierazi du gertuko gizona, zuzena, zintzoa eta oso maitatua zela: "Datorren hilean beteko zituen 95 urte, eta ezin eskatu gehiago. Fede handiko

gizona zen, eta atsedean hartuko du orain. Lagun handia galdu dut, baina pozik nago, era berean".

Javier Retegi kooperatibista hau azpimarratu du: "Belaunaldi hau ezagutu eta hauekin ikasizana pribilegio bat izan zen".

**Ordezkaritza zabala hiletan**

San Juan Batailatzailearen parrokia jendez bete zen astelehen arratsaldean Alfonso Gorroñoigoitiari azken agurra emateko. Herriar eta kooperatibista ugari bildu ziren, baina baita instituzioetako ordezkariek ere. Horien artean izan ziren, besteak beste, Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea, Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapenerako eta Azpiegiturako sailburua eta Markel Olano diputatu nagusia.

Ubarretxenak esan zuen penaz hartu zuela albistea eta nabarmendu zuen herriari ekarpen handia eginda joan dela Gorroñoigoitia.

Olanok, bestalde, azpimarratu zuen gaur egun Gipuzkoako kooperatibak mundu guztian ezagunak izatea Arizmendiarraren inguruan bildutako belaualdi honen lanari esker dela.

Arantxa Tapiak, berriz, kooperatibismoaren jarraipena nabarmendu zuen: "Hasiara hartako sortzaileak hil diren arren, kooperatibismoarekin jarraitzeko oinordekoak badira eta horiei dagokie orain espiritu eta lan egiteko modu horrekin jarraitzea".

**"LANGILEA, NEKAEZINA ETA KOOPERATIBISTA EREDUGARRIA" ZELA AZPIMARRATU DUTE**

## Erromesak, herritarrak eta ordezkaritza politikoa Arantzazun

Astelehenean, irailak 9, Arantzazuko Amaren eguna ospatu zuten santutegira bertaratu zirenek

**Amaia Zabala Tolosa** OÑATI

Izaro Elorza Oñatiko alkatea eta udalbatzako kideak Arantzazun izan ziren, baita Aldundiko, Batzar Nagusietako eta Jaurlaritzako hainbat ordezkarire: Markel Olano diputatu

nagusia, Aintzane Oiarbide, Ainhoa Aizpuru, Maite Peña, Eider Mendoza eta Imanol Lasa foru diputatuak, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea eta Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomia-

ren Garapenerako eta Azpiegiturako sailburua.

Une berean, Etxerat elkarteak antolatutako elkarretaratzea egin zuten santutegiaren kanpoaldean, 11/13 sumarioan epaituko dituzten 47 kideen egoera eta euskal presoan dispertsioa salatuzko, *Elkartasuna ez da delitua, 47ak herrian eta Etxean nahi ditugu, dispertsioa STOP!* lelopean.

Meza nagusia Jose Ignazio Munilla gotzainak esan zuen, eta goraino bete zen santutegia.



Oñatz dantza taldeko bi dantzariak ongiatorri aureskua egiten. ENEKO AZURMENDI





Leintz Udal Euskaltegiko ikasleak, klase batean. LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

# Udal euskaltegietan eta AEKn izena emateko epea zabalik dago jada

Ikasturte berriari begira jarrita daude dagoeneko Arrasateko, Bergarako, Oñatiko eta Leintz udal euskaltegiak, baita Debagoieneko AEK ere; hala, euskara ikasi edo hobetu gura duten horiek irailaren bukaerara arte izango dute matrikulatzeko

**Eneko Azurmendi** ARRASATE  
Debagoieneko udal euskaltegiak eta AEK-k martxan dute 2019-2020 ikasturterako matrikulazio kanpaina, eta, irailaren bukaera bitartean, epea zabalik izango dute euskara ikasi edo hobetu gura duten horienak.

Udal euskaltegiei dagokienez, *Euskararekin match!* izan da aurtengo kanpainarako aukeratu duten leloa, eta maila guztietako eskaintzak dituzte.

Arrasateko Udal Euskaltegian irailaren 24ra arte izango da matrikulazio epea. Eskaintza guztiz irekia dute, eta eskaeren arabera moldatuko dute, ordutegi moldagarriekin. Izena emateko hiru bide dituzte: 943 79 70 77 telefonora deituta, *euskaltegi@arrasate.eus* helbidera idatzita edo bertara gerturatuta.

Bergarako Udal Euskaltegian irailaren 27ra arte dago izena

emateko aukera. Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak, egokitutako taldeak, autoikaskuntza, etorkinendako harrera ikastaroak, eta abar eskaintzen ditu, erritmo eta ordutegi egokietekin. Bestalde, dirulaguntzak eta tarifa bereziak ere badituzte. Izena emateko, 943 76 44 53 telefonora deitu edo *euskaltegia@bergara.eus* helbidera idatzi.

Leintz Udal Euskaltegian, hilaren 25era arte egongo da matrikulatzeko aukera. Hemen ere maila guztiak eskaintzen ditu: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2. Horrez gain, txandakako taldeak es-

**ESKARIRA EGOKITZEN DEN ESKAINTZA ZABALA DAUKATE BAILARAKO LAU UDAL EUSKALTEGIEK**

kaintzen dituzte, eta, beka sistemaren bitartez, ikasleek, langabetuek eta erretiratuek prezio erdia ordainduko dute. Izena emateko, 943 79 21 68 telefonora deitu edo *idazkaritza@udaleuskaltegia.eus* helbidera idatzi.

Oñatiko Udal Euskaltegian, azkenik, hilaren 20an bukatzen da matrikulazio epea, datorren egubakoitzean. Aurreko guztietan moduan, euskara maila guztietako ikastaroak eskaintzen ditu, baita ikastaro bereziak, Oñatiko euskararenak eta ekin-tza osagarriak ere. Eskaerari egokitutako erritmo eta ordutegiak eskainiko dituzte, eta iraupen luzeko langabeentzat, doan izango da izen-ematea. Bestalde, matrikulatzen direnen artean matrikula baten zozketa egingo dute. Izena emateko, 943 78 24 96 telefonora deitu edo *euskaltegia@onati.eus*-era idatzi.



Debagoieneko AEK-ko langileak, egoitza berrian. TXOMIN MADINA

## Egoitza berriaren inaugurazioa

Eguaztenez inauguratu zuten AEKren Debagoieneko egoitza berria –Iturriotz kalea 21–, musikak eta magiak jantzitako ekitaldi batean. Bailarako AEK-ko egungo eta garai bateko langileak, euskara ikasleak, herritarrak, herriko hainbat eragiletako kideak, eta abar elkartu ziren Arrasateko plazan.

Erakunde publikoetako ordezkariak zabala ere izan zen. Hala, Arrasateko alkate Maria Ubarretxenaz gain, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuorde Miren Dobaran, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendari Garbiñe Mendizabal eta HABEko zuzendari Jokin Azkue ere egon ziren ekitaldian, eta guztiek ere egoitza berriaren erosotasuna nabarmendu zuten. "Ikaslearen erosotasuna jarri behar dugu erdigunean, eta alde horretatik pozik gaude. Izan ere, modernoak dira azpiegiturak, eta teknologia aldetik ere beharrezkoa den guztia daukate. Gainera, herriaren erdigunean kokatuta", azpimarratu zuen Dobaranek.

AEK-ko koordinatzaile nagusi Mertxe Mugikak azpimarratu zuen hainbeste urtean, egoitzari dagokionez, nahiko modu prekarioan lan egin ostean, mugarri bat dela lokal berria zabaldu izana. Pozik agertu da, era berean, bere esanetan Arrasaten dagoena bezalako egoitza berriekin itzuli egiten zaiolako herriari Korrika eta bestelako ekimenekin emandako laguntza.

## AEKn, hilaren 27ra arte

AEK ere ikasturte berriari begira jarrita dago, *Zu hemen zaudete, AEK ere bai* leloarekin, eta matrikulazio epea irailaren 27ra arte edukiko du zabalik. Urtero moduan, eskaintza zabala izango da: eskolak euskaltegian, online ikastaroak, autoikaskuntza, barnetegiak, mintzapraktika taldeak eta jarduerak, normalizazio-planak, itzulpen-zuzenketa zerbitzua, eta abar.

Ordutegiari dagokionez, aste-ko egun guztietan goizez zein arratsaldez klaseak jasotzeko aukera eskaintzen dute. Bestal-

**IRAILAREN 17AN ATE IREKIAK EGINGO DITUZTE AEK-N, ETA EUSKARA ESKOLA BAT DOAN ESKAINI**

de, izena ematen duten guztiek doan jasoko dute *AIZU!* aldizkaria. Izena emateko hiru bide dituzte: 943 77 03 69 telefonora deituta, *arrasate@ae.eus* helbidera idatzita, edota egoitzara gerturatuta –10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara–.

AEK-ko kideek azpimarratu dute Eusko Jaurlaritzak eta Arrasateko Udalak dirulaguntzak ematen dituztela euskara ikasi gura dutenentako.

## Ate irekiak, martitzenean

AEK-k aurtan ere ate irekiak egingo ditu bere euskaltegi guztietan, baita aste honetan inauguratu berri duten Debagoieneko euskaltegian ere, Arrasaten. Irailaren 17an izango da hori, martitzenean. Eskolak A1 eta A2 mailetakoak izango dira, zerotik abiatzen direnei eta A1 maila dutenei zuzenduta.

# Tomatea oinarri, aste osoko egitaraua gozagai

Aretxabaletako Tomatearen laugarren astea egingo dute irailaren 16tik 21era; bertako produktuak erdigunean jarrita, "gastronomia turismoa" bultzatu nahi dute, eta hitzaldiak, haurrentzako tailerrak eta lehiaketak egingo dituzte astean zehar

## Eneko Azurmendi ARETXABALETA

"Gastronomia turismoa bultzatzeko antolatzen den jardunaldia da, eta oinarria Aretxabaletako tomatea izango da", azaldu du Ainhoa Cabero kultura zinegotziak. Hala, aste osoan zehar hainbat ekintza egingo dituzte, eta tomatea izango da protagonista nagusia guztietan.

Irailaren 17an, hitzaldi dastatzea egingo dute Amaia Diaz de Monasterioguren nutrizionista oñatiarraren eskutik, Arkupen 18:30ean. "Tomatearen onuren berri emango digu hitzaldian", dio Caberok.

Irailaren 18an, haurrendako tailerra egingo dute, "bertako produktuak ezagutu eta tomatearen onurak ezagutu dezaten".

Irailaren 19an, haziak lortzeko tailerra egingo dute, Arkupen 18:30ean hasita.

## Azoka berezia

Irailaren 21ean, tomatearen inguruko bigarren azoka berezia egingo dute Durana kalean, 11:00etan. 20 postu jarriko dituzte, era guztietako barazkiekin. "Ekoizle gehienak Aretxabaletakoak izango dira, eta gehienek bertako tomatea ekoizten dute", azaldu du Agurtzane Diaz Deba Garaia Landa Garapen Elkarte-ko teknikariak. 11:30ean Marc

Badalen eskutik tailer berezia: haziak aterako dituzte denon artean, Duranan. 12:00etan, tomate erakusketa herrikoia egingo dute. Aurrez izena eman beharko da -943 79 64 63 telefonora deituta edo [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus) helbidera idatzita.

Ordu berean, tomate zopa hotzen eta tomatearekin egindako hanburgesa dastatzea. Zopa hotzak gastronomia elkarteek prestatuko dituzte, eta gainera lehiaketa izango da. Gastronomia elkarteek eguaztenera arteko epea dute izena emateko.

14:00etan, ortu eta tomate zopa hotzaren lehiaketetako eta tomate erakusketa herrikoiko sari banaketak egingo dituzte.

Aretxabaletako tabernetan pintxo ibilbide bat izango da, eta pintxo guztien oinarria tomatea izango da, gainera.

## Antolakuntzan, hainbat eragile

Debagoieneko Mankomunitate-ko turismo saila, Deba Garaia Landa Garapen Elkarte eta Aretxabaletako Udala izan dira ekimenaren antolatzaileak, eta jarduera garatzeko, Eusko Jaur-laritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko turismo sailen laguntza ere eduki dute. Bestalde, herriko tabernen partaidetza ere azpimarratu dute.

tu dut, sektoreko negozio globalean egon naiz", dio Shulzek.

Bestalde, Volkswagenek berriro ere Fagor Arrasate aukeratu du automatizazio sistema berritzaile bat duen beroko estanzazio linea baterako. Volkswagenentzako instalazio berriak paraleloan jarritako arrabalez osaturiko bi labe ditu eta racking guztiz automatikoa eta independentea egiteko prestatuta dago hiru piezekin. Ekipamendu honen abantailak ekarriko dituela azpimarratu du Fagorrek.



Agurtzane Diaz, Ainhoa Cabero, Ana Heriz eta Inma Miguel. ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

**Euskararekin Match!**

Egin gurekin bat

UDAL EUSKALTEGIAK

19/20 Matrikula epea zabalik

<b>BEDITA LARRAKOETXEA</b> UDAL EUSKALTEGIA Bidebarrieta, 18 Oñati. Tel.: 943 78 24 96 euskaltegia@onati.eus	<b>ARRASATEKO</b> UDAL EUSKALTEGIA Arimazubi plaza, 2. Tel.: 943 79 70 77 euskaltegi@arrasate.eus	<b>BERGARAKO</b> UDAL EUSKALTEGIA Barrenkalea, 33 (Irizar jauregia). Tel.: 943 76 44 53 euskaltegia@bergara.eus	<b>LEINTZ</b> UDAL EUSKALTEGIA Nafarroa 2 - Aretxabaleta Intxaurbuelta 9 - Eskoriatza 943 79 21 68 idazkaritza@udaleuskaltegia.eus
---	---	--	---

## Aurrerapausoa eman du Fagorrek beroko estanzazioan

Fagor Arrasatek Gerald Schulz fitxatu du, Press Hardening aktibitatearen garapen komertzial berria gidatzeko. Orain arte, salmenten zuzendari gisa egiten zuen lan, beroko estanzazioan mundu mailako liderra den enpresan. "20 urte daramatzat automobilgintza industriari eta azken 15 urtetan Press Hardening linea asko instalatzen parte har-



# Debagoiengan ere hasi da ikasturte berria

Udako oporren ondoren, hasi da ikasturte berria ikasle eta irakasleentzat. Izan ere, bailarako ikastetxe, unibertsitate eta lanbide heziketa eskolek proiektu berriekin heldu diote kurtso berriari. Aipatzekoa da EAEn inoizko ikasle gutxien hasi dela

## Amaia Zabala Tolosa DEBAGOIENA

Irailaren 9an, astelehena, hasi zituzten eskolak bailarako herri guztietan, Oñatin salbu, Arantzazuko Amaren Eguna zela-eta martitzena izan baitzuten eskolako lehen eguna oñatiarrek.

Eskualdeko herrietako hezkuntza aukerari dagokionez, zabala da. Arrasateri dagokionez, Herri Eskola eta Arizmendi Ikastola daude aukeran; bakoitzak Haur Hezkuntzatik (HH) hasi eta batxilergorainoko zerbitzua eskaintzen du. Bergararen kasuan ere, Aranzadi Ikastolak eta publikoak -San Martin Agirre eta Ipintza Institutua- HHTik batxilergorainoko zerbitzua eskaintzen dute. Mariaren Lagundia kristau eskolak, berriz, HHTik DBHra.

Oñatin ere, hiru hezkuntza eredu daude aukeran, Urgain Herri Eskola, Txantxiku Ikastola eta Elkarhezi Ikastetxea, eta hirurek HHTik batxilergo arteko eskaintza dute.

Aretxabaletan, berriz, Kurtzebarri Eskola Publikoak HH, LH eta DBH eskaintzen ditu eta Arizmendi Ikastolak, HH. Eskoriatzaren kasuan, Luis Ezeiza Herri Eskolak HH eta LH eta Arizmendi Ikastolak, berriz, HHTik batxilergo artekoa.



Guraso batzuk haien seme-alabekin eskola aurrean. GOIENA

Antzuolan, Elgetan eta Aramaion, berriz, herri eskolak dira aukera bakarra eta HH eta LH eskaintzen dituzte. Leintz Gatzagako kasua berezia da: aste-ko hiru egunetan herrian dituzte eskolak (HH), baina beste bietan Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolara doaz.

## Ikasle gutxiago EAEn

Cristina Uriarte Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak jakinarazi duenez, aurtan, lehen aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ikasturtea hasi

duen ikasleen kopurua jaitsi egin da. 374.470 ikasle dira, guztira, unibertsitatez kanpoko mailetako ikasketak egingo dituztenak, iazko datuekin alderatuta 487 gutxiago (-%0,13). Sare publiko nahiz pribatu-iturpeko datuak dira horiek.

Aipatzekoa da Debagoieneko Euskal Eskola Publikoaren jaia ospatu zutela iaz lehen aldiz Eskoriatzan, eskola publikoan duten matrikulazio kopurua "baxua" dela-eta beraien lana "balioan jartzeko eta ezagutzera emateko" asmotan. Antonio

Regaño Eskoriatzako guraso elkarteko kidearen esanetan, "aurten ez dute jai hori egingo; izan ere, bi urtez behin egitea da asmoa".

## Bailarako unibertsitateak

Mondragon Unibertsitatean ere astelehenean hasi zuten ikasturtea; hasiera ekitaldi ofiziala, ordea, gaur, egubakoitza, 12:00etan, Oñatiko campusean egingo dute.

Aurtan, gainera, Mondragon Unibertsitateak gradu eta graduondoko sei titulu berri eskainiko ditu irailean. Mondragon Unibertsitateko ordezkarien esanetan, eskaintza akademiko "berritzailea" jarri du abian unibertsitateak: "Gizartearen behar berriei erantzuten dieten profil berriekin".

UNED Bergarari dagokionez, azaroaren 8an egingo dute ikasturte hasierako ekitaldi ofiziala Bergaran. Informazio hitzaldia, berriz, Donostiako Koldo Mitxelenan eskainiko dute irailaren 18an, 19:00etan. Ikasturte honean, 28 gradu, 76 master eta 19 doktorego-programa eskainiko dituzte eta matrikulazioa zabalik dago urriaren 23ra arte. Estatu mailako urrutiko hezkuntzarako unibertsitatea da UNED, eta jakinarazi dute gero eta gazte gehiagok "lehen aukera" bezala ikusten dutela.

## Miguel Altuna

Irailaren 9an hartu zituen lehen ikasleak Miguel Altuna Lanbide Heziketa Eskolaren egoitza berriak. 600 bat ikasle eta 76 irakasle izango dituzte. Josune Irazabal eskolako zuzendariaren esanetan, "egoitza berriaren etorkizuna izango duen harrobia sortzen jarraitzea izango da helburua".



Ander Rodriguez. ENEKO AZKARATE

## Ander Rodriguezek hartuko du Pello Urizarren lekua

Ekainean utzi zuen Urizarrek legebiltzarkide kargua, eta orain, beste arrasatear batek ordezkatu du

## Amaia Zabala Tolosa ARRASATE

Ander Rodriguezek (Arrasate, 1982) hartuko du Pello Urizarren lekua Eusko Legebiltzarrean.

Izan ere, ekainean dimititu zuen Urizarrek EAko idazkari

nagusi kargutik, baita legebiltzarkide gisa ere.

Eskarmentu handia du Ander Rodriguez arrasatearrak politikan: Ezker Batuan lehenengo, Alternatiban ondoren, eta gero, Bildu eta EH Bildu koalizioetan.

2003an hartu zuen zinegotzi ardura Arrasateko Udalean eta ondoren, 2011n, Bilduk Gipuzkoako Batzar Nagusietako hauteskundeak irabazi ostean, Gizarre Politiketako diputatu izan zen.

2007-2011 eta 2017-2019 urte bitartean ere izan da Gipuzkoako Batzar Nagusietako kide.

Orain, Pello Urizarren lekua hartuko du arrasatearrak Gasteizen, eta EH Bilduren legebiltzarkide moduan estreinatuko da Rodriguez.

## Doako aholkularitza teknologikoa enpresentzat

Debagoieneko Mankomunitateak formakuntza programa bat antolatuko du

## Amaia Zabala Tolosa ARRASATE

Eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin, doako aholkularitza teknologikoa eskainiko die Mankomunitateak bailarako mikroenpresei.

Ikastaroen bitartez, enpresa Interneten kokatzeko eta bezero berriak antzematen, sare sozialetan eta online komunitatean enpresa sustatzen, komunikazioetan ziurtasuna bermatzen duten tresna eta jarduerak erabiltzen, fakturazio elektronikoa legera egokitzen eta gailu mugikorrek erabiltzen ikasiko dute, besteak beste.

Mankomunitateak jakinarazi du mikroenpresei, autonomoei eta ekintzaileei dagoela zuzenduta, merkataritza eta ostalaritza salbu. Ikastaroa gazteleraz eta Arrasaten izango da.

Hain zuzen, izen-ematea egin behar da [enpresa@debagoiena.eus](mailto:enpresa@debagoiena.eus) helbidean edo 943 79 30 90 telefonoan.

## Ikastaroen egunak

### Irailak 17, martitzena

- Mikroenpresa Interneten.

### Irailak 25, martitzena

- Fakturazio elektronikoa, faktura elektronikoa sortu eta jaulkitzeko.

### Urriak 1, martitzena

- Gailu mugikorrek, negozioa eraginkortzeko.

### Urriak 15, martitzena

- Enpresa eraginkorragoa: barne kudeaketa optimizatzea.

### Urriak 29, martitzena

- Zibersegurtasuna.

## Joxe Bizente Etxabe: artzain erresistentea azken arnasa hartu arte

JUAN RAMON GARAI

INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA  
ARRASATE

Murugain inguruko 1936ko gerrako historia ezagutzeko, Joxe Bizente Etxabe, Degurixako artzaina, elkarrizketatu genuen uztailearen 31n, Muzibar baserrian.

Bizi guztian lotura zuzena izan du bere *Degurixako paradisuz*; han zegoen, ardiekin, kolpe militar faxista hasi zenean.

14 urte zituen:

"Gorrixak eta milizianoak kamioen gora eta behera, Degurixan Arabako mendixetan ein auien trintzerak, ta egunez juen eta gauzez alde. Handik Peñakulora ardixekin juen nitzten".

"San Miguel egunien, militarrek Atxorrotzik behera sartu zien. Bedoñan Larragainen frentie egon zuan, borrokak a tope egon zittuan Mondragoen sartzeko, hildakuak egon zittuan".

"San Andres egunien, gorrixak hasi zien Mondrauen sartzeko, kamiñoraño allegau zittuan. Gero, Mandoainen gelditu zittuan. Gabez etxera natorrela: 'Alto!', rekete

batek, euskeraz: 'Nungue haz?'. 'Muzibar baserrikue'. 'Ezin haz fan, gorrixak hartu dauielako kamiñue. Coge a este chaval y llévale donde el Capitán al ayuntamiento', Kapitanak: '¿Tienes algún pariente?'. 'Sí, un tío'. Osaba etorri zuan: 'Ya le conoce, es mi sobrino'. Libre utzi nindduten, gaba osaban etxien pasau ta barriri mendire".

"Santa Luzia egunien matxinatuen atakie egon zuan, ta gorrixak Mandoaindik bertatik alde egin juen Bastergain eta Basterrazpira".

"Larragaindik tirokatzen zuten, balak etorten jatan... Euzkitzan gorrixak ezuzen, ta Olanen ta Larratxon besteak".

"Erreka barrenien, Meka Gasolinera dagoen lekuen, hiru kañoi *15 y mediokuak* jarri zituzten, kapitana andaluzaz".

"Gero, aprillien abanzie egon zanien, Gellatik gora atakie Untzillara, jende asko hil zan".

"Gerra ostien, barrez, Guardia Zibilak txabolan lo eitten egoten zien: 'Si viene alguien nos avisas' esan eta Ugaztegira joan zien, eta holako baten 5 maki asturianek non datozen; jana emun nutzien ta fan zien... baina batek parte

eman...guardia zibilak jarri nindduten harri baten ondoan, baltz-baltza zan, batek pistola atara ta: 'Te vamos a matar'. Apuntau, eta gero esan eustan: 'No te vamos a matar, porque eres joven'".

Bertso batekin agurtzen zaitugu, Joxe Bizente:

*Non hago, zer larretan / Urepeleko (Degurixako) artzaina / mendi hegaletan gora / oroitzapenen gerora / ihesetan joan hintzana.*

## Laster arte, plazalagun

ANE GOROSABEL

ARRASATE

Ezin burutik kendu nire lehen eguna azokan, guztiz hurbildu zitzaidan "nundik zatoz, ba, neska?" galdezka, baserriarrena zen eta hain urruti sentitzen nuen espazio hartara ateak zabaltzen.

"Gaur zortzira arte" esanaz agurtu genuen elkar joan zen barikuko azokan: "Aber gaurkua baino hobiaue dan"... Zaila.

Baserria bizimodu, duintasunaren erakusle, jakintza iturri, indarra oinarri, emakume errebelde.

Plazarik plaza bizitza oso bat, baserriko begietatik kaleko aldaketak antzemanaz, beti kritiko, ideiak argi. Hutsune itzela.

Bihotzez, Kontxita, eskerrik asko!

## HANDIK ETA HEMENDIK

### Arrasateren gainbehera, mahai gainean

JOXE ARANZABAL

HTTPS://LABUR.EUS/CWRFJ

'GOIENA.EUS'-EN ARGITARATUA

Abuztuko egun batez, konpainia on batean, euskaldunik baizik ez zen mahai baten bueltan nengoela, ekarri zuen solasak, izan zen perpausa nola Arrasate gainbehera doan, garai batean, eta gaur egun ere, kooperatibak direla-eta munduan hain miretsia den herria. Mahaikideen esanetan, ez badu garaiz noranzkoa aldatzen, laster baino lehen lo-hiri bihurtu daiteke Arrasate.

Elkarrizketak aurrera egin ahala, solaskideek aipatu zuten Arrasateren gainbehera eta erortzea hainbat esparrutan igartzen dela. Merkataritzan, esate baterako, non merkatariek burua altxatu ezinda segitzen baitute. Edo kulturaren, non eskaintza oso pobrea den, hainbestearino non jende asko Gasteiz, Donostia eta Bilbora joaten den zerbait interesekoa ikusi nahi duenean, edo Elorriara, non aurrekontu askoz ere txikiagoarekin, egitasmo dezente zabalagoa eta erakargarriagoa eskaintzen den. Beste horrenbeste kirolean, non futbolearen behinik behin, Mondrak 3. mailan jokatu ezinik segitzen baitu, zerikusirik ez Eibarrekin, ez oso aspaldi krisialdi handia gaingiditu zuen herria. Halaber,

hizketakideek iritzi zioten Mondragoen ez dela igartzen bertan unibertsitate bat dagoenik, kultur eraginari dagokionez bederen. Eta lidergo garbia falta dela, oro har, herria aurrera ateratzeko, ez norberaren txiringittoa gizentzeko.

Harritura nengoan ikusita nolako pesadunbrea hedatu egin ahala, mahaikide guztiek biziki maite baitute Arrasate. Nolanahi ere den, amaieran ez zen proposamenik falta Arrasate zulotik ateratzen laguntzeko.

Solasaskideek iritzi zioten, hasteko, ona litzatekeela aztertzea bi kasu soziologikoki eta ekonomikoki antzekoak, nola diren Arrasate eta Durango, zeina azken urteotan gora eta gora egiten ari den, Arrasaterekin kontraste bizian. Orobat, egokia litzatekeela aztertzea beste herri edo hiri batzuk nola irten diren zulotik, haietatik ikasteko. Eta, azkenik, ezen ez azkena, herriko hainbat estamentu, enpresa eta eragile batu beharko liritekeela, oraingo egoerari buelta emate aldera.


Mahaitik altxatuta, neure artean pentsatu nuen Arrasaten zenbateraino partekatzen den kezka hori. Neuri dagokidanez, abuztuan mahaiaren bueltan entzundakoak, mahaitik kanpora ere entzun izan ditut beste toki eta une batzuetan.

Post gehiago 8. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA







ZABALIK

ESTEPAN PLAZOLA

## Joxe Bixente eta Aritz

Joxe Bixente Etxabe *Muxibar* joan zaigu. Artilearekin lotzen dut nik harekiko lehenengo akordua. Umetako gomuta lauso bat. Gurean ere ardiak zeuden eta Joxe Bixente izaten zen artilea eramaten zuena edo, behintzat, nolabaiteko bitartekaritza egiten zuena. Orduan, artileak dirua egiten zuen; gaur, doan kentzeko ere lanak daude.

Beste gauza batzuetan bezala, artzaintzan ere aldatu dira majo gauzak. Sasoi batean, zortzi artzain izaten omen ziren Degurixan; gaur, jada ez da mendi artzainik bertan. Eta beste toki batzuetan ere antzera.

Joan zen urtean estreinatu zen *Los últimos pastores de Sierra Salvada* dokumentala, Urduña aldeko mendi hartako azken artzainen lekukotza jasotzen duena. Aurtengo udazkenean estreinatuko da Gorbeiaiko artzainei zuzendutako antzeko beste dokumental bat.

Beretzat Degurixa paradisua izan dela zioen Joxe Bixentek, baina etorkizun zaila ikusten zion artzaintzari.

Baina badira, hala ere, artzaintzaren bidea egitea erabakitzen duten gazteak. Berrehun bat


### 200 BAT LAGUN IGARO DIRA ARANTZAZUKO ARTZAIN ESKOLATIK, ZABALDU ZENEZ GEROZTIK

lagun igaro dira Arantzazuko artzain eskolatik, zabaldu zenez geroztik. Horietatik erdia inguru murgildu omen da sektorean.

Euretarioko bat da Aritz Ganboa artzain nafarra. Bera ere dokumental batean murgildua dabil, *Bideak* izeneko dokumentalean. Baina berea artzaintza etorkizuneko lanbide gisa aldarrikatzeko dokumentala izango da; kultura, ingurumen, paisaia, ekonomia, historia, gastronomia... aldetik dituen balioak indarrean jartzekoa. Eta egin ere modu berezi batean egingo du: urri honetan Arruazun Idiazabal jatorri izeneko gazta egin, eta mendian zehar lasterka, etapa bakar batean, Izabaraino eramango du, bertako artzain batek eginiko Erronkari sor-markako gazta batekin elkartzeko. Lelo itxaropentsu batekin: *Izan zirelako gara eta garelako izango dira*. Baina mezu garbi batekin: "Istoria hau ez da nirea soilik, guztiona da".

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Kontatzeko beste modu bat

JAVIER MARCOS FERNANDEZ

'TTAP' - EN ARGITARATUA

*Humanity at music - Sinfonia Kooperatiboa* ez da ohiko proiektu bat, Mondragon-en Esperientzia Kooperatiboa kontatzeko beste modu bat baizik, kantuz eta musikaz.

Interkooperazio ariketa bat, horixe baita bere xederik garrantzitsuen. Normalean, teknologian, merkatuetan edota negoziotan egiten dugu elkarren arteko lankidetzak. Oraingoan, beste esparru batera salto egin dugu: musika arlorra. Eta gure memoria sonoroa jasoko duen zerbaitekin egin dugu, betiko geratuko zaigun zerbaite berria

eratu dugu. Gure esperientziak kontatzeko, kantatzeko eta sentitzeko.

Talentu handiko pertsona arruntak bildu dira proiektu honetara, elkartzen direnean gauza apartak egiten dituztenak.

Batetik, musika bera Fernando Velazquez konpositore getxoztarrak egin du. Letra, berriz, Jon Sarasuak. Euskadiko Orkestra Sinfonikoko musikariak aritu dira partiturak jotzen. Herriz herriko biran Arrasate Musikaleko musikariak eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoa. Eta kantuan, kooperatiba eta abesbatza ezberdinetako kideak.

Bukatzeko, proiektu honek dituen ezaugarri nagusiak aipatzea:

-Proiektu ezberdina da, korporazio mailan inoiz egin izan ez duguna.

-Zero kilometro kultura da, musikan oinarritua eta kultur arloko artista asko bildu dituena.

-Euskaraz sortutakoa da, nahiz eta badituen ingeles eta gaztelarazko bertsoak.

-Solidarioa da, Mundukide Fundazioari lagunduko diona bere helburuak betetzen.

-Kooperazioan oinarritutakoa da, sinfonia kooperatiboa sortzeko pertsona ezberdinen partizipazioa bilatzen duena.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

#### Publizitatea

Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin.

#### Administrazioa

Ane Berezibar,  
Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendaria komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.

**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.

**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**



## BERBAGAI

# "Euskararen marka ikertzeko proiektuak interesa piztu du"

OLATZ OLASO EMUN HIZKUNTZA ZERBITZUEN KOOPERATIBAKO ZUZENDARIA

**Eneko Azkarate Laspiur** ARRASATE Euskararen marka landu nahi dute EHUK eta euskalgintzako hainbat eragilek; horien artean, Topaguneak eta Emun-ek.

**Euskararen marka landu, indartu eta saltzeko ekimen berria aurkeztu duzue. Zer da?**

Euskararen marka aztertu nahi dugu, denok ere *euskara* entzun eta zer ikusten dugun horren atzean. Horretarako, lanean ari gara Kontseilua osatzen dugun eragileok – Elkar Fundazioa, Berria Taldea, Emun, Elhuyar Fundazioa, Ikastolen Elkartea, Euskaltzaleen Topagunea–, AEK eta EHUKo Nik Ikerketa Taldea.

**Zer lortu nahi da?**

Hizkuntzek balio sinboliko bat daukate eta horrek eragin zuzena dauka hizkuntza horren erabilerekin edo, orokorrean, hizkuntza horri lotuta, norbanako gisa, hartzen ditugun erabakiekin. Ikerketa taldeko zuzendaria den Estitxu Garaik azaldu



Olatz Olaso, Emun-en egoitzaren sarreran, Arrasaten. ENEKO AZKARATE LASPIUR

moduan, aztertu nahi dugu Euskararen soinekoa jantzita, nola ikusten dugun gure burua eta nola sentiarazten gaituen, eta horrek zertan baldintzatzen duen besteek nola ikusten gaituzten.

**Estrategia bateratu bat ere bultzatu nahi da?**

Nahi dugu marka aztertzeaz gain, marka hori indartzeko jarraitu beharreko bidea definitzea. Bidea definituta, aztertuko dugu nola jokatu.

**Euskarak badu markarik?**

Denok dugu gure marka eta zer esanik ez hizkuntza batek, eta zer esanik ez gurea bezalako hizkuntza batek. Minorizatua ez ezik urteetan debekatua izan den hizkuntza da gurea, gero herritarren enpeinuz biziberritua eta normalizazio bidean dagoena. Historia markatua daukanez, bere markan eragina izan behar izan du.

**Euskarak ospe, itxura... ona du?**

Baietz pentsatu nahi dut. Emun-etik enpresetako euskara planak gidatzen ditugu eta plan horien lanketan ikusten dugu gero eta jende gehiago dela, adibidez, euskaraz lan egin nahi duena eta horri balioa ematen diola gainera. Zuk behin hizkuntza bat ikasi duzunean, gehienez, horrekiko asoziazio positibo gehiago izango dituzu negatiboak baino.

**Euskararen marka beste esparru batzuetara zabal daiteke?**

Ikerketa proiektua nazioartean aurkeztu da eta interes handia piztu du. Mundu mailan hizkuntza baten marka edo *branding*-a aztertzen den lehen aldia izango da. Beste hizkuntza batzuk zain daude ikerketak zer ematen duen, bereziki, gutxitutako hizkuntzak.

## HAU BE BADOGU!

**Diada Euskal Herritik ere jarraitu dute**



Kataluniarren egun berezia, beste urte batez, gertutik jarraitu zen eguaztenean gurean ere, eta *#Diada2019* traola *trending topic* izan da euskaldunen artean ere:

@KoldoTellitu: "Irailak 11, Diada eguna. Errepublikara bidean, aurrera! Beti kataluniarekin, Gora Galeuska! *#Diada2019* *#AlsCarrersUnimForces*".

@Andergurusa: "Visca la terra! Bona diada, amics catalans *#Diada2019*".

@aitoribero: "Gaur Kataluniarekin bat *#Diada19*".

**'#47akherrian' eta '#Makroepaiketa'**

Aste honetan bi traol hauek izan dira euskal txiolarien komunitatean erabilienetakoak. Izan ere, datorren astelehenean epaituko dituzte euskal presoen inguruko abokatu eta elkarteetako 47 euskal herritar:

@bitoralonso:

"*#MakroEpaiketa* artean bizi garen herria gara...".

@atarrabiakomanu:

"Zoritxarrez ez naiz *#makroepaiketa* batean bere burua ikusi duen bakarra".

**'#NiEreJaizkibelekin', 'trending topic'**

Pasa den igandean ospatu zuten Hondarribian jaietako egun handia, eta, Jaizkibel konpainiak sare sozialetan jasotako babesari esker, traola *trending topic* izan zen Europa mailan:

@Imendizuri: "Ez zaudete bakarrik. Ez zarete sekula bakarrik egon."

*#NiEreJaizkibelekin*".

@zuriro: "Kaleak gureak direla esaten dugunean, hauxe da *#NiEreJaizkibelekin* Gora Jaizkibel konpainia Mila esker!".

## ITURRI ONETIK

## Frankismoaren biktimei aitortza

Frankismoaren errepresioa jasan zuten debagoiendarrak omenduko dituzte irailaren 26an, Arrasaten, Jose Maria Arizmendiarieta plazan –lehengo Laubide–. 2013an Laubiden bertan jarritako plakei, beste zazpi errepresaliaturen izen-deiturak gehituko zaizkie. Debagoieneko udal guztietako ordezkariak izango dira; ekitaldirako propio sortutako abesbatza –ibarreko hainbat abesbatzatako 100 kidez osatua–, txistulariak, trikitilariak, dantzariak; Sorozabalen *Gernika* eta *Internazionala*...

## ALBISTE IZAN ZEN

2004-09-09

## Zubillagako saihebidia zabaldu zuten

Zubillagako saihebidia inauguratu zuten. Bi kilometro luzeko errepide berria, bi muturretan biribilak zituela, 5,5 milioi euro bideratu zituen Foru Aldundiak errepide berrirako eta bi urte behar izan zituzten obra egiteko. Joxe Joan Gonzalez Txabarri diputatu nagusiak eta Andoni Gartzia Oñatiko alkateak moztu zuten zinta inaugurazio ekitaldian. Aurreikuspenak ziren 10.000 ibilgailu igaroko zirela egunean bertatik.



# PER plana hobetzeko hamar proposamen

Duela urtebete ekin zion Udal Gobernuak PER planaren aldaketari –Arrasateko Alde Zaharra Barne Eraberritzeko Plan Berezia–. Bizilagunen eta merkatarien ekarpenak batu dituzte martxotik ekainera, eta horietako hamar eman dituzte aditzera

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Arrasateko alde zaharra biziberritzea du helburu Udal Gobernuak, baina ez da lan erraza, batez ere, interes kontrajarriak daudelako: ondarea mantentzea eta garai berrietara egokitzea. Alde zaharrak monumentu historiko izaera du, eta, Hirigintza zinegotzi Ibon Arruperen iritziz, horrek eragin du gune historikoa "hain ondo" mantendu izana. Baina horrek talka egiten du bizilagunen eta, batez ere, alde zaharreko merkatarien interesekin. Azken hauek urteak daramatate PER plana malgutzeko eta garai berrietara egokitzeko eskatzen. "Badakigu PER planak eragin handia duela han bizi direnengan eta baita merkataritzarengan ere".

## Alde zaharraren arazo propioak

Europako alde zaharretan bezala, oro har, Arrasatekoan ere biztanleria zahartzen ari da, eta ez hori bakarrik, dozena erdi eraikin hutsik daudela ere azaldu du Hirigintza zinegotziak. Hala, horren harira, eta alde zaharrak toki bizia izaten jarraitu dezan, ezinbesteko jotzen dute egungo estandarretara egokitzea, belaunaldi berriek bertara bizitzera joateko apustu egin dezaten.



Ibon Arrupe, Ferrerías kalean, asteleheneko prentsa agerraldian. GOIATZ ARANA

## Hamar proposamen

Hala, herritarren iritzia jakin nahian, parte-hartze prozesua zabaldu zuten martxotik ekainera, eta honako hamar proposamen hauek eman zituzten astelehenean aditzera: Maalako errebalean eraikin berrietan miradoreak jarri ahal izatea, gaur egun balkoiak bakarrik onartzen dira eta; Zeharkale Estalia –Iturriotz eta Erdiko kaleen artean dagoena– egokitua egitea, genero ikuspegitik oso kale gordina da, irisgarritasun arauak ez

ditu betetzen eta asteburuetan, batez ere, pixa-leku bat da; lur azpiko garajeak eta sotoak onartzea; Maalako errebalean, lau solairuko eraikinez inguratutako hiru solairuko eraikina botatzen bada, eraikin berria ingurukoak bezala lau solairukoak egitea baimentzea; Ibai-Arte eskatzen du erakusleihen egituraketa irizpideak malgutzea eta gune konkretu batzuetako dendei toloa jartzea baimentzea; Iturriotz kaleko eraikin baten fitxan, etxabea-ri dagozkion eskakizunetan

## Ibai-arte, "harrituta eta haserre"

Astelehenean eman zituen hamar neurriak aditzera Hirigintza zinegotzi Ibon Arrupek, eta hurrengo egunean, merkatarien elkarteak oharra kaleratu zuen bere "harriduraren eta haserrearen" berri emateko. "Elkarteak ez daki Ibon Arrupe Hirigintza zinegotzia bera edo Udala den Ibai-Arte gutxiesten duena, harrituta gaude eta nahiko haserre. Prentsaurrekoan esandakoaren arabera, Ibai-Arte eskatu du erakusleihen zabalera handiagoa izan ahal izatea eta toki zehatz bateko komertzioak toloa jarri ahal izatea, eta hau ez da horrela. Ibai-Arte urte asko dabil Udalar Alde Zaharra Oneratzeko Planaren –gastelaniako PER delakoa– moldaketa eskatzen eta momentura arteko proposamen eta iradokizunak helarazi zizkion berriz ere 2019ko ekainaren 10ean". Laburbilduz, hauek dira elkarteak egindako bost proposamenak: establezimenduei –irekita zein itxita egon– birmoldaketak eta berrikuntzak egitea erraztea, ikusgarriagoak eta irisgarriagoak izateko; aldameneko lokalak bateratzea ahalbidetzea eta tolo eta pertsianak osterara jarri ahal izatea; irisgarritasun birmoldaketak kasuan-kasu aztertzea, malgutasunez; eta, hiri-ekonomia planak jasotzen duen bezala, lokal irekitzeak erraztea –titulartasun aldaketetan permisiboagoak izanez eta proiektuen bideragarritasuna egiaztatu artean lokalak egokitzeko denboraldiak hiru urtera handitzea–.



Denda bat: toloarekin eta gabe. I. A.

aldaketa batzuk burutzea; Ferrerías kaleko eraikin baten fitxan, karkabari dagokion eskakizuna aldatzea; Biteri plazara ematen duten balkoietan toloak jartzea baimentzea; Olarte kaleko eraikin baten interbentzio izaera aldatzea eta zuntz optikoaren zabalkunde fatxadetatik egiteko aukera onartzea.

Herritarrek egindako ekarpenei beste hiru gehitu dizkie Udal Gobernuak: lur azpian sotoak eta garajeak egin ahal izatea; Alai zinemaren egoera

berraztertzea –etxebizitzak egiterik dagoen ikusteko–; eta justu aurkakoa Arotz plazan: etxeak egiteko aukera kentzea eta erabilera publikoko gune bihurtzea.

## Hurrengo pausoak

Proposamenak aztertzea eta erabakiak hartzea eta tramitazioak egitea edota alegazioak aurkezteko jendaurreko epeak zabaltea izango dira hurrengo eginbeharrak: "2021ean plan berria martxan egotea da asmoa".

## 'Degurixako azken artzaina' zen Joxe Bixente Etxabe hil da

Leintz aldean ezaguna eta estimatua zen artzain munduan eta handik kanpo ere. Arrasateko Muxibar baserrian jaio zen, 1922an, eta 13 urterekin gazta egiten hasi zen mendian; inork baino hobeto ezagutzen zituen Degurixa inguruko parajeetan. Gutunetan atalean hari buruzko testu hunkigarria idatzi du Juan Ramon Garaik.



Joxe Bixente Etxabe, INTXORTA 1937 K.E.

## OHARRAK

### Pentsiodunak

Udako etenaren ostean, astelehenean egin zuten lehen elkarretaratzea. Astelehenero batzen jarraituko dute, Herriko Plazan, 12:00etan.

### Oroimen eguna

Besaiden ospatuko dute, domekan, eta Arrasatetik oinez joateko hitzordua jarri du Besaide Mendizale elkarteak: 08:30ean, Monterronen.

## AREDHANA YOGA – GESTALT TERAPIA

**Encarna Mendez:** Yoga irakaslea eta terapeuta. 616 96 57 95 • aredhana2@gmail.com

**Ainhoa Garai:** Feldenkrais irakaslea. 620 60 19 59

**Gaizka Mena:** Mindfulness instruktorea. 653 70 84 09

Yoga eta meditazioa konbinatzeko aukerak


Yoga taldeak

Yoga terapeutiko pertsonalizatua

Gestalt terapia kontsulta

Feldenkrais-a

Mindfulness meditazio taldea



Lezama merkataritzagunea, Santa Kurtz 24 • Aretxabaleta



# "Itsuak kalera ateratzeko egiten dut oihu orain"

**IBON CASAS** MUSIKARIA

Arrasaten kupoiak saltzetik rock musikari izatera pasa da; Oscar Terolen taldearekin ikus-entzunezko bat ekoizten dabil eta Arrasaten geldialdia egingo dute laster

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Badaude energia eta gogoia esportatzeko moduan duten pertsonak, eta Ibon Casas horietako bat da; motibazio tsunami bat. Erretinosi pigmentario gaixotasunak itsu geratzera eraman zuen donostiar hau Arrasaten ezaguna da: hiru urtez -1998tik 2000ra- kupoiak saltzen aritu zen herriko hainbat txokotan.

**Nola gogoratzen dituzu Arrasateko garai haiek?**

Oroitzapen oso onak ditut. Luko denda alboan aritu nintzen, batez ere, baina beste txoko askotan ere bai: ambulatorioan, Ezkiña tabernan, Munarren, San Andresen... Izan ere, ez dut ahazten izkina bakoitzean zein giro arnasten zen.

**Pertsona itsuek beti izan duzue gaitasun berezia musikarako: Ray Charles, Stevie Wonder, eta abar. Alegia, belarriak zuen begi izatea abantaila bat da musikari izateko?**

Bai, baina hori landu egin behar da. Itsua bazara, bi aukera di-

tuzu: geldi geratu edo gauzak egin. Abantaila horrek lan asko eskatzen du, baita oztopo asko gainditzea ere. Egia da begiak ixten dituzunean gainontzeko zentzumenak aurreratu egiten direla. Itsuak begiak itxita bizi garenez, abantaila txiki bat eduki dezakegu entzumenarekin, baina lana eskatzen du, bai edo bai. Askotan entzun izan dut: "Itsuek errazago duzue musikari izatea". Bai, zera!

**DameTVision film dokumentalarekin zabilta azkenaldian. Zer da?**

Duela zortzi urte abiatu nuen ikus-entzunezko bat da, irabazi asmorik gabeko elkarte kultural batekin batera doana. Film bat zuzentzeko erronka planteatu nion neure buruari. Ikusten ez dudanez, eta ez naizenez zine zuzendari, laguntza eskatzen joan naiz, jendeari bere begiak eskatuz. Jende famatu askoren babesa lortu dut: Penelope Cruz, Antonio Banderas, Joaquin Sabina, Miguel Rios, Juanes...

Zarata handia sartu dut; horri esker, Oscar Terolek eta bere lantalde itzelak nire filmaren ardura hartzea lortu genuen. Zarata atera nahi dugu, itsuak kalera atera daitezten. Esaerak dio ikusten ez dena ez dela existitzen, eta itsuak kalera ateraz euren problematikak ikusarazi nahi ditugu. Emakumeak kale-



Ibon Casas, Kajo tabernan, Arrasatera egindako bisita batean. XABI GOROSTIDI

ra atera dira, euren eskubideen defentsa egiteko eta albo batera ez geratzeko. Pentsiodunak, berdin. Zergatik ez itsuak ere? Hori da lortu nahi duguna.

**Zerk ekarri zaitu berriz Arrasatera?** Ezin dut askorik esan; Udalarekin eta Ibai-Arterekin jaialdi bat prestatzen ari naiz. Laster izango duzue horren berri.



**NIRE USTEZ**

**OSCAR GARCIA**

## Oporrak joan zaizkigu...

Azkenean, heldu da iraila eta berarekin batera bueltatu dira presak, iratzargailuak eta gure egunerokotasuneko parte diren aktibitateak. Batzuek esango dute hori ez dela gauza ona eta erosoago sentitzen zirela oporretan, baina beste askok eskerrak ematen dizkiote egutegiari, irailean euren benetako bizitza bueltatzen delako, errutina delako hori maite dutelako eta, umeak izanez gero, berriro hasten direlako klaseak eta mila eratako aktibitateak...

Ez naiz neu izango zer den hobe esango duena, baina iritzia ematera bultzatzen nauen ahots bat entzuten dut nire buruan... Nork esan dezake normaltasuna ez dela ona? Nork esan dezake atsedan hartzea ez dela osasuntsua?

Bada, gauzak horrela, argi dago bai batzuek eta besteek arrazoiak dituztela esateko euren pentsamenduetan ez dutela kale egin... eta nire buruko ahots horrek esaten dit... denak daukala bere momentua; beraz, oporrak disfrutatu ostean, disfrutatu dezagun normaltasuna, nahiz eta batzuentzat normaltasun hori oporrak izan!

**speaking globally.**

**ENGLISH FOR ADULTS**

**HELDUENTZAKO INGELESA**  
ingurune eder eta profesionalen

Garaia Parke Teknologikoan dago Speaking Globally, eta hauxe eskaintzen dizu:

- Oso talde txikiak - 5 pertsona, gehienez
- Zure interes eta behar pertsonalak kontuan hartzen dituen coach bat
- Irakasle profesionalak. Guztiek dute 10 urte baino gehiagoko esperientzia eskolak ematen: batzuk jatorrizko

hiztunak dira eta beste batzuek 10 urte baino gehiago daramate ingelese hitz egiten den herrialdeetan bizi izaten

- Eskola arin eta motibagarriak
- Maila guztietako eskolak: hasiberrietatik hasita, maila aurreraturaino; ez duzu denborarik galduko
- Metodologia propioa

Negoioetarako eta lanerako ingelese

Ingelesa, nahi dudalako.

Ingeles akademiko eta tekniko

**Garaia Parke Teknologikoa**  
Goiru, 1 - A eraikuntza - 3. solairua  
20500 Arrasate

**Matrikula zabalik Informa zaitez!**

**info@speakingglobally.com**  
**943 253 611**





Amaia Zeziaga zinegotzia, Maria Ubarretxena alkatea eta Nerea Lazpiur Garapen Iraunkorreko teknikaria. IMANOL BELOKI

## Europako mugikortasun astea, 18. aldiz herrian

Irailaren 16tik 22ra bitarte ospatuko dute aurten Europako Mugikortasun astea Arrasaten. 'Oinez gurekin' lelopean, "mugikortasun jasangarri, iraunkor eta osasuntsua bultzatu eta herritarrak sentsibilizatu" gura dituzte ekimenarekin

### Jone Olabarria ARRASATE

Astelehenetik aurrera, hilak 16, ekingo diote Europako Mugikortasun Asteari Arrasaten. Astebeterako ekintza ugari antolatu dituzte, betiere, "mugikortasun iraunkorra sustatu" eta "sentsibilizazioaren bidez herritarren artean eztabaida eta hausnarketa" bultzatzeko helburuz.

2002an hasi zen Arrasate Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatzen; aurtengoa, beraz, 18. edizioa izango da eta *Oinez gurekin* leloa izango du. Hain zuzen, autoaren gehiegizko erabilera murriztu beharra azpimarratu dute, eta herrian bertan oinez, bizikletaz edo garraio publikoa erabiltzeko aukera nabarmendu dute.

Era berean, autoaren gehiegizko erabileraren ondorio negatiboak gogora ekarri dituzte: "CO2 emisioak, klima aldaketa areagotzea, airearen kalitate txarra, herritarren arnasketagaixotasunak gero eta ohikoa-

goak izatea, lurraren okupazioa, herritarren arriskuak sortzea, zarata...". Oro har, osasunean eta ingurumenean "inpartu handia" daukala azaldu dute Udaleko ordezkariak.

### Ohiko ekintzak

Irailaren 21ean, Birzikleta bigarren eskuko bizikleta azokaren 16. edizioa egingo dute. Bestalde, bizikleta erakusketa ere izango da, herriko dendetako bizikleta eskaintza erakusteko. Birzikleta azokarako material bilketa irailaren 14an, 17an eta 19an egingo dute.

Irailaren 16tik 20ra, *Eskolara oinez* izango da eta azken egunean, Ausolanen eskutik gosari osasuntsua banatuko dute. Gai-

**AUTOEN ERABILERA MURRIZTEKO ASMOZ, GARRAIO PUBLIKOA HARTZERA ANIMATU DITUZTE HERRITARRAK**

nera, aste osoan, herri-busa doan izango da.

### Berrikuntza ugari

Irailaren 15ean, ibilaldi gidatua egingo dute herritik Udala auzora, bidean masustak batuta. Ondoren, Udalako Ingurumen Eskolan marmelada egingo dute. Irailaren 16tik 20ra, Arrasateko Udalak GFArekin elkarlanean helduek bizikletan ibiltzen ikasteko doako ikastaroa antolatu du. Bi orduko saioak izango dira, egunero, astelehenetik ostiralera, talde bat goizez eta beste bat arratsaldez.

### Merkataritza Berdearen Astea

Irailaren 16tik 21era bitartean, Merkataritza Berdearen Astea antolatu du Ibai-Artek. Era Horretan, Arrasate Txartelarekin egindako erosketen artean 10 euroko erosketa-txartelak zozketatuko dira, ausaz. Saria datafonoko txartelean ateraz gero, Ibai-Arteko saltokietan erabili ahal izateko txartela jasoko du.



Esther Lizarralde Mendizabal eta Joana Sanchez Herrero. TXOMIN MADINA

## Emakume txokoak urteko bigarren plangintza aurkeztu du

Irailetik abendura bitarteko ekintzen berri eman dute, eta herritar guztiak parte hartzera gonbidatu

### Jone Olabarria ARRASATE

Emakumeentzako Jabetze Eskolako ekintzak lan-ildoka antolatu ditu Arrasateko Emakume Txokoak, nahiz eta "kasu askotan ildo ezberdinak gurutzen diren". Helburu nagusia "emakumeen ahalduntzea eta parte hartze soziala eta politikoa sustatzea" dela azaldu dute.

### Hiru ildotan

Landuko diren hiru ildoak hazkunde pertsonala, parte hartze soziala eta feminismoa dira eta hauen baitan hainbat ekintza antolatu dituzte: *Lodiaktibismoa*

*eta Elektrizitate ikastaroa, Auto-defentsa feminista, Eztabaida feministen gunea...*

### "Sentsibilizazio ekimenak"

Urriaren 8an, martitzena, 18:30ean, emango diete hasiera ekintzei, *En femme* filmaren emanaldiarekin. Urriaren 17an, 19:00etan, *Agur eta Dolor* eta *Amatxi Dixit* antzezlanak egongo dira ikusgai. Azaroan, liburu aurkezpenak eta dokumental proiektzioak izango dira. Izenematea irailaren 16tik 20ra da, Emakume Txokoan edo 943 79 41 39 telefonora deituz.



INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA

## 1936an atxilotutako 96 herritar

Ganbara batean 80 urtez egon ostean, Intxorta 1937 elkartearen eskuetara iritsi da 1936an atxilotutako 96 mondragoetarren argazkia. Errepublikaren Defentsarako Arrasateko Batzordekoek atxilotutako 96 karlista mondragoetar direla jakinarazi du Intxorta 1937 elkarteak. Bilbon urtebete preson eman eta gerra amaitzean, halako orla bana eman omen zieten.



# "Zahar, heldu eta gazte: Erguina etorri zaitezte!"

Festa auzorik auzo eta kalerik kale dabil ikasturte hasieran. Zarugaldekoen eta Gelmakoen ostean, Erguinen egingo du geldialdia asteburu honetan; gaurtik barikura. Adin eta gustu guztientzako ekintzak prestatu dituzte, baita sardina-jan klasikoa ere

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Asteburu luzea dute aurretik Erguin inguruan bizi diren arrasatearrek, hiru egunez askotariko ekintzak egongo baitira auzoko festen bueltan.

Gaur, barikua, haur eta gazteentzako jolasekin ekingo diete jaiari, 17:00etan, Usaetxe olazan. 19:00etan, gozo-zaleen txanda izango da, erretiratuen eskutik txokolatea eta bizkotxoak dastatzeko aukera egongo baita. 20:00etan, Aretxabaletako kuadrilla martxosoena -AZ Gaubelak taldea, nor bestela- oholtzara igoko da, musika eta umorea jartzera; bai afalaurretik eta baita afalostean ere. Aipatzekoa



Erguingo jaietako antolatzaileak, aurtengo egitarauarekin. XABI GOROSTIDI

da Arrasaten duten arrakasta, hiru asteburuz jarraian aritu baitira auzoetako jaiak girotzen. 21:00etan, eguna borobiltzeko, *Zuk ein, zeuk jan* afaria egingo dute, Usaetxe plazan.

## Zapatua

Bihar, 10:00etatik 14:00ak arte, ginkana, puzgarriak, arku tiroketa eta oreka tailerra izango dira. Horrez gain, erretiratuek txorizoa, salda eta haragia banatuko dituzte. 14:30ean, auzo bazkaria egingo dute trikitilarien doinu artean, eta 18:00etan, umeentzako jolasen txanda izango da, ostera ere. 20:00etan, bigarren egunez jarraian, AZ Gaubelak taldekoek hartuko dute dantzaldiaren ardura.

## Domekan, sardina usaina

Asteburua gogor joango denez, indarrak berreskuratzeko aukera aparta egongo da domeka eguerdian.

Erretiratuen tabernan, jaietako ekintza klasiko bihurtu den sardina-jana egingo dute, 12:30ean. Kontsumizio bakoitzeko sardina bat emango dute, horiek agortu bitartean.

## Bost ibilaldi eta hamar bisita gidatu abendura bitartean

Domekan egingo dituzte lehen biak: Udalara ibilbidea -masusta bilketarekin eta marmelada tailerrarekin- eta *Mondragoe, I + D historian zehar* izeneko bisita gidatua. Apirilean hasi zen Udaleko Turismo Saila hauek antolatzen, eta "arrakastatsuak" izan direla diote. Ibilbide eta bisita guztiei buruzko informazioa *Goiena.eus* webgunean dago.

## Al-Andalus elkartera eta erretiratuen etxera sartu dira lapurrak

Astelehenean izan zen, 07:00 aldera. Al-Andalus elkarteko larrialdi-atea indarrez zabaldu ostean, kutxa erregistratzailea eramatea lortu zuten. "Kutxan 200 euro zeuden, baina kutxa berri bat erostea 600 eurotik gora kostatuko zaigu", azaldu du ustiatzaileak. Musakolako erretiratuen egoitzan ere sartu ziren, baina ez zuten ezer ostu.

RPS: 146/18



# CLINICA DENTAL

## BERGARA

25

urte baina gehiagoko esperientzia Inplantologian


- INPLANTOLOGIA (kirurgia erraza eta minik gabekoa)
- Estetika eta protesia
- Ortodontzia - Invisalign
- Apnea - Zurrungak











Bidekurutzeta, 36 - BERGARA - Tel.: 943 76 05 77 - [www.clinicadentalbergara.es](http://www.clinicadentalbergara.es)



Luisbel Jimenez jokalaria jaurlaketa bat egiteko gertu, iaz, Pitxi Herrero torneoan. IMANOL SORIANO

## Etxeko sei talde aurten Pitxi Herrero torneoan

Gizonezkoen lau talde eta emakumezkoen bi ariko dira bihar, zapatua, Iturripen jokatu duten torneoan; izan ere, iaz kadete mailako nesken taldea sortu ostean, aurten infantil mailako nesken taldea osatu du Arrasate Eskubaloik, hogeitatu jokalarirekin

### Eneko Azurmendi ARRASATE

Iaz, albiste pozgarri batekin hasi zuen denboraldia Arrasate Eskubaloik, kadete mailako nesken taldea sortu izanagatik. Hala, aurten, bide beretik ekin diote sasoiari Iturripen. Izan ere, infantil mailako nesken taldea osatu dute. "Pasa den denboraldirako, neska batzuk prest zeuden jokatzeko, eta entrenamendu batzuk egiten hasi ginen hamar neska ingururekin. Gero, Musakolako jaietan txapelketa bat antolatu genuen, eta, horren harira, neska gehiago gerturatu dira. Entrenamendu batzuk egiten aritu gara, eta dagoeneko hogeitatu neska daude infantil mailan", adierazi du Josu Herrero, Arrasate Eskubaloiko kideak. Beraz, Gipuzkoa mailan lehiatuko dira.

Bestalde, iaz sortutako kadete mailako nesken taldea ere egonkortuta dago. Beraz, etxeko sei talde ariko dira aurten denboraldi-aurreko urteroko hitzordua den Pitxi Herrero torneoan.

Hain zuzen, infantil mailako neskek jokatu dute eguneko lehen partidua, 10:00etan, Bergararen aurka. Xabi Lizarralde eta Gari Viguera izango dira aurten taldeko entrenatzaileak.

Kadete mailako nesken txanda izango da ostean, 11:30ean, hauek ere bergararren aurka –Jon Urrutia da entrenatzailea–.

Gizonezkoen dagokionez, lau taldeek aurkari bera izango dute: Gasteizko Gure Auzune. Jon Martin eta Christopher Galan entrenatzaile dituen infantil mailako taldeak 13:00etan jokatu du. Kadete mailako taldearen txanda 16:00etan izango da –Oscar Macias eta Aitor Iraeta dira entrenatzaileak–. 17:45ean jokatu dute gazte mailako

**BERGARA IZANGO DA EMAKUMEZKOEN BI TALDEEN AURKARIA; GIZONEZKOENENA, BERRIZ, GURE AUZUNE**

mutilek, Josu Herrero eta Iñaki Oyanguren entrenatzaile dituztela. Azkenik, senior mailako taldearen partidua 19:30ean izango da. Aurtengo denboraldian ere Patxi Garcia izango da entrenatzailea.

### Talde nagusiak, bi baja

Biharkoa izango da denboraldi-aurreko azken partidua Ford Mugarrizentzat. Izan ere, hurrengo asteburuan hasiko dute Euskadiko Senior Liga, etxean, Ilcapo Hondarribiaren aurka.

Bi baja izango ditu taldeak aurtengo denboraldirako: Asier Valle atezain beteranora eta Oier Garitano. Bestalde, iaz fitxaririk eduki ez zuen Mikel Etxegia taldera batuko da. Hala, iazkoaren antzeko taldea izango da aurtengoa. "Gazte mailako jokalariek ere pixkanaka goiko taldean sartzen joango gara, gurekin entrenatu dezaten eta ohitzen joan daitezen", dio Herrero. Era berean, "gogotsu" azaldu da denboraldia hasteko.

## MUK ez du hanka onarekin hasi Euskal Kopa, lehena galduta

Baskoniaren aurka 84-76 galdu ostean, bigarren lehia irabazi egin beharko dute lauko finalera sailkatzeko

### E.A. ARRASATE

Iñaki Ogaran *Arri* entrenatzailea ez da gustura geratu lehen partiduak emandakoarekin. "Heldutasun puntu bat falta izan zitzaigun. Baskonia oso talde gaztea zen eta gure taldean, gazteez gain, eskarmentu handiko jokalariek ere baditugu. Horregatik, ezin gara partidu amaierara gasolina barik iritsi. Azken minutuak soseguz jokatzekoak ziren, eta ez genuen irakurketa hori egin", azaldu du.

Partidua orekatua izan zen azken laurdenera arte, entrenatzailearen esanetan, "baina bukaera luze egin zitzaigun, eta haiek kontrolpean izan zuten emaitza. Erritmoari dagokionez, partidu gogorra izan zen, baina ez zen saskibalo partidu ona izan. Garbi geratu zen denboraldi-aurrekoa zela".

Lehena galduta, arrasatearrei zail jarri zaie Iturripen jokatu-

ko den lauko finalerako txartela lortzea. Hiruko multzoa izanik, MUK atsedena izango du asteburu honetan, eta Baskoniak eta ZAST Zarautzek elkarren aurka jokatu dute. Partidu horretako emaitzak baldintzatuko du sailkapena. "Bai edo bai, hurrengo asteburuan irabazi egin beharko dugu Zarautzen aurkako partidua. Hala ere, beste bien arteko emaitzak esango digu zenbat puntuko aldearekin irabazi beharko dugun", adierazi du entrenatzaileak.

### Tartean, bi partidu

Zarauzarren aurka jokatu aurretik, baina, denboraldi-aurreko beste bi partidu dituzte *Arri* ren gizonak. Bihar, zapatua, Loiola Indautxu taldearen aurka jokatu dute, Bilbon, 20:00etan. Eguaztenean, bestalde, Urgatxi taldea izango dute aurkari, Gasteizen, ordu berean.



Luis Zuiarramendi jokalaria, Baskoniaren aurkako partiduan. BASKONIA

### Arrasate Atletiko Taldeak jende berria gura du Mojategin

Pasa den asteburuan atletismoa kalera atera ostean, denboraldi berriari begirako entrenamendu saioak hasi ditu dagoeneko Arrasate Atletiko Taldeak, eta jende berriari dei egin gura izan diote Mojategira gerturatu eta atletismoa probatzeko. Infantil arteko kategoriak eguzten eta egubakoitzetan entrenatuko dira, 18:00etatik 19:00etara.

### Europako mendietara irteera egingo dute, Besaidek antolatuta

Irailaren 21etik 22ra izango da irteera –Posada de Valdeon, Collado Jermoso eta Fuente De–. Izen-ematea irailaren 17an egin beharko da, 19:00etatik 20:00etara bitartean, lokalean bertan edo telefonora deituta: 943 77 30 66. Bazkideek 70 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, 75 euro. Informazio gehiago, [www.besaide.eus](http://www.besaide.eus) webgunean.



# "Nire abestiak, oro har, energia handikoak dira"

**MIKEL INUNZIAGA 'INUN' MUSIKARIA**

Kulturate Akustikoak zikloaren baitan, zornotzarrak emanaldia eskainiko du gaur, egubakoitza, 20:00etan, Sergio Mayoral tronpeta-jotzailearen laguntzarekin

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Formatu ezberdinetan jo ohi duen arren, gaur, bikote formatuan dator dagoeneko hiru disko kaleratu dituen *Inun*. Kontzertua dohainik izango da.

**Eskarmentu handia duzu musikan.**

Nire ibilbide musikala ez da luzea, 2014an hasi nintzen modu serioan. Egia da, baita, urte gutxitan gauza asko egin ditudala, eta orain, 2019an, erabaki dut musikatik bizi nahi dudala.

**Nola hartu duzu erabaki hori?**

Agian, oso erromantikoa dirudi, baina norberak egin behar dio kasu barruan duen horri. Orain arte, kirol munduan aritu izan naiz lanean, baina, azkenaldian,



Mikel Inunziaga *Inun*. INUN

hori musikarekin uzartu ezinik ibili naiz, eta, azkenean, erabaki dut gehien gustatzen zaidan horrekin geratzea, musikarekin. **Behin bide hori hartuta, zein da zure asmoa orain?**

Kontzertuak emateaz gain, euskal musika munduan murgilduko naiz; hezkuntzan, batez ere. Nafarroan Musikariak Ikastetxeetan ekimenean ariko naiz, Euskaltzaindiko musika ziklo bat antolatzen ari naiz...

**Hezkuntzan musikari tokia egiteari garrantzia ikusten diozu?**

Gaurko gazteek gure kultura ezagutu behar dute, eta ikastetxe batzuetan, tamalez, ez da hainbeste zaintzen. Behar kontua

da, eta oso gustura egiten dudan zerbait. Musika irakasteaz gain, euskal kultura sustatzea ezinbestekoa da.

**Kontzertuei dagokienez, nola joan da uda? Eta udazkena nola dator?**

Uda, nahiko lasai, oporrak behar nituen eta. Hala ere, eman ditut kontzertu batzuk, Okondon eta Bilbon. Aurrera begira, gaur, Arrasaten izango naiz, eta Mungian eta Bilbon baditut emanaldi batzuk lotuta.

**Gaur, laguntzaile eta guzti zatotz.**

Tronpeta-jotzaile fenomeno baten laguntza izango dut, bai: Sergio Mayoral. Oso laguna dut eta bai talde formatuan, eta baita bakarlarri formatuan ere, askotan, bere laguntza izaten dut. Esan beharra daukat asko maite dudala formatu ezberdinetan jotzea, bakoitzak bere berezitasunak dituelako.

**Nola deskribatuko zenuke zure musika?**

Nire abestiak, oro har, energia handikoak dira, bihotzetik ateratakoak, eta ni neu ere energia handikoa naiz, kanta geldoak abestu arren. Estilo desberdinetatik edaten dut, baina nik egiten dudana popa da.

## Dantza tradizionala ikasteko aukera, urriaren 7tik aurrera

Portalo elkartek antolatuta urritik maiatzera arte astelehenegingo duten Plazako Dantza Tradizionala ikastaroan izena eman daiteke jada. Bate-tik, AEDn, 943 77 12 28 zenbakira deituta edo [aed@aedelkar-tea.eus](mailto:aed@aedelkar-tea.eus) helbidera idatzita. Bette-tik, Gazte Bulegoan, 943 25 65 telefonora deituta edo [gazte-bulegoa@arrasate.eus](mailto:gazte-bulegoa@arrasate.eus) helbidera idatzita.

## OHARRAK

### Kontzertua Estrellan

Garcia Del Val blues taldeak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Estrella tabernan, 19:30ean.

### Onki Xin taldea, Iratin

Bihar, zapatua, rock elektronikoa lantzen duen Onki Xin taldeak emanaldia eskainiko du Irati tabernan, 23:00etan.

## Debagoieneko GREMIOAK

### ARROZTEGIAK

#### AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukakleak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[blogak.goiena.net/azkarate](mailto:blogak.goiena.net/azkarate)

### HONDEAKETAK

#### EXCAVACIONES Y CONTRATAS

#### ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

[e.arrasate@gmail.com](mailto:e.arrasate@gmail.com)

### ITURGINTZA

#### EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

#### OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

#### URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta halzeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

### LOREZAINZA

#### MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Iragarkia jami nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Begiz jotako koplak liburua. MANEX AGIRRE

## Argazkiei bertsoak jarri, eta liburua plazara

2010etik 2017ra Alex Mendikutek aramaioarrei ateratako ehun argazki ingururi bertsoak jarri dizkie Manex Agirrek, eta 'Begiz jotako koplak' liburua osatu dute. Hilaren 20an aurkeztuko dute, eta salmentako dirua 'Aita Mari' ontziarendako izango da

### Julen Iriondo ARAMAIO

Urteetan Aramaion ateratako argazkiekin liburua osatzeko ideia proposatu zioten Alex Mendikuteri, eta, hasiera batean ideia hura baztertu arren, denborarekin indarra hartu zuen: "Argazkiekin bakarrik ez, baina, haiei hitz batzuk gehituz gero, zergatik ez?", esan zion bere buruari argazkilariak.

Horrela jarri zen Manex Agirrekin harremanetan, eta bien lanaren emaitza da hurrengo barikuan -19:30ean, Sastiñan-aurkeztuko duten liburua: *Begiz jotako koplak*. Argazki guztietan ageri dira herritarrak, batzuetan bakarka eta beste batzuetan lagunduta edo taldean; eta, argazkiekin batera, bertsoak, neurri desberdinetakoak: "Pertsonari edo pertsoneri buruzkoak baino gehiago, irudiei buruzkoak dira egindako bertsoak. Nire ustez, liburua bi irakurraldi merezi ditu: lehenengoa, argazkiak ikusteko, eta, ondoren, bertsoez lagunduta, argazkiak

berrikusteko. Azken finean, bertsoek argazkiei egindako begirada konkretu bat eskaintzen dute", dio Manex Agirrek.

Adibide batekin azaltzen du nolakoak diren argazkiak eta zertuk hartzen dituen bertsoetarako aitzakia: "Badago, adibidez, neska gazte dantzari talde bat, eta Aramaioko sanmartinetako azoka egiten den gunean daude, kale erdian, bobilean jesarrita. Horri buruzko bertsoa ez da eurei buruzkoa, baizik eta automobilak pasatzen diren lekuan jesarrita egoteari buruzkoa. Irudiak iradokitakoaren gaineko bertsoak dira denak". Irudietako asko jaieta-koak, Santa Ageda egunaren bueltakoak, Lorabarri Egune-

**PANTAILA HANDIAN ARGAZKIAK ERAKUTSI ETA BERTSOAK KANTATUKO DITUZTE AURKEZPENEA**

koak eta Martxoaren 8koak dira, esate baterako.

### Hogei eurotan

Manex Agirrek lan handia egin duela dio Mendikutek: "Nirea errazena izan da. Urteetan ateratako argazkiak nituen, nire lana eginda zegoen, baina berak argazkiak hartu eta bakoitzari, bere begiradarekin, koplak bat egitea izugarritzko lana izan da". Mendikutereren parteari buruz Manex Agirrek, berriz: "Argazki ederrak dira, benetan"; zuri-beltzean daude denak.

Liburua herriarentzat egin dutela adierazi dute, eta irabaziak ere ez dira eurentzat izango, itsas salbamendurako *Aita Mari* ontziarentzat baizik. Hogei euro kostako da, eta aurkezpen ekitaldian egongo da salgai. Ekitaldiari dagokionez, azalpenak ematearekin batera, argazki batzuk erakutsiko dituzte pantaila handian, eta bertso batzuk kantatuko dituzte, musikaz lagunduta.

## Irakurle klub feministan parte hartzeko izena eman daiteke


Ibiltaria izan arren, euskarazko taldea Aramaion batu zen aurreko ikasturtean, partaideak bertakoak zirelako

### J.I. ARAMAIO

Gorbeialdeko Kuadrillaren eta Laia Eskolaren ekimena da feminismoa eta irakurketa batzen dituen kluba, eta gaztelerazko eta euskarazko taldeak ditu. Azken hori Aramaion batu zen aurreko ikasturte osoan, izena eman zuten lagunak bertakoak zirelako. Ikusi egin behar gauza bera gertatzen den sasoi berrian.

Klubaren lehen saioa urriaren 14an izango da, 18:00etatik 20:00etara. Ordutik aurrera, hileko bigarren astelehenetan elkartuko dira Ainhoa Aldazabal dinamizatzaileak proposatutako liburua komentatu eta, literaturarekin gozatzearekin batera, feminismoan sakontzeko.

Klubean parte hartzeko izena 945-43 01 67 telefono zenbakian edo *berdintasuna@gorbeialdea.eus* helbidean eman daiteke. Ikasturteko lehenengo liburua



Ainhoa Aldazabal. J.I.

Najat El Hachmi-ren *Azken patriarka* izango da, eta liburutegian eskuratu ahal izango da. Programatuko dituzten beste liburu batzuk izango dira Miren Amurizaren *Basa* eta Kattalin Minerren *Moio*. *Gordetzea ezinezkoa zen*.

## Gaur hasi eta azaroaren 9ra arte, San Martin txapelketa

45 bikote inguruk hartuko dute parte, lau kategoriatan banatuta, eta ligaxka erara jokatuko da hasierako zatia

### J.I. ARAMAIO

Arabako klubetako 45 bikote inguruk eman dute izena aurtengo San Martin pilota txapelketarako; horietatik, hainbat izango dira Aramaioako bertakoak, infantil B kategorian salbu, beste guztietan izango du-eta ordezkariak herriak.

Benjamin, alebin, infantil eta kadete mailetan jokatuko da txapelketa, nahiz eta kategoria beraren barruan A eta B azpimailak egongo diren -kasu batzuetan, pilotetan egongo da aldea batetik bestera-. Partiduak bariku arratsaldeetan eta domeka goizetan jokatuko dira, gaur hasi eta astero-astero azaroaren 9ra bitartean.

Txapelketa ligaxka moduan jokatuko da lehenengo zatian: kategoriaren arabera, baina multzo bat edo bi egongo dira, oro har, bakoitzean, eta lauzpa-



Txapelketan. ARAMAIO PELOTA ELKARTEA

bost bikote ariko dira lehia multzoko.

### Lehen asteburua

Txapelketaren lehenengo asteburuan, hamabi norgehiagoka egongo dira, bost gaur eta domekan gainerako zazpiak.





Iker Beitia, Igantzín jokatuak zirkuituko lehen lasterketan, irailaren 1ean. OSKAR TXOPERENA

# "Mendi duatloi baterako leku egokia da Untzilla"

Azaroaren 17an jokatu da Aramaio probaren lehen aldia, Euskal Herriko zirkuituaren barruan egongo dena, gainera. Lasterketotan lehian ibili ohi den Iker Beitia untzillarrari sortu zitzaion ideia, eta bera ari da, besteak beste, antolakuntzan

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Irailaren 1ean jokatu zen Igantzín, Nafarroan, Euskal Herriko Mendi Duatloien Zirkuituaren aurtengo lehenengo proba, eta bihar izango da bigarrena, Igantzín, Gipuzkoan. Hamar lasterketa izango ditu zirkuituak, eta azken aurrekoa izango da Untzillakoa.

Bertakoa da halako lasterketan lehian aritu ohi den Iker Beitia, eta hari sortu zitzaion zirkuituko aurtengo probetako bat etxean antolatzekeo ideia: "Ikusita Aramaion nolako parajeak ditugun, iruditu zitzaidan halako proba bat antolatzekeo leku aproposa izan zitekeela. Zirkuituko arduradunei komentatu nien ea haien egutegian sartu ahalko genukeen proba, eta ez zuten arazorik jarri. Gainera, Arabako proba bakarra izango da, eta begi onez ikusi zuten. Pausoa emateko, Aramaio Udalaren iritzia jakitea bakarrik falta zitzaigun; Orioxeko kideok elkartu ginen Uda-

larekin, eta Udala ere gertu agertu zen. Azkenean, nik uste dut denentzat ona izango dela".

## Lasterketaren ezaugarriak

Korrika egin beharreko bost kilometroekin hasiko da lasterketa, hamasei kilometro egingo dituzte gero mendiko bizikletan, eta beste kilometro eta erdi lasterka, amaitzeko: "Lehenengo sektorean Murura igoko gara. Ibilbidea nahikoa gogorra izango da. Hasieran nahikoa igoera pikoa du; hori bai, igoera garbia da, ez dago harri arterik-eta, hasieran pista eta gero sendatxo bat. Gero, jaitsierako hasierako 500 metroak nahikoa teknikoak izango dira, eta, lasterketa azaroan izanda, lokaztuta egon

## MURUTIK JOAN-ETORRIA IZANGO DA KORRIKAKO LEHEN ZATIA; BIZIKLETAKOA, ASENSIOMENDITIK

daiteke. Ondoren, pista sartu eta Untzillara iritsiko gara berriro. Bizikleta hartu eta Asensiomenditik bi itzuli izango dira bigarren zatia. Lehen zatiaren ezaugarriak ikusita, apur bat sufritzea tokatuko da hasieran, bizikletarako aldaketagatik. Dena dela, bidea bera, pinuak-eta moztu ibili direnez, ondo jarrita dago, eta euria egin arren ez da oso lokaztuta egongo. Azken sektorea izango dira kilometro eta erdi korrika: ermita ingurura igoko gara Muru aldean, bueltatxo eman eta helmugara".

Lasterketa bakarka zein bina-ka –bikoteko kide batek korrikako zatiak eta besteak bizikletakoa– egin ahalko da. 150 parte-hartzaile izango dira gehienez, eta izena [KiroIprobak.eus](http://KiroIprobak.eus) helbidean eman daiteke.

Boluntario lanetarako, berriz, 50 lagun inguru beharko dituzte, eta Iker Beitia dio asko eskertuko luketela jendearen laguntza: 679 13 65 31 zenbakian eman daiteke izena.

## Mozketak zenbait kale eta bidetan, rallysprinta dela eta

Aita Gabirel Jauregi, Pedro Ignazio Barrutia eta Nardeaga –kiroldegitik okindegira– kaleak zirkulaziorako moztuta egongo dira bihar, zapatua, Aramaioko rallysprinta dela-eta, probak iraun bitartean. Bestetik, aipatutako kaleetako eta frontoiko aparkalekuek libre egon beharko dute 08:30erako, antolaketa lanetarako.

## Musika beltza gaur Sastiñan eta elizan abesbatza domekan

Sastiñako Musika Festibalaren barruan, Aldakan Beltz seikotea ariko da gaur, barikua, 19:30ean hasita. Askotariko musika beltza egiten dute Aldakan Beltz taldeko kideek: cumbia, funka, sanba, afrobeat, bluesa, songoa, gopela... Bestetik, Samaniego Abesbatzak emanaldia egingo du domekan, elizan. 12:30ean hasiko da.

## OHARRAK

### Ur parkea

Eguraldiak aukera eman bitartean zabalik egongo da ur parkea; aurrerantzean, ordea, ordutegi berria izango du: 11:00etatik 18:30era asteburuetan, eta 16:00etatik 18:30era beste egunetan.

### Bertso afaria lbaben

Xabi Igoa, Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua ariko dira bihar bertsoetan.

## Alboka eta beste hainbat instrumentu ikasteko aukera

Urritik ekainera bitartean izango da ikastaroa: alboka, dultzaina, danborra, txaramelak, koi-larak eta kanabera jotzen ikasteko aukera egongo da. Urriaren 3an hasiko da ikastaroa, eta eguenero egingo dute. Irakaslea izango da Fede de Dios. Informazio gehiagorako eta izena emateko: [www.albokerue.com](http://www.albokerue.com) eta 627 72 57 87.

**ARAMAIOKOKO XVII. RallySprinta**

**RENAULT** Passion for life | **AUTOBERRI**

**IRAILAK 14 2019**

**AVIA Meca**  
**E.S. Arrasate**

1go MANGA, 15:00etan • BIDE MOZKETAKO 14:00etan • 3 MANGA

<b>JUBAR</b>	<b>EKI TABERNA</b>	<b>Anteaur</b>
<b>Udalaitz, S.L.</b>	<b>CE Cristalera Errasti, S.L.</b>	<b>ASISTENCIA CARTER</b>
<b>Gertu</b>	<b>Arboto</b>	<b>AÑAI TABERNA</b>
<b>IBARRA</b>	<b>BIRIBIL</b>	<b>BOLINTXO GIBERGIE</b>
<b>IBARRA</b>	<b>BIRIBIL</b>	<b>BOLINTXO GIBERGIE</b>
<b>IBARRA</b>	<b>BIRIBIL</b>	<b>BOLINTXO GIBERGIE</b>





Udalbatzako kideak, osoko bilkuren aretoan elkartuta, opor ostean egindako lehenengo bilkuran. MIRARI ALTUBE

## Larrialdi klimatikoarekin bat egin du Udalak

Klima aldaketa dela-eta konpromiso handiagoak hartzea adostu zuen udalbatzak eguaztenean egindako osoko bilkuran. Horrez gain, kreditu aldaketa bat ere onartu zuten, besteak beste, hainbat eraikinetan segurtasun kamerak jartzeko dirua izateko

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Opor osteko lehenengo ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak eguaztenean, eta, besteak beste, larrialdi klimatikoa izan zuten mahai gainean, EH Bilduk aurkeztutako mozio bat tarteko.

"2018ko azaroan Nazio Batuen Ingurumen Panelak aditzera emandako txostenak egoera larria dela ohartarazten du", adierazi zuen EH Bilduk mozio bidez, eta eraldaketa "azkar eta eraginkorrak" egitea ezinbestekotzat jo zuen, baita Aretxabaletan ere.

Udalaren hiru eraikinetan jarri dute fokua eta 2018ko energia kontsumoa eta gastua aztertu dituzte: Arkupe: argindarra 151.020 kWh eta 44.000 euro, eta gasa, 6.867 euro; Kurtzebarri eskola: argindarra 129.348 kWh eta 21.000 euro, eta gasa, 12.364 euro; eta Ibarra kiroldegia, argindarra, 831.779 kWh eta 118.000 euro eta gasa, 69.600 euro. "Kontsumo handia dute hirurek eta lehenetsuneko ekintzak behar dituzte", zioen Ion Albizu boze-

ramaileak. Hori horrela, proposatu zuten bat egitea klima larrialdi egoerarekin eta konpromisoak hartzea, besteak beste politika eraginkorrak garatzeko neurriak hartzea.

Urtebeteko epean Arkupen, Kurtzebarri eskolan eta Ibarra kiroldegian auditoria energetikoak egitea onartu zuten, eta konpromisoa hartu hiru eraikin horietan, hiru hilabeteren barruan, eguzki plakak jartzeko proposamen tekniko eta ekonomikoak eskatzea. Herritarrek eta adituekin Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea osatzea ere adostu zuten. Era berean, irailaren 27rako deitutako nazioarteko greba deialdia eta antzeko neurriak begi onez ikus-

**PILOTALEKUAN, FUTBOL ZELAIAN ETA KOMENTUAN JARRIKO DITUZTE SEGURTASUN KAMERAK**

ten dituela adierazi zuten gehien-go osoz.

**Segurtasun kamerentzat dirua**

Kreditu aldaketa bat ere onartu zuten dirua sartzeko hainbat partidetan. Kopururik handiena kreditu globalera bideratu zuten, 200.000 euro, gero hortik hainbat kontutara banatzeko. Ongizate Sailean dagoen familia esku-hartze programan 10.000 euro sartuko dituzte, aurretik zegoen 32.000 euroko partida indartzeko. Eta segurtasun kamerak jartzeko ere dirua gorde zuten. Iturri gorri pilotalekuan, Ibarra futbol zelaian eta mojen komentuan jarriko dituzte kamera horiek, eta horretara 9.750 euro bideratzea adostu zuten.

**Arkupeko harrera postua**

Udal lanpostuei dagokienez, Arkupeko harrerarako postu finkoa aterako dela jakinarazi zuen alkateak, eta liburutegian hutsik geratutako postua betetzeko lan-poltsa osatuko dela.



Pentsiodunak, elkarretaratze batean, Herriko Plaza barranean. MIRARI ALTUBE

## Pentsioen gaineko hausnarketa, Basotxoko eskutik

Irailaren 17an, hitzaldia egingo dute Basotxo elkarteak, 17:30ean, Pedro Etxebarriaren gidaritzapean

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteak pentsio duinen inguruko hitzaldia antolatu du, bertako kideek egiten duten hausnarketa herritarrei helarazteko. Irailaren 17an izango da, arratsaldeko bost eta erdietan, Basotxo elkarteak, eta gidari lanetan Pedro Etxebarria arituko da.

**Hitzaldiaren gakoak**

Hitzaldiaren helburuak eta arrazoiak honako hauek direla nabarmendu dute Basotxo elkarteak: Agijupens Gipuzkoako Plataformaren 37.000

bazkideen iritziek ez dutela erabakiak hartzerakoan dagokien pisua adieraziko dute; pentsioen konplexutasunaz arituko dira; oinarrian pentsatzen dutenaren ezagutzara hurbildu nahi dituzte herritarrak, eta, ildo horretan, hausnarketa sustatu eta garrantuko dute eskualde mailan; Basotxok urrats hau egiten du bere bazkideen sentimendua gerturatzeko; eta elkarriketa sustatzaren aldeko apustua egin nahi dute hitzaldi honetan, bertan parte-hartzaileek pentsatzeko modua adierazteko aukera izan dezaten.



M.A.

## "Pozik" ixadabalde azokarekin

Ixadabalde antolatu duten Aretxarteko sei merkatariek "gustura" agertu dira: "Jendea ibili da, bereziki, egubakoitzean". Bezeroak eskertzeko, 50 euroko bonuak eta UDAko bi bazkide-txartel zozketatu zituzten. Hona hemen sarituak: Andoni Miguel, Esther Trabalon, Mirian Zuazua, Garbiñe Alkorta, Jessica Da Silva, Lourdes, Ekiñe Bengoa, Maitane Rubio eta Myrian Iturralde.



# "Trialsina probatzera etortzeko dei egin dugu"

**IBAN GIMENEZ ETA AITOR MURUA OZTOPO TRIALSIN TALDEA**

Open Oztopo txapelketa jokatu dute bihar, zapatua, Aretxabaletan duten gunean, eta kirol hori ezagutzera eta probatzera gonbidatu dituzte neska-mutikoak

**X.Urzelai/M.Altube** ARETXABAETA

Oztopo Trialsin taldearen eskutik hamabost bat neska-mutikok dihardu entrenatzen Aretxabaletako gunean. Horien artean dago Polonian munduko txapelketa irabazi duen Alvaro Gimenez. Kirol hori ezagutzera emateko asmoarekin, txapelketa antolatu dute biharko, zapatua; 16:00etan, gaztetxoenen eta probatzera datozenen txanda izango da eta 18:00etan, gainerakoena. **Munduko txapeldun bat duzue taldean; entrenatzaileak horretan izan du zeresana?**

**Aitor Murua:** Gutxi. Nire erantzukizun bakarria izan da Alvarori trialsineko ateak zabaltzea. Gero, sartu dituen ordu gehienak Oztopok egiten dituen entrenamenduetatik kanpo izan dira. Lortu duena, hein handi batean, Alvaroren eta haren familiaren lanaren ondorio izan da.

**Iban Gimenez:** Familia guztia izan gara Polonian, hari laguntzen. Pozik itzuli gara, noski, baina 10 urte bakarrik ditu eta disfrutatzeke esaten diogu.

**Eta Aretxabaletako gune berriak izan du zeresanik?**

**A.M.:** Bai. Oztopon hiruzpalau mutiko hasi ziren, egoera txarrean zegoen gune batean, eta berriekin entrenamendu duinak eskaintzea lortu dugu. Aretxabaletako Udalak asko lagundu digu, eta gure hurrengo helburua da hobekuntzak egitea; gunea argizatzea, esaterako.

**I.G.:** Kontuan hartu behar da neska-mutiko gazteak direla eta gurasoen beharra dutela gunera eramateko, eta negu partean ilunduta joan behar izaten dugu.

**A.M.:** Une honetan, hamabost bat neska-mutiko dabilta eta gure ateak zabalik ditugu. Gaztetxo guztiak ezin dira futbolariak izan, eta beste kirol bat probatzeko aukera eskaintzen dugu.

**Asteburuan txapelketa duzue...**

Bai; helburua da gaztetxoenei lehiaketa batean parte hartzeko



Iban Gimenez, zuzendaritzako kidea, eta Aitor Murua, entrenatzailea. XABIER URZELAI

aukera ematea: beste txirrindulari batzuk ezagutu, txapelketa bat zer den bizi... Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketetan hainbat izan dira, baina ez guztiak, eta horiekin pentsatu dugu. Federazioaren babesa dugu, eta

bizikletak utziko dizkigu edonork proba dezan. Txapelketaren arautegia aldatu dugu, eta nagusi guztiak batera jardungo dute. Zirkuituari bi buelta emango dizkiote, eta gero, final handi bat jokatu dute sailkatutakoekin.



Alvaro Gimenez, Polonian, txapelketako saio baten. IBAN GIMENEZ

## Munduko txapelduna, Oztopokoa

Benjamin mailako Espainiako txapelketa irabazi ostean sailkatu zen Poloniako munduko txapelketarako Alvaro Gimenez, eta han ere lehen postua eskuratu zuen. "Ordu asko egiten ditu entrenatzen, eta oso pozik gaude emaitzarekin", dio haren aita Iban Gimenezek.

## Etxean hasiko dute Gipuzkoako txapelketa herriko pilotariek

Eskuz binaka jardungo dute eta gaur, egubakoitza, hiru partidu jokatu dituzte Iturrigorri pilotalekuan

**M.A.** ARETXABAETA

Liga eran jokatu den eskuz binakako Gipuzkoako pilota txapelketari ekingo diote gaur, irailak 13. Aretxabaletako hiru bikoteek etxean izango dituzte lehen partiduak, Iturrigorri pilotalekuan, 19:30ean hasita.

**Txapelketa "gogorra"**

Bigarren mailako kadeteek – Uribarren eta Uribebarria– Alegiako Intxurre elkarteekin kontra jokatu dute; lehen mailako kadeteek –Etxabe eta Lanzos–, Amezketako Zazpittu-

rrikoen aurka, eta lehen mailako gazteek –Lasa eta Igartua– Azpeitiko Ilunpe elkarteekin jardungo dute nor baino nor gehiago.

Juan Mari Errasti entrenatzailea itxaropentsu agertu da: "Txapelketa gogorra izango da, gazteen artean, bereziki, baina baditut neure esperantzak. Dena den, lehenengo partiduak jokatuta ezin da jakin zer gerta daitekeen". Gazteek zortzi bat partidu izango dituzte lehen fase honetan, eta kadeteek bost inguru.

## Gazte Eguna egingo dute Ojala Zelain hilaren 21ean

Atxabaltako Gazte Mugimenduak Gazte Eguna antolatu du irailaren 21erako, zapatua; Ojala Zelain egingo dute. Eguna oso egitaraua gertatu dute ordurako, eta, besteak beste, izango dituzte gazte jolasak eta gazte bazkaria Ojala Zelain bertan eta elektrotxarangarekin kalejira, iluntzean, Aretxabaletan.

Bazkarirako txartelak dagoneko salgai jarri dituzte Haizea eta Urbaltz tabernetan –7 euro da–; horiek erosteko azken eguna datorren eguaztena da, irailaren 18a. Ospakizunera Andramaietarako –abuztuaren 14rako– ateratako kamiseta urdinarekin agertzeko dei egin dute antolatatzaileek.

## Teknikaria behar du Loramendi euskara elkarteak

Teknikari postua betetzeko dei egin du Loramendik, Aretxabaletako euskararen, kulturaren eta aisiaren gaineko proiektuak dinamizatzeko. Urtea bukatu arte Euskaldiko dinamizatzaile lanak egitea ere eskatuko diote. Astean 26 orduko lan jarduna izango du, urrian hasita.

Eskatuko diote: euskalduna izatea; ekintzailea; eta dinamizaziorako eta kudeaketarako gaitasuna. Eta baloratuko dute: aretxabaletarra izatea eta bertako euskara menperatzea; euskalgintzan esperientzia eta oinarriko IKT ezagutzak izatea. Curriculumak bidali hona: [euskara@loramendielkartea.eus](mailto:euskara@loramendielkartea.eus); azken eguna urriaren 22a da.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAETA

Jou Diaz

Harakina

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABAETA



Hainbat lagun dantzan, mojen komentuko lorategian, joan den domekan. MIRARI ALTUBE

## Gorputza dantzan eginez astintzea, terapiarik onena

Basotxo erretiratuen elkarteko kideek, Aretxabaleako Udalaren laguntzarekin, dantzaldiak egiten dituzte udako domeka arratsaldeetan, hamabostean behin; giro ederrean elkartzen dira eta herritar guztiendako dituzte zabalik ateak

**Mirari Altube** ARETXABALETA

"Hezurak mugitzera gatoz, horrek on egiten du eta. Etxean ez da geratu behar!", diote mojen komentuko lorategian dantzan egiteko elkartzen diren erretiratuek. Basotxo erretiratuen elkarteak, Udalaren laguntzarekin, dantzaldiak antolatzen ditu, hamabostean behin, domeka arratsaldeetan. Eta AZ Gaubelak

DJ aretxabaletarren musikari jarraituz gorputza astintzeko elkartzen dira nagusiak eta ez hain nagusiak. Mokadutxoa eta edatekoa ere eskaintzen dute han, eta, eguraldia lagun, jende asko gerturatu da orain artean.

**Dantzan egitea "kosta"**

"Lorategi polita dugu, herriaren erdigunean, eta guk ateratzen

diogu horri probetxua uda partean", dio Mari Karmen Gutierrezek, Basotxoko kideak. Giro polita sortu arren jendea kosta egiten zaiola dantzan hastera gaineratu du: "Dantza arautua bai, baina librea herriko plazetan ere gero eta gutxiago egiten da... Zailtasuna duginok animatzen gara eta beste batzuk ere animatu gura ditugu".

## Domekan hasiko dituzte futbol eskolako entrenamenduak

2011n jaiotako neska-mutikoei zabaldu dizkie ateak aurten UDAk, eta izena ematera gonbidatu ditu

**M.A.** ARETXABALETA

Futbol denboraldia hasi da eta futbol eskolako neska-mutikoei ere entrenamenduei ekingo diete aste bukaeran. Futbol zelai berria iritsi bitartean –urrian izango da hori–, futbol eskolaren

ohiko egutegia aldatu egin dute. Hala, domeketan izango dituzte entrenamendu saioak, etzi hasita, hilak 15. Hona hemen ordu-tegia: 2010ean eta 2011n jaiotakoak, 09:00etatik 10:00etara; eta 2009an jaiotakoak, 10:00etatik 11:00etara.

**Izen-emate epea zabalik**

2011n jaiotako neska-mutikoei lehenengoz zabalduko dizkiete ateak: "Futboleko lehen urratsak egin nahi dituztenei dago irekia: teknika ikasi, taktika barnerratu, balioak eta emozioak landu... Hau da, futbolaraz gozatu eta futboleko ikasi".


Izena emateko epea zabalik izango dute irailaren 27a bitartean; Ibarra futbol zelaira jo behar da horretarako, astelehen, eguazten edo egubakoitzetan (17:00-18:30).

## Gustura zatoz dantzaldietara?



**ANA MARI ARETXAGA**  
ERRETIRATUA

"Ipurdia mugitu egin behar da! Dantzan egiteak on egiten dio tripari, buruari, baita umoreari ere. Musika eta dantza oso onak dira buruarendako".




**MARI KARMEN GUTIERREZ**  
ERRETIRATUA

"Jendea etortzen da, baina asko, begiratza bakarrak; izan ere, jendaurrean dantzan egitea ez da nolanhiko kontua. Baina nik oso gustuko dut".



**MARI TERE GARZIAETXABE**  
ERRETIRATUA

"Bete berri ditut 91 urte eta senitartekook bazkaria izan dugu, urtero moduan. Ondoren, dantzaldira etorri gara, eta oso gustura gabilta".



**JON ANDER ALBERDI**  
AZ GAUBELAK DJ-A

"Kosta egiten zaie hastera, baina gero, hartzen dute martxa. Publiko zorrotza da eta Benidormen entzuten diren kantuak jartzen dizkiet".

Erretiratuek "betiko kantuak" dituzte gustuko: "Gorputza astintzera bultzatzen gaituzten kantuak ditut gustuko, betikoak, ez orain jartzen duten burrundara hori", dio Ana Mari Aretxagak. Ekainaz geroztik dihardu AZ Gaubelak taldeko DJ Jon Ander Alberdik musika jartzen dantzaldietan, eta "publiko zorrotza" dela dio: "Merengea jartzen diet asko, kantu klasikoak, jotak, helduta dantzan egitekoak ere bai... Benidormen izaten dituzten estilokoak dira gehienak".

**Dantza eskolak**

Dantza librea gain, eskolak ere jasotzen dituzte martitzenetan. Koreografiak, merengea, ballenatoa eta beste lantzen dituzte. "Hainbat elkartzen gara eta oso gustura gabilta", dio Gutierrezek.

**IRAILAREN 22AN EGINGO DUTE AURTENGO AZKEN DANTZALDIA, MOJEN LORATEGIAN**

**OHARRAK**

**Zenbaki sarituak**

Kurtzebarri BHIkoen 2019-2020ko ikas bidaiaren zozketako zenbaki irabazleak: 9.988 (1.300 euro); 9.987 eta 9.989 (biek urdaiazpikoak). Jasotzeko azken eguna: irailak 20 (Kurtzebarri BHI, 943 89 95 13).

**Mariatxi doinuak**

Mariatxiak izango dira gaur (19:00), Zaraia taberna aurrean, Aretxartek antolatuta.

**Beinke-Loramendi dantza entseguak hasi dituzte**

Beinke-Loramendi dantza gogorarazteko entseguak antolatuta ditu Loramendi elkarteak, sanmigele begira. Martitzenetan dira saioak (19:00), hilaren 17an eta 24an, Kurtzebarri eskolako gimnasioan; eta entsegu orokorra irailaren 26an egingo dute, Herriko Plazan. Izena emateko: [euskara@loramendielkartea.eus](mailto:euskara@loramendielkartea.eus), 943 77 09 70 eta 685 75 67 29.





San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jai batzordeko zenbait kide festetako kartelarekin. GOIENA

# Auzolana bultzatuz, jaiak berreskuratuko dituzte

Hemezortzi urtez egin gabe izan diren San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan. Besteak beste, gimnasten erakustaldia, trialsin erakustaldia eta Alegria De La Sierra taldearen emanaldia izango dira

## Imanol Beloki ESKORIATZA

2001ean egin ziren azkenengoz San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jaiak. Hala, hemezortzi urtean antolatu barik, bertako bizilagunen iniziatibaren ondoren jai batzordea osatu, eta jaiak berreskuratzea erabaki dute. Horretarako, auzotar ugari-riren lana eta Udalaren eta komertzioaren babesa izan dute. Hori horrela, egitarau zabala prestatu dute asteburu osorako; gaur arratsaldean hasiko dituzte jaiak, eta domeka iluntzean amaituko dituzte.

## Ekintzak pilatuz

"Hemezortzi urtean egin ez den arren, azken bost urteetan hor aritu gara zenbait auzotar ideiak botatzen eta jaiak egin behar ditugula esaten, eta, azkenean, taldetxo osatu eta lanean jarzea erabaki dugu. Hala, hasiera batean, egun bakarreko festa egin nahi genuen; bazkari bat eta musika dantzagarri pixka bat jarri. Baina lanean

hasi bezain pronto, auzotarren inplikazioa izan dugu, eta ekin-tza kopurua gehitzen joan gara egitaraura. Jendea prest agertu da, eta hori pozgarria da guztiontzat. Beraz, lan gehiago izan dugu, eta izango dugu asteburu osoan, baina merezi izango du, hori seguru...". adierazi du Andoni Motok, Intxaurtxueta eta San Pedro auzoetako jai batzordeko kideak.

Festak antolatzearen helburu nagusiak dira, bereziki, auzoko txikienek bertako festak ezagutzeta dela eta helduagoak direnek aspaldiko garaiak gogoraraztea, Motoren esanetan.

## Bazkari jendetsua

400 pertsona batuko dira bazkaltzeko, zapatuan, Partxis plazan. Txartel guztiak agortu dira, eta antolatzaileak pozik agertu dira izandako arrakastarekin: "Txartel guztiak saldu ditugu, eta harrিতa geratu gara izandako arrakastarekin. Hori horrela, zapatuan, karpa jarriko

dugu Partxis plazan, eta eguraldiak laguntzen badigu ederto irtengo delakoan gaude". Menua, berriz, itsaski-fideua izango da, baina itsaskirik gabekoa nahi duenak ere aukera izango du horretarako.

## Musika eta erakustaldiak

Bestalde, eskoriatzarrak izan arren herrian kontzertua jo barrik urte pila bat daraman Alegria De La Sierra taldearen emanaldia izango da. Eibar Ipurua taldeko gimnasten erakustaldirako ere gimnasta ugari batuko dira, zumba saioa ere izango da, Male dantza taldearen *Flamenco fusión* saioa, eta, azken orduan erabakita, artisautza azoka ere prestatu dute, besteak beste.

## 400 PERTSONA BATUKO DIRA, ZAPATUAN, PARTXIS PLAZAN EGINO DEN HERRI BAZKARIAN

## Asteburura begirako egitaraua

### Egubakoitza, 13

- 18:30 Trikitiarekin kalejira.
- 19:00 Txupinazoa, bertsoak, buruhandiak eta japoniar traka, Intxaurtxueta plazan.
- 19:00 Pintxo-potea, Sei Gurrpil txarangak girotuta.
- 21:30 Moto Guatequea. Partxis plazan.

### Zapatua, 14

- 10:00 Txistulariekin kalejira.
- 10:00 Artisautza azoka. Intxaurtxueta plazan.
- 11:00 Haurrentzako eta gurasoentzako jolasak. Partxis plazan.
- 12:00 Triki-potea.
- 12:30 Buruhandiak. Intxaurtxueta plazan.
- 13:00 Gimnasia erritmikoa Ipurua taldekoekin. Oreka plazan.
- 14:00 Patata-tortilla lehiaketako sari banaketa. Partxis plazan.
- 14:30 Herri bazkaria. Partxis plazan.
- 16:00 Alegria De La Sierra taldearen emanaldia. Partxis plazan.
- 16:00 Puzgarriak. Intxaurtxueta plazan.
- 19:00 Parrilada. Intxaurtxueta plazan.
- 19:00 DJ Moto. Intxaurtxueta plazan.
- 22:45 Suzko erruberak.
- 23:00 DJ Moto. Intxaurtxueta plazan.

### Domeka, 15

- 09:00 Bizikleta irteera.
- 12:00 Bizikletak konpontzeko tailerra. Oreka plazan.
- 13:00 Bizikleta zirkuitua.
- 13:00 Male dantza taldearen *Flamenco fusión* saioa. Intxaurtxueta plazan.
- 16:00 Trialsina. Oreka plazan.
- 17:00 Zumba saioa. Partxis plazan.
- 18:00 Defentsa personal saioa. Partxis plazan.
- 19:30 Plastiko bilketa.

## Irailaren 21ean egingo du Aldaypek batzar orokorra

Aldaype ehiza eta arrantza elkarrekin 2019ko batzar orokorra egingo du irailaren 21ean, zapatuan, Ibarraundi museoa. Lehenengo deialdia 16:00etan da eta bigarrena, berriz, 16:30ean. Bertan, honako gai hauek tratatuko dituzte: aurreko akten onarpena, 2018ko diru kontuen onarpena, 2018ko ekintzak, Zuzendaritza Batzordea berritzea, 2019. urterako helburuak, beste batzuk, eta galdera eta erantzunak.

Horrekin batera, pasa den zapatuan, Aldaypeko zenbait ehiztarik Gipuzkoako Federakuntzako ehiza txikiko txapelketa jokatu zuten Santa Cruz del Fierro, Araban. Guztira, hamasei ehiztari izan ziren bertan, sei beterano eta hamar senior. Hala, senior mailako lehenengo hirurak, Alex Oiarzabal, Aitor Uribealzo eta Andoni Etxenau-sia, hilaren 28an jokatu den bailarako txapelketarako sailkatu ziren, eta beteranoetatik, berriz, Juan Carrasco.

## Zabalik dago matrikulazio epea Udal Euskaltegian

Euskara ikasi edo hobetu nahi duen edonork Leintz Udal Euskaltegian izena emateko aukera dauka, matrikula epea zabalik baitago. Hori horrela, astelehene-tik irailaren 25era bitartean, informazioa lortu edo matrikula egiteko, euskaltegiak bulegoa jarriko du kultura etxeko lehenengo solairuan, honako ordu-tegi honetan: astelehene-tik eguenera 16:00etatik 19:00etara bitartean eta egubakoitzetan 10:00etatik 13:00etara bitartean.

Euskaltegiak maila eta ordu-tegi desberdinetako eskolak eskaintzen ditu, eta Eskoriatzako Udalak, berriz, euskaltegiko matrikula egiten duten ikasleentzako dirulaguntzak emango ditu. 2019-2020 ikasturtean lehenengo matrikula egiten dutenek %50 bakarrik ordaindu beharko dute, eta, eskatutako asistentzia bete ondoren, ordaindutako kopuru osoa berriro bueltan jaso ahal izango dute ikasturte bukaeran; modu horretan, ikasturte osoa doan izango da.



Petti musikari beraterra kontzertuan. IMANOL SORIANO

## Hamabigarrenari agur esango diote zapatuan

Gaztetasunak eta esperientziak talka egingo dute Errekan Goraren hamabigarren edizioari amaiera emateko. Hain zuzen ere, Ekiñe Casado arrasatearrak emanaldia egingo du, 20:00etan, Emakumeen plazan, eta 22:30ean, berriz, Pettik

### Imanol Beloki ESKORIATZA

Atxorrotx Kultura Elkartek antolatutako Errekan Gora jaialdiaren hamabigarren edizio honi amaiera emango diote asteburu honetan. Horretarako, bi emanaldi prestatu dituzte zapaturako: batetik, Ekiñe Casado musikari arrasatearra izango da Emakumeen plazako –Inkernu taberna aurrean– oholtza gainean, 20:00etan. Bestetik, Petti musikari beraterra izango da leku berean, 22:30ean.

Abuztuko oporraldiaren geldialdiaren ostean, Errekan Goraren azken bi emanaldiak izango dira zapatuan, eta hala emango diote amaiera aurtengo Errekan Gora jaialdiari.

### Gaztetasunetik esperientziara

Ekiñe Casado arrasatearrak zenbait bertsio eskainiko ditu gitarrara akustikoaren, trikitiarekin eta ukelelearekin zapaturako emanaldian. Urtarrilean eskaini zuen lehen kontzertua, eta, hasiberria den arren, kali-

tate handiko abestiak eskaintzeko abilezia daukala erakutsiko du. Batez ere, bakarlariren abestiak. Besteak beste, Garazi Goienetxe, Bebe eta Gose taldearen bertsioak entzun ahal izango dituzte bertaratzen diren entzuleek. Gaztea izan arren, ahots bikaina eta freskoa duela argi utziko du, gutxika-gutxika indarra hartzen ari dena.

Arrasatearraren bertsioekin motorrak berotu ostean, Petti beratarraren txanda izango da. Etxean moduan arituko da ibilbide luzeko musikaria; izan ere, zenbait aldiz eskaini du kontzertua Eskoriatzan, eta, bere ahots urratu eta sakonarekin, rock, folk-rock, post-rock, rhythm-and-blues, country eta

**HAMABIGARREN EDIZIOAK EMANDAKOAREKIN "OSO POZIK" AGERTU DIRA ANTOLATZAILEAK**

beste hainbat estiloz bustitako kantuak eskainiko ditu.

### Balorazio positiboa

Edizio hau amaitu barik, Travelling Brothers taldearen blue-sa, Lau Eme Haatik dantza konpainiaren lana eta Eskean Kristo taldearen rock-and-rola izan dira orain arte. Ikuskizun horiek uztailean izan ziren, eta opor ostean amaiera borobila eman gura diete Atxorrotx Kultura Elkartekoek. Hala, egindakoei erreparatuz, aurtengo edizioaren balorazioa positiboa egin dute antolatzaileek: "Orain arte izan ditugunak kalitatezko taldeak izan dira, eta ikus-entzuleen partetik jaso dugun feedbacka oso ona izan da. Beraz, beste edizio bat egiteko gogoz gaude. Hala ere, zapaturako kontzertuak geratzen dira, ea hauek ere arrakasta izaten duten eta jendea gerturatzen den", adierazi du Edorta Barandiaranek, Atxorrotx Kultura Elkarteko kideak.

## Ikastaroak izango dira nagusi Mugikortasun Astean

Irailaren 17tik 22ra bitartean, ekintza mordoak izango dira, egunez egun, adin askotarikoei zuzenduta

### I.B ESKORIATZA

Urtero bezala eta Europako hainbat herrirekin bat eginez, Eskoriatzan Mugikortasun Astea ospatuko dute, irailaren 17tik 22ra bitartean, *Oinez, bizikletaz, zein patinetez segurtasunez ibili* lelopean.

Irailaren 16an eta 18an, patinaje ikastaroa egingo dute, 17:30ean, Luis Ezeizako kantxan. Bertan parte hartu nahi duenak kiroldegian eman beharko du izena. Prezioa hiru euro da. Irailaren 17an, martitzenean, patineteak nola eta non ibili ikasiko dute.

Hain zuzen ere, patinetean herrian zehar modu seguruan ibiltzeko arauak eta gomendioak azalduko dituzte. Ikastaroa doakoa da; 17:00etan (6-9 urte) eta 18:00etan (10-12 urte).

Eguenean, irailaren 19an, bi orduko *nordick walking* ikastaroa egingo dute, eta izen-ematea kiroldegian egin beharko da. Irailaren 20an, berriz, umeentzako, patinetean eta patinetan ibiltzeko ginkana izango da, 17:30ean, herriko plazan. Amaitzeko, Arrasatera bizikleta martxa egingo dute, 10:00etan, plazatik irtenda.



I.B

## Urrutiari omenaldi beroa

Apotzagako zazpigarren goitibehera jaitsiera berezia izan zen. Izan ere, Jose Angel Urrutia gogoan izan zuten. Emozioz betetako testua irakurri zuten Eskoriatza Goitibehera Zaleak taldeko lagunek, eta txapela eman zioten Urrutiaren familiakoei. Horrez gain, Euskal Herriko Inertzia Kirolen Federazioko kideek ere gogoan dutela adierazteko, oroigarria eman zieten familiakoei.

### Irailaren 29an egingo diete omenaldia erretiratuei

Irailaren 29an izango da aurtengo herriko erretiratuei egiten zaien omenaldi-festa, eta bazkarirako izen ematea zabalik dago jada. Izena emateko egunak honako hauek izango dira: irailaren 3a, 5a, 10a, 12a, 17a, 19a eta 24a, Olazar Erretiratuen Elkarteko bulegoan, 11:00etatik 12:30era. Bertara joan nahi duenak sei euro ordaindu beharko ditu.

Erretiratuen omenaldira begira, urteroko egitaraua prestatu du Eskoriatzako Udalak: 11:00etatik 12:30era bitartean, salda hartzeko batuko dira erretiratuen etxean; 12:30ean, meza izango dute; eta 14:00etan, bazkaria, Joseba Iñurrategi pilotalekuan; ondoren, urtero bezala, dantzaldia izango da, eta nagusienek lore sorta eta oparia jasoko dute Udalaren partetik. Gainera, beste zenbait opari ere banatuko dituzte bertaratzen direnen artean.





Pasa den egubakoitzean, rock kontzertuak izan ziren.



Pilotalekuan, haurrak puzgarrietan jolasean.



Gatzagarra eta Otxandiotik eta Gatz Bidea eginez joandakoak paella-janean.

# Gatzagako festak, ederto

Pasa den egubakoitzetik domekara bitartean ospatu zituzten Gatzagako jaiak, eta "balorazio positiboa" egin dute antolatzaileek. Bola-jokoa, oinez etorritako bisitarien etorrera eta paella-jana nabarmenduta, txukuntze-lanetan aritu dira astean zehar

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako jaiak, Andramaiak, ederto joan dira. Hiru egunean ekintza mordoia izan dituzte eta beste herri batzuetatik gerturatutako bisitariak ere murgildu dira festan, gatzagarrekin batera. Bola-jokoa, Otxandiokoen eta Gatz Bidea eginez joandakoen bisita eta paella-jana nabarmendu nahi izan dituzte antolatzaileek.

Jaietako lehenengo eguneko ohiturari jarraituz, rock kontzertuak izan ziren, eta, aurre-

ko urteetan baino jende gutxiago izan arren, giro apartarekin hasi zituzten jaiak. Horrekin batera, bola-jokoa ere izan zen, eta azken urteotan parte-hartzea handitu dela nabarmendu du Joannes Mendizabalek, Udaleko kultura zinegotziak: "Bola-jokoa ez du hutsik egiten. Jende dezente batzen da bertan, giro aparta izaten da, pikea, eta azken urteotan, gainera, parte-hartzea asko handitu da. Berez, oso pozik gaude izandako arrastagatik".

**Otxandiar ugari festetan**

200 otxandiarrek oinez egin zuten Gatzagarako bidea. Bestetik, bigarren, Aretxabaletako eta Eskoriatzako herritarrek ere joan ziren, Gatz Bidea eginez. "Jaien balorazio positiboa egiten dugu, batez ere, domekan, jende asko batu zen, nahiz eta paella-janerako denak ez geratu... Jaietako elkartasun zozketako saria, bestalde, 197 zenbakiarentzako izan zan, jaki goxoz osatutako otarra. Otxandiar batek eraman zuen".



Kintoen arteko jolasetan, aulki-jokoan.



Herri kiroletan izandako aizkora erakustaldia. ARGAZKIJABEAXXX

## Autobusa Saliese-ko Gatzaren Eguna joateko, Biarnora

Frantziarren gonbidapena jaso dute gatzagarrek hara joan daitezten; harrera ekitaldia ere egingo diete

**I.B** LEINTZ GATZAGA

Gatzaren jaia ari dira ospatzen eguna ezker Saliese herrian, Biarnon, Frantziaren, eta domekan emango diete amaiera festei. Hori horrela, gatzagarrek gonbidatu dituzte, eta hauek ez

dute hutsik egingo. "Iaz egin genuen senidetzea dela-eta gonbidapena jaso dugu Salieseko Gatzaren Eguna joateko. Udal ordezkariak gain, Gatz Museo-ko ordezkariak, herriko beste zenbait elkartetako kideak eta

hainbat herritar animatu dira, eta, hori horrela, autobus bat bete jende joango gara hara", adierazi du Joannes Mendizabalek, Leintz Gatzagako Udaleko Kultura zinegotziak. 08:00etan Gatzagatik irten eta 20:00etan itzuliko den autobusa doakoa izango da, baina herri bazkarrirako txartela 15 euro ordaindu beharko dute bazkaritara joan nahi dutenek.

Saliesera iristean, harrera ekitaldia jasoko dute gatzagarrek, eta gero, egunean zehar izango

diren ekintzekin gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

**Egitarau betea**

Artisau azoka, ur-zamaketerien lasterketak, herri bazkaria, karrozren desfilea, kale animazioa... izango da han, besteak beste, eta Saliese herrira egun-pasa joatera animatu nahi dituzten herritarrek Udalak. "Harrera ekitaldian udal ordezkariok hartuko dugu parte, eta beste zenbait ekintzatara ere joango gara,

eurek gidatuta. Edozelan ere, hara joaten diren herritarrek ederto pasatzeko aukera izango dute...".

**Senidetza jarraipena emanaz**

2018an, urriaren 21ean, Gatzaren Eguna ospatu zuten Gatzagan, eta bertan, besteak beste, Saliesek eta Leintz Gatzagak senidetze ekitaldia egin zuten. Hori horrela, domeka honetan Frantziako herrian izango denez Gatzaren Eguna, zenbait gatzagar han izango dira.



# Urtez urte hazten doan danborrada

Azken urteetan hazten joan da domekako helduen danborrada eta aurten ere inoizko parte-hartzerik altuena izango du, 700 bat lagunengatik inplikazioarekin; prestaketan eragileek erakutsi duten jarrera ikusita, festak oso parte-hartzaileak izatea espero du Udalak

## Jokin Bereziartua BERGARA

Gaur hasi eta astelehenera bitartean hainbat eta hainbat ekitaldi izango dira San Martin jaietan. Herritarren lanak egin du posible egitaraua osatzea: "Hainbat eta hainbat elkarte aritu dira elkarlanean: Xaxau, musika eskola, zezenzaleen elkarte, Beart, erraldoien konpartsa, musika banda, pilota, saskibaloia eta eskubaloia elkarrekin... Elkarte horiek guztiek herritar pilo bat biltzen dituzte eta haien lanari esker izan da posible sanmartinetarako egitaraua prestatzea. Eskerrak eman beharrean gaude", esan zuen aurkezpen agerraldian Kultura teknikari Maider Osak.

Udalak 57.000 euro bideratu ditu aurten egitaraua osatzeko, 2018an baino 1.000 euro gehiago, eta jaiak berdintasunean, errespetuan eta kontsumo arduratsuan igarotzeko dei egin du. Aurten ere kontzientziaziorako bertsoa kaleratu dute egitarauan: *Parrranda egitean dantzan zein hitzeko; izan ditzadan zenbait une umorezko; marra txuri, pilula, kalimotxo fresko; aukerako zaituztet ez derrigorrezko.*

## 42 postu Oxirondoko ferian

Egitarautik ekitaldirik nabarmendu behar bada, zapatu goizko azoka da horietako bat. Barazki eta fruta postuez gain, gazta, kontserbak, gozogintza,

ogia eta beste hainbat produktu izango dira Oxirondon; denetara, 42 postu. Eta, urtero moduan, ez da faltako 20 bat gaztagile batuko dituen gazta lehiaketa. Gainera, iazko esperientzia arra-




Jaiak iragartzeko agerraldia, protagonista izango diren eragileetako batzuekin. J.B.

kastatsua errepikatzen asmoz, EHUko ikerlari Bittor Rodriguezek gazta dastatze komentatua egingo du. Barazkien, fruten eta gazten lehiaketen sari banaketa 13:30ean egingo da.


## 700 lagun danborradan

Sanmartinetako beste ekitaldi kutuna domeka gaueko helduen danborrada izango da. Urtez urte hazten doan ekitaldia den seinale, inoizko parte-hartzerik



**AITOR ERAÑA ZULOAK**  
KONPAINIAKO ZUZENDARIA

"Danborrada urtez urte hazten doa, ilusioa badagoen seinale. Garai batean, danborrada oso gaizki egon zen, eskerrak buelta eman diogula. Aipatzekoa da emakumeen presentzia hazten doala; iaz gizon eta emakume kopuru bera zegoen eta ziur aurten emakumeak direla gehiago. Hori oso sintoma ona da. Gainera, jende gaztea ilusioz ikusten dut, entsegetara joaten, eta geroago eta hobeto jotzen".



**MARIJE UGALDE MUSIKA**  
ESKOLAKO ZUZENDARIA

"Ezin zen beste modu batera izan, eta musika eskola egunero egongo da presente San Martin jaietan: dantza sueltoko txapelketa, klasiko bat dena, aurten egubakoitzean egingo da; zapatuko azoka eskolako trikitilarietara alaituko dute; domekako danborradako ezinbesteko osagaietako bat izango gara; eta astelehenera umeen danborrada eskolako gazte bandak alaituko du".



**ANTTON SASIAIN BERGARAKO**  
ERRALDOIAK TALDEKO KIDEA

"Reus-en (Tarragona) pasatuko dugu asteburua. Harremana dugu beste talde batzuekin eta egin izan ditugu elkartrukeak, oso aberasgarriak dira. Torrejon de Ardoz-en (Madril) egon ginen azken aldian, esaterako. Bergarako Erraldoi Taldea gero eta gehiago hazten ari da eta gero eta gehiago mugitzen gara. San Martin jaietan derrigor egon behar dugu; autobusetik zuzenean joango gara kalejirara".



**JULEN ARANBURU BERGARA**  
KIROL ELKARTEKO PILOTA SAILA

"Sanmartinetara begira bigarren aldiz antolatu dugu Bergara Hiria emakumezkoen pilota txapelketa. Nobedadea da aurten promes mailan bakarrik antolatu dugula; bi multzo egin ditugu. Irailaren 6an A multzoko partiduekin hasi ginen eta San Martin egunean B multzoko partiduekin jokatuko dira (11:30). Nesken kirola hazten joatea nahi badugu hurbildu gaitezen frontoira, aukera polita da".

## GLOBAL STUDIES AKADEMIA



Ingeleseko eskolak

- Adin eta maila guztiak (3 urtetik aurrera)
- Talde murriztuak (zortzi, gehienez)
- Banako eskolak eta talde txikiak (2 edo 3 ikasle)

Irakasgai guztietarako laguntza eskolak: **Lehen Hezkuntza, DBH, batxilergoa...**

Hizkuntza berriak (oinarrizko maila): **Alemana, frantsesa, txinera, italiara...**

San Lorentzo 23, beheka 1 - BERGARA • Tel.: 943 22 93 24 - 605 76 32 72  
global\_studies\_academy@yahoo.es

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

## disdira

ile-apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55



handiena izango du. 500 danbor-jole, 100 barrika-jole, 50 japoniar, 55 bandako musikari eta banderadun guztiak aintzat hartuta, 700 lagun inguru batuko ditu danborradak. Danborrada herrian horrenbeste errotu izanarekin pozik dago Udal Gobernuak: "Herritarren atxikipen oso handia dauka danborradak; aurten, gainera, hiru konpainia estreinatuko dira: Candem Town, Mariaren Lagundia eta Iparra Galtzen", dio Kultura zinegotzi Kristina Markinak. Aurten, gainera, nobedade aipagarri bat izango du: "Orain arte danborrada plazara heltzen zenean konpainia bakoitzak zuzendari bat izaten zuen; aurten bi zuzendari egongo dira, guztira. Bat danbor-joleendako eta bestea barrika-joleendako".

**Agertokian, bergararrak nagusi** Nabarmentzekoa da, era berean, bergararrek izango duten protagonismo eszenikoa. Edu Murua mendiaraz bergararren Aukean dantza konpainiak lehenengoz aurkeztuko du *Biz Hitza* ikuskizuna jaioterrian (ikus 28. orria). Bergararez osatutako Ertzak Bidean proiektuaz goza-

## "HERRITARREN ATXIKIPEN OSO HANDIA DAUKA DANBORRADAK"

KRISTINA MARKINA, KULTURA ZINEGOTZIA

## "ELKARTEEN LANARI ESKER IZAN DA POSIBLE EGITARAU HAU PRESTATZEA"

MAIDER OSA, KULTURA TEKNIKARIA

tzeko aukera ere izango da, eta, doinu gogorragoen barruan, Low Cost Deluxe eta No Limits taldeek ziur ikus-entzule asko erakarriko dituztela.

Gainerako ohiko ekitaldiek ez dute hutsik egingo. Horien artean daude, besteak beste, bikote nagusiendako dantza suelta txapelketa (ikus 28. orria), Simon Arrieta pintura lehiaketa, sokamuturra, Joselu Anaien kontzertua... Bandaren kontzertuak ez

du hutsik egingo astelehenean, San Martin eguna, plazan (12:30). Enrike Txurrukak lehenengoz zuzenduko du sanmartinetako kontzertua: "Berezia izango da. Plazan, jaieguna... Gustura jartzeko kontzertua. Aurrerantzean, ohituren oinarria mantendu nahi dut, baina sasoi berrietara eguneratzea ahaztu gabe. Oraingorako baja ugari dauzkagu eta entsegu egun gutxi. Ez da berrikuntzetarako sasoi egokiena,

baina joango gara gauza berriak egiten", dio Txurrukak.

**Gaueko autobus zerbitzu berezia** Bisitariak ere erakarri nahi ditu Udalak, eta aurten ere gaueko autobus zerbitzu berezia egongo da. Irailaren 13an eta 14an, errefortzuak egongo dira, batetik, Antzuolarako eta Elgetarako eta, bestetik, Eibar, Soraluze, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriaztarako. Zerbitzu berezia gauera-

ditik aurrera jarriko da martxan (Lurraldebus: 900 30 03 40).

**Aparkalekuak San Martin eskolara** Herri barruko afekzioari dago-kionez, Oxirondoko aparkalekua libratu beharko da eta gaur goizeko zortzietatik aurrera ezingo da aparkatu. Trukean zapatuan goizean goiz San Martin eskolako eta Ipintzako patioak zabalduko dira bertan aparkatu nahi dutenentzat, 23:00ak arte.

## San Martin jaietako egitaraua

### IRAILAK 13, EGUBAKOITZA

**19:00** Bergara Hiria emakumezkoen SASKIBALOI TXAPELKETA, Labegarietan. Donostiako IDK Gipuzkoa eta Frantziako Tarbes Gaspe taldeen arteko lagunartekoa. Sarrera doakoa izango da. Antolatzailea: Bergara Kirol Elkarte saskibalo saila.

**19:00** TXOSNEN IREKIERA Munibe plazan, Xaxau elkartearen eskutik.

**19:30** Low Cost Deluxe taldearen KONTZERTUA Munibe plazan.

**19:30** Bikote nagusiendako 34. DANTZA SUELTOKO TXAPELKETA Seminarixoa. Antolatzailea: Bergarako Musika eta Dantza Eskola.

**21:30 eta 00:30** Obanekue taldearen ERROMERIA San Martin plazan.

### IRAILAK 14, ZAPATUA

**09:30** Barazki eta fruta LEHIAKETA eta AZOKA Oxirondon.

**10:30** Gazta LEHIAKETA Oxirondon.

**11:00** Bergarako trikitilarien KALEJIRA Oxirondo azokatik hasita.

**11:00** Umeendako TAILERRAK: lora sikuen erramuak (Katabixan) eta fruta brotxetak eta taloak (Oxirondon).

**11:30** Bergarako odolosteen DASTATZEA, Oxirondon.

**12:00** Erleak eta ezti ERAKUSKETA. Eztia dastatzeko aukera egongo da Erlantz Olabariaren eskutik, Oxirondon.

**13:30** Barazki, fruta eta gazta lehiaketetako SARI BANAKETA, Oxirondo plazan.

**15:00** HERRI BAZKARIA Munibe plazan. Ondoren, jolasak. Xaxau jai herrikoien konpartsak antolatuta.

**17:30** Gaztetxoendako zezentxoak eta poneyak, Seminarioko patioan.

**18:00** Txaranga.

**21:00** ERROMERIA Garilak 26 taldearen eskutik, Xaxauk antolatuta.

**22:00** Aukeran dantza taldearen Biz Hitza IKUSKIZUNA udal pilotalekuan, zuzeneko musikarekin. Sarrera doakoa da.

**00:30** No Limits taldearen KONTZERTUA Munibe plazan, Xaxauk antolatuta.

### IRAILAK 15, DOMEKA

**09:00** SOKAMUTURRA, Barrenkalean eta San Martin plazan.

**09:00** Aire libreko Simon Arrieta pintura LEHIAKETA, Beart elkarteak antolatuta. Sari banaketa ekitaldia udaletxean izango da, 14:30ean.

**11:30** Bergara Hiria emakumezkoen pilota TXAPELKETA partiduak, udal pilotalekuan. Sarrera doan. Antolatzailea: Bergara Kirol Elkarte Pilotatzailea.

**13:00** Ertzak Bidean taldearen IKUSKIZUNA Munibe plazan.

**18:30** Bergarako Erraldoi Taldearen KALEJIRA.

Bergarako Txistulari Bandak, Elgoibarko eta Arrasateko

dultzaineroek eta Bergarako trikitilariak lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Fraiskozuri, Irizar, Barrenkalea eta San Martin plaza.

**19:00** Saskibaloitza taldearen AURKEZPENA San Martin plazan. Antolatzailea: Bergara Kirol Elkarte saskibalo saila.

**22:30** Nagusien DANBORRADAREN irteera. Ibilbidea: Errotalde jauregia, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Fraiskozuri, Irizar, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Barrenkalea eta San Martin plaza.

**23:30** San Martin Agirrerren heriotzaren ERREPRESENTAZIOA San Martin plazan, Bergarako Musika Bandaren laguntzarekin.

**00:15** Joselu Anaiak taldearekin ERROMERIA San Martin plazan.

### IRAILAK 16, ASTELEHENA

**09:00** SOKAMUTURRA, Barrenkalean eta San Martin plazan.

**11:00** DIANA Bergarako Txistulari Bandarekin.

**11:30** KALEJIRA Bergarako Musika Bandarekin.

**12:00** Errekortadoren ESKOLA IBILTARIA seminarioan.

**12:30** Bergarako Musika Bandaren KONTZERTUA San Martin plazan. Zuzendaria: Enrike Txurruka.

**18:30** Umeen DANBORRADA. Ibilbidea: Errotalde jauregia, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Fraiskozuri, Irizar, Barrenkalea, San Martin plaza. Bergarako Musika Eskolako gazteen laguntzarekin.

**19:15** Eskubaloiko nagusien taldeko aurkezpen PARTIDUA Labegarietan: Soraluze BKE eta Elgoibar. Antolatzailea: Bergara Kirol Elkarte saskibalo saila.

**22:00** SUZKO ERRUBERAK Agorrosin Kirol Gunetik.



**UGARTE**  
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak  
Horma-Armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

*Ondo pasa jaietan!*

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com



# Arrizuriagarako ideiarik onena zehazteko bozketa

Arrizuriaga aisialdirako gune egitea eskatu zuten herritarrek aurreko agintaldian, eta orduko sei proposamen nagusien artean gustukoena zein den jakiteko bozketa antolatu du Udalak; Gobernuak dio goiz dela lehentasunezko proiektua izango den jakiteko

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Bergararrek 120 ideia proposatu zituzten aurreko agintaldiko *Bergara hobetzeko ideiak* ekimenaren barruan. Udal teknikariek ideia horien bideragarritasuna neurtu ostean, herritarrek horietatik egokienak iruditzen zitzaizkienak bozkatu zituzten; 344 bergararrek eman zuten botoa. Egungo Udal Gobernuak zehaztu du "goiz" dela Arrizuriagan zerbaitegitea lehentasuna den zehazteko, eta ekimen honetatik ateratako ideia bozkatuenak beste ideiekin batera plan estrategiko baten barruan kokatuko dituzte. Plan hori irailan jarriko da martxan.



Arrizuriaga jauregia. JOKIN BEREZIARTUA

**Anfiteatroa, jolas-gunea...**

Bergara hobetzeko ideien barruan, helduen artean proposamen bozkatuena izan zen Arrizuriaga aisialdirako egokitzea. Hori bai, herritarrek hainbat aukera proposatu zituzten, eta horien guztien artean erabaki

behar da orain. Hain zuzen, honako sei ideia hauen artetik aukeratu beharko dute herritarrek, [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus) webgunean: kontzertuak, antzerkiak eta kultura arloko bestelako ekitaldietarako eraikinaren behe-

ko aldean anfiteatro bat egitea; parkean ume eta helduendako ziburuak jartzea; umeendako jolas-gune "ezberdin" bat jartzea tirolina batekin, ur txorrorekin eta berrerabilitako materialez egindako egiturekin; Arrizuriaga eraikina kultura eta gizarte arloko ekintzak egiteko egokitzea eta parkean aisialdirako elementuak jartzea –eserleku erosoak, ganorazko lorategia, iturriak, mahaia, agertokia, bizikletendako aparkalekua...–; Espolira ematen duen harresia kentzea; eta Ramon Maria Lili kaletik Arrizuriagara sartzeko atea eta hormak aprobetxatuta txakurrendako jolas parke bat egitea.

**1.000 euro ideia bozkatuenari**

Idea bozkatuenaren egileak 1.000 euro jasoko ditu eta bigarrenak, 500 euro. Botoa emateko azken eguna irailaren 22a izango da; Udalak hilaren 24an jakinaraziko ditu ideia bozkatuenak eta saridunak.

## GORA ETA BEHERA



O.E.

### Saihesbidetik oinez joateko tunela, "ilun"



GI-627 errepidearen albo baten aparkatu eta herrira oinez jaitsi ohi den herritar batek dio pasabide osoa eta bereziki tunela "ilun" daudela. "Gune beltz" hori argizatzea eskatu du.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo ☎ 688 69 00 07.

## OHARRAK

### Bergararren Arreta Zerbitzua: neguko ordutegia

Irailaren 17tik aurrera, astelehenetik egubakoitzera 07:30etik 15:30era eta eguenetan 16:00etatik 19:00etara egongo da zabalik.

### Ander Rodriguezen hitzaldia, menpekotasunaz

Erretiratuek antolatu dute; hilaren 18an da, Seminarixoa (10:30).

### 1942an eta 1944an jaiotako ospakizuna

1942koek urriaren 5ean Zumelagan bazkalduko dute, eta 30 euro aurreratuko behar dira irailaren 27a baino lehen: ES04 3035 0009 11 0091155205 (Laboral Kutxa). 1944koak irailaren 28an Pasai San Pedrorra joango dira; izena emateko, irailaren 19a baino lehen deitu: 943 76 50 22 edo 943 76 59 78.





# IDK Gipuzkoa eta TGB frantziarrak aurrez aurre

**SASKIBALOA** Emakumezkoen II. Bergara Hiria Saskibaloia Txapelketak hartuko ditu gaur, egubakoitza, bi talde horiek Labegaraletan (19:00): "Gure neskek ikus dezatela helduagoak direnean saskibaloian jokatzera ere posible dela", diote klubeko ordezkariak

**Xabier Urzelai** BERGARA

Bergara Hiria torneoak maila goreneko emakumezkoen saskibaloia ekarriko du gaur iluntzean Labegaraletara, IDK Gipuzkoa eta Tarbes Gespe Bigorre izango dira eta zein baino zein gehiago -19:00; sarrera, doan-. BKEko ordezkariak gustura geratu ziren iazko txapelketaren formatuarekin, eta aurten errepikatu egin dute: "Jendea etorri zen Labegaraletara eta taldeetako ordezkariak gustura geratu ziren lagunartekoarekin. IDK Gipuzkoa talde finkoa da gurean, eta eurak arduratu dira TGB taldea gurerara ekartzeaz", adierazi du Marian Melladok.

**Denboraldi-aurrean murgilduta**

Bi talde horiek denboraldi-aurrean murgilduta daude, eta gaurko partidua prestaketa modura erabiliko dute. Frantziarrak, esaterako, asteburuan Gasteizen egon dira Araskiren eta Valentziaren kontra jokatzeko. Fran-



Iazko torneoan, IDK Gipuzkoako eta Prometekoak izan ziren aurrez aurre. GOIENA

tziarrek 71-53 galdu zuten arabarren kontra eta Valentziak puntu bakarragatik irabazi zien (67-66). IDK Gipuzkoak, berriz, Hotel Gran Bilbao torneoan 67-64 galdu berri du Lointek Gerrikaren kontra.

**"Klubeko neskei zuzenduta"**

Melladok azpimarratu du elite mailako emakumezkoak etxean ikustea baliagarria dela BKEko neskendako: "Adin batetik aurrera saskibaloia uzteko joera izaten dute, eta pena da".

## "Aurkezpena herritarren aurrean egitea ohitura bilakatu da"

**MARIAN MELLADO** BKE-KO SASKIBALOI SAILEKO PRESIDENTEA

Bergara saskibaloia elkarteko ordezkariak pozik daude ikasturte hasiera honek duen itxurarekin. Domekan, klubak aurten izango dituen talde eta jokalariek aurkeztuko ditu, San Martin plazan, 19:00etan: "Herritarrei saskibaloia taldeak gerturatzeko modua da hori".

**Dagoeneko ohitura bilakatu da denboraldi hasieran talde eta jokalariek San Martin plazan aurkeztea.**

Bai, urteak daramatzagu ekitaldia antolatzen, eta, egia esan, gustura egiten dugun gauza bat da. Ekimen hau bururatu zitzaigunean, helburua zen saskibaloia herritarrei gerturatzera.



MARIAN MELLADO

Ardura hori geneukan klubeko ordezkariak, eta irudituz gero San Martin plaza leku ezin aproposagoa zela horretarako. Eta, urte batzuen ondoren, ohitura bilakatu da, denboraldia hasteko modua da. **Eta zenbat talde aurkeztuko dituzue domekan?**

Hastera doan denboraldian, guztira, hamar talde izango ditugu, iaz baino talde bat gehiago. Emakumezkoen kasuan, modu positiboan baloratzen dugu kategoria guztietan ordezkariak izango ditugula. Infantil mailan talde bat izango dugu, kadete mailan bi talde -lehenengo urtekoak eta bigarren urtekoak-, errendimenduzko junior mailan talde bat eta senior mailan azkena.

**Gizezkoen junior mailan izango duzue hutsunea.**

Hori da. Infantil eta kadete mailetan ez dugu arazorik, bina talde izango ditugulako, baina egia da junior mailan ez dugula ordezkariak izango. Ez da ezustean harrapatu gaituen zerbit, lehenagoko urteetan kategoria txikiagoetan izan dugun hutsunearen emaitza delako, baina, zorionez, pare bat urtean, egun kadete mailan daudenekin osatuko dugu kategoria hori. Eta senior mailan ere badugu ordezkariak.



MAIDER ARREGI

## Futbolearen bidea ireki zuten

"Guk egin genuen apur horrek lagundu izan badu gaur egungo gazteei bidea irekitzen, bada, pozik geratzen gara", adierazi zion GOIENARI Agurtzane Letek, duela 25 urte Bergaran futbolearen jokatzeko hasi zen emakumeetako batek. Zapatuan, klubaren eta zaleen partetik omenaldia

jaso zuten orduko taldekideek -torneoa jokatu zuten jokalariek txalo artean hartu zituzten- eta ohorezko sakea ere egin zuten. Ondoren, Bergarako neskek 6-1 irabazi zuten Bergara Hiriko finalean. Seguruena, hori da ordukoak omentzeko modurik onena.



DANI SANCHEZ

## Berrocal finalaurrekoan da

Bergara Hiria pilota txapelketaren bigarren edizioari ekin zioten joan den egubakoitzean. Eta lehenengo jardunaldian bergarar bakarra izan zen: Maddi Berrocal. Bergarakoak Naroa Agirrerekin batera txapelketan aurrera egitea lortu zuen (16-8). Oraingo domekan, hilak 15, beste jardunaldi bat jokatu dute (11:30) eta hor Uxue Zubizarreta izango da etxeko ordezkaria.



Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo dantzariak, oholtza gainean. J.M.

## Etxean ere etxetik kanpo beste dantzatzeko gogoz

Bikote nagusien 34. dantza suelto txapelketa jokatu du gaur, barikua, 19:30ean, Seminarixuan. 12 bikote lehiatuko dira; tartean, Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bergararrak. Donostian eta Zarautzen lortutakoak etxean errepikatzen gogoz daude

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA Bergarako Musika Eskolak bikote nagusientzako 34. dantza txapelketa antolatu du San Martin Agirre jailetan. Gaur izango da, Seminarixuan, 19:30ean, doan.

16 urtetik gorako hamabi bikotek parte hartuko dute; Gipuzkoako eta Bizkaiko dantzariak. Horien artean, Bergarako bikote bakarra egongo da: Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo. "Etxean dantzatzeko beste puntu bat ematen dio", azaldu du Murgiondok, eta Galarragak gehitu du: "Alde onak eta txarrak ditu. Urduitasun handiagoa izan dezakegu eta, ondorioz, huts gehiago egin. Hala ere, polita da".

### Bigarren bi postu

Beste txapelketa batzuetan emaitza politikak lortzeki dator bikotea; baina etxeko txapelketan, emaitzari baino gehiago ondo pasatzeari eta ondo dantza egiteari eman nahi diote garrantzia. "Herrian dantza egiteko gogotsu gaude", diote.

Irailaren 1ean, Donostian jokatutako dantza suelto txapelketan bigarren postua lortu zuen bikote bergararrak; eta, hurrengo egunean, Zarautzen ere bigarren postuarekin itzuli ziren etxera. "Emaitza horiek poztasuna ematen dute, bai; baina, dantza berdinean egin arren, batzuetan postu on bat lortzen da eta beste batzuetan ez", dio Galarragak.

### Moises Azpiazu taldekoak

Umetatik dabilta Moises Azpiazu dantza taldean bai Galarraga eta baita Murgiondo ere; bikote moduan dantzan 14 bat urterekin hasi ziren –egun, Murgiondok 18 urte ditu eta Galarragak, 19–. "Maite Lazkano izan

**BERGARAN BETI EGON  
IZAN DA DANTZA  
SUELTO  
TXAPELKETETAN  
LEHIATZEKO OHITURA**

da gure irakaslea, berarekin ikasi dugu", nabarmendu du Galarragak. Azkeneko urtean gutxiago entseatu dutela diote; izan ere ikasketengatik Galarraga etxetik kanpo ibili da.

### Lehiaketak, gainbehera?

Bergaran beti egon da dantza sueltoan lehiatu izan duen bikoteren bat, baina bailara mailan ez da ohikoa: "Dantza taldeak osasuntsu daude, baina taldean egiten da dantza, lehiaketetarako pausoa ez da ematen", diote.

Dantza lehiaketek Gipuzkoan dute indar handiena, eta irailean Seguran egiten dena da "garrantzitsuena". Dantza sueltoak, aldiz, Azpeitian du indar handia: "Beti izan dute zaletasuna", dio Murgiondok. Gaurko lehiaketan, Azpeitiko bederatzik bikote lehiatuko dira.

Saioak plazan izaten direnean barruan baino jende gehiago batzen dela dio Galarragak. Gaur, Seminarioa betetzea nahi dute dantzaz gozatzeko.



Aukeran dantza taldeko kideak, dantzan. LORALDIA

## Euskara batuaren historia, dantzaren bitartez azalduta

Bihar, zapatua, Aukeran dantza taldeak 'Biz hitza' ikuskizuna eskainiko du pilotalekuan, doan

### A.E. BERGARA

Aukeran dantza taldearen *Biz hitza* ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da bihar, zapatua, pilotalekuan. Edu Muruamendi-iaraz bergararrak zuzentzen du ikuskizuna.

### Euskararen historia

"Euskara batuaren historia dantzatua" moduan aurkeztu dute lana. Ikuskizunak munduko hizkuntza ororen historia unibertsala du abiapuntu, baina euskara batuaren istorio partikularra kontatu nahi du dantzaren bitartez. Xabi Paya kul-

turgileak idatzi du gidioa eta Aukeran taldeak koreografiak sortu ditu.

"Herria da gorputza, hizkuntza bihotza", Urepelako artzainaren esana da. Eta, hizkuntza gorputza balitz? Nola azalduko lituzke gorputz adierazpenak hizkuntzaren bat-bateko jaiotza eta elearen etengabeko bilakaera? Abiapuntu horretatik sortu dute ikuskizuna. Euskaltzaindiaren babesa du emanaldiak.

### Sarrerak, doan

Udal Pilotalekuan izango da dantza saioa, 22:00etan, doan.

## Domekan izango da aire libreko Simon Arrieta pintura lehiaketa

Udaletxean markatuko dituzte koadroak, 09:00etan; sokamuturratik, atzeko atea ere zabalik egongo da

### A.E. BERGARA

Aire libreko 46. Simon Arrieta pintura lehiaketa egingo dute domekan.

Edonork parte har dezake lehiaketan; horretarako, udaletxean aurkeztu beharko da domekan, 09:00etatik 11:00etara bitartean. Han markatuko dituzte koadroak. Ordu horretan sokamuturra egongo denez San Martin plazan, udaletxeko atzeko atea ere zabalduko dute –San Pedro kalekoa–. Teknika eta gaia libreki izango dira, eta baita lanaren neurriak ere.

Lanak egun berean aurkeztu beharko dira, udaletxean, 13:00etatik 14:00etara bitartean.

Horretarako gai den epaimahai batek erabakiko du zein den lanik onena: egunean bertan, 14:30ean emango dute erabakiaren berri. Irabazleak 1.000 euro irabaziko ditu, bigarrenak 410 euro eta bergararenak 210 euro. Artelanekin erakusketa zabalduko dute irailaren 20tik urriaren 3ra bitartean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Bi koadro onenak Udalaren eta Bearten esku geratuko dira.



# Mendi lasterketa zaleek elkarteak sortu dute

Hurrengo barikuan aurkeztuko dute Intxortako Ahuntzak izeneko taldea, plazan. Zaletasun bereko hogeit hamar lagun elkartu dira, eta ateen zabalik jarraitzen dutela esan dute. Bazkaria egingo dute hilaren 21ean. Kamisetak ere atera dituzte

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA  
Mendiarekiko zaletasuna osasuntsu dago Elgetan. Enduro zaleek Piñukoku taldea sortu zuten urte hasieran, eta hurrengo aste bukaeran aurkeztuko du Intxortako Ahuntzak elkarteak mendi lasterketetan ibiltzen den herritar talde batek. "Aste Santuan hasi ginen elkarteak sortzeko kontuarekin. Sei bat lagun izango ginelakoan geunden, baina, azkenean, 22 heldu elkartu gara. Neska-mutiko batzuk ere gerturatu dira", azaltzen du elkartearen presidentea Ruben Sanchezek. Kirol elkarte moduan eratu dira, eta 15 euroko kuota ezarri dute. Partaideei dagokienez, emakumeak eta gizonak daudela azaldu du Sanchezek. "Oihana Kortazar taldean da. Argider Txurruka eta Iratxe Alonso ere bai. Emakumeak ere badabilta mendian, eta gerturatu dira elkartera".

Mendi lasterketekiko zaletasuna elkarbanatzea, elkarren berri edukitzea, informazioa trukitzea, herrian zaletasuna

sustatzea... hainbat helbururekin jaio da Intxortako Ahuntzak elkarteak, eta etorkizunean lasterketa bat edo trail ibilbideak egitea ere gustatuko litzaieke.

"Elgeta mendiz inguratuta dago. Beste leku batzuetan baino baldintza hobekak ditugu", azaldu du Argider Txurrukak. Hainbat arlotarako ikusten du taldeak onuragarri: "Lasterketetara elkarrekin joateko, prestaketa edo entrenamenduak bakarrik ez egiteko...". Asegurua eta federatutxartela egiteko ere lagungarri izango da.

Maila askotariko mendi lasterkariak daude Intxortako Ahuntzak elkarteak. Kide izateko eskatzen dutena da urtean, gutxienez, lasterketa edo mendi martxa batean parte hartzea.

**"SEI BAT LAGUN  
IZANGO GINELAKOAN  
GEUNDEN, BAINA  
22 HELDU  
ELKARTU GARA"**

## Aurkezpena irailaren 20an

Bariku iluntzean, kamisetak saltzeko mahaiak ipiniko dute plazan, eta luntxa ere iragarri dute. Jendaurreko aurkezpena izango da.

Biharamunean, hilak 21, Intxortako lgoeran parte hartzekoak dira taldeko hainbat lagun, eta beste hainbati antolakuntzan aritzea egokitu zaie. Orduan estreinatuko dituzte taldeko elastikoak.

Salmentarako atera dituzten kamisetak dagokienez, 4 urtetik aurrerakoendako daude, neska zein mutil, eta prezioa 15 euro da.



Intxortako Ahuntzak taldeko kideetako batzuk, elastiko berriak soinean dituztela, astelehenean, Intxortan. L.Z.L.

## Domekan, lehen mailako blues musikariak Ozkarbi elkarteak

Tonky de la Peña gitarra-jotzailea eta abeslaria izango dugu Elgetan Paul San Martin pianistarekin batera

### Goiena komunitatea

Goibeko / ELGETA

Tonky Blues Band talde mitikoaren sortzaileak eta buruak 40 urte daramatza bluesa egiten. Europako bluesaren adierazgarri nagusietako bat da, eta izar askoren aholkulari eta maisu izan da. Ozkarbi elkarteak egingo du kontzertua, domekan, Paul San Martin pianista donostiarrarekin batera, 12:45ean. Nazioarteko bluesmen handiekin aritu da Tonky: Carey Bell, Louisiana Red, Charlie Musselwhite, Jerry Lee Lewis, Mick Taylor, Luther Allison, Buddy Miles, Raimundo Amador... *Sli-de* gitarraren espezialista handia ere bada.

Kontzertua egiteko elkarlanean jarri gara Goibeko eta Ozkarbi. Asmoa da formatu txikiko hainbat kontzertu egitea. Batzuetan izango dira Euskal Herrian biran



Tonky de la Peña. TONKY BLUES BLAND

dabilzanak, gehienetan Euskal Herrikoak, eta beti kalitatea zainduz. Frogatu nahi izan dugu ordutegi berezi hau, beste herri batzuetan funtzionatu duela ikusita. *Marianito kontzertuak* deitzen diegu gure artean. Etorri eta gozatu.

## Boluntarioak behar dira urriaren 6ko antzezpenarako

Frankistek 1936ko urriaren 4an ekin zioten erasoari, eta bonbak lehertzen hasi aurreko uneak ekarriko dituzte gogora memoria jardunaldien barruan egiteko den antzezpen berezian. 30 bat boluntario behar dituzte, guztiak errepublikaren aldekoak irudikatzen. Aktore nagusiak izendatuta daude. Figurante lanak egiteko behar da jendea.

## Hilaren 21eko baserriarren azokan dozenatik gora postu

Izen-ematea zabalik da hilaren 16ra arte, eta, oraingoz, dozenatik gora postu daude baieztatuta: lau baserriar, hiru artisau, marokoar gozoak, seigarren mailako ikasleak, baratze parkeko ortuzainak, furgobaratza, liburutegia... Tirolina eta txaranga ere egongo dira aurten. Intxortako Igoera, berriz, eguerdian jokatu da.

## Arimen Gauean antzeztu dutenak, 'Txoriene' saiora

ETBko sukaldaritza saiotik deitu dute esanez saio bat egin gura dutela Elgetako Arimen Gauean parte hartutako jendearekin. Bi pertsona daude gonbidatuta, eta nor joan erabakitzen batzarra deitu dute antolatzaileek. Urteotan antzezpenean parte hartutako guztiak daude gonbidatuta hilaren 20an ludotekan egingo den bilerara, 19:10ean.

## OHARRAK

### Ipuinak liburutegian

Kontalari boluntario taldearen eskutik hiru saio, gaur, liburutegian. 17:00etan (+ 8 urte), 17:30ean (+ 5 urte), eta 18:00etan (+2 urte).

### Odol-ateratzeak

Erizain eta sendagile taldea 18:00etatik 20:00etara izango da astelehenean, udaletxean. Odol-emaileak behar direla ekarri dute gogora.

# Eskola handitzeko lanik zaratatsuenak, eginda

Abuztu erdialdean abiatu zituzten Herri Eskola handitzeko lanak; hala, ikasleek ikasturtea hasterako lanik zaratatsuenak eginda geratu dira. Urte eta erdi iraungo du obrak, eta, guztira, 1.200.000 euro pasatxoko aurrekontua izango du

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Uztail bukaeran hastekoak ziren arren eskola handitzeko lanak, abuztuko bigarren astera arte ezin izan dira hasi. Hala ere, lanik zaratatsuenak, hondeaketa eta zulatze lanak, amaituta daudela azaldu du Hirigintza teknikari Valen Moñuxek. "Ikasturtea hasi da eta zarata handiena ateratzen duten lanak ere egin dituzte. Orain hasiko dituzten bestelako hondeaketa lanek ere molestatu egingo dute, baina gutxiago. Obretan gertatzen den moduan, hautsa eta lokatza aterako dute. Baina esan beharra dago zarata gutxiagoko lanak izango direla eta okerrera egin da dagoela", argitu du Moñux udal aparejadoreak.

Lanen epeari dagokionez, urte eta erdikoak izatea adostua dagoen arren, Hirigintza teknikariak azaldu du esperantza badutela obra lehenago amaitzeko, baina ikusi egin behar dela. "Opor egunetan egin behar diren lanek baldintzatuko dute obraren martxa; beraz, ikusi egin beharko da epea aurreratu daitekeen".

**Obra sakona**

Patia eta jangela ere handiagoak izango dira. Jangela ia bikoitza izango da, gainera. Lehen solai-



Lehen faseko hondeaketa lanak egin dituzte. MAIDER ARREGI

## URTE ETA ERDIKO EPEAN EGINGO DIRA HERRI ESKOLA HANDITZEKO LAN SAKONAK

ruan, bi gela egongo dira -horietako bat bikoitza izango da, handiagoa-. Bigarren pisuak, aldiz, tamaina bereko hiru gela edukiko ditu. Horrez gain, pisu bakoitzean bulegoak eta komunak ere egingo dira. Eraikinak

bi pisu edukiko ditu, beheko baxuaz gain. Obra sakona izango da. "Eraikinak U forma dauka eta Sagastira irekita dago; patioa erdian. Obra egitean, O forma izango du eta ez da zabalik egongo. Gelak jarriko dira itxiera horretan. Patio estalia izango du eta goian terrazak". 1.200.000 euro pasatxoko aurrekontua dauka eta arkitektura tradizionalari, estilo modernoko eraikina gehituko zaio: "Orain arteko handitze lanek estilo klasikoak jarraitu duten arren, orain modernoaren alde egin da".



MAIDER ARREGI

## Pentsio duinak eskatu dituzte

Astelehen honetan, irailaren 9an, egin dute Antzuolako erretiratuek eta pentsiodunek opor sasoiko etenaldi osteko lehen elkarretaratzea. "Iaz 50 lagun inguru batzen ginen eta espero dugu kopuru horri eusten jarraitzea. Astelehenero Herriko Plazan eguerdiko hamabietan eta ordu laurdenez elkartzen jarraituko dugu", azaldu diote GOIENARI erretiratuek.

## GORA ETA BEHERA



ARROLA

## Frantses uren iturria berreskuratu dute



AHTaren langileei eskatuta, eta Udalaren laguntzarekin, Arrolak Frantses uren iturria Basalde auzoko sarrera berrira eroatea lortu du. Iturri berria du Antzuolak. Mila esker!

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo ☎ 688 69 00 07.

## Moderno eta handiagoa

300 metro koadro handiagoa izango da Antzuolako Herri Eskola. Lan sakonak egingo dira eta gela gehiago izateaz gain, patioa eta jangela ere handiagoak izango dira. Aurrefabrikatutako gelak egon diren alboko espalorainoko azalera hartuko du eskola berrituak. Luzeran ere irabaziko duela espazioa azaldu du Valen Moñux teknikariak.



Proiektuko argazkia. ANTZUOLAKO UDALA

## Helduen ingeles eskolan izena emateko azken eguna

Helduendako ingeles saioak emango dituzte Antzuolan. Martitzenetan eta egunetan izango dira eskolak eta ordu eta erdi iraungo dute: 15:00etik 16:30era bitartean, hain zuzen ere. Informazioa eta izen-ematea, Bergarako EPA/HHIn -Irizar jauregia, 943 76 44 52-. Izena emateko azken eguna gaur da, irailak 13, egubakoitza.

## Europako mendietara irteera atzeratu egin du Arrola elkarteak

Astebetaz atzeratu du Arrola mendizale elkarteak Europako mendietara egin behar duen irteera. Hala, urriko lehen asteburua beharrean, urriaren 12 eta 13an izango da irteera. Hogeita plaza daude aterpetxean. "Izena eman beharko dute interesa dutenek, berriro, [arrolamt@gmail.com](mailto:arrolamt@gmail.com) helbidera mezua idatzita. Barkatu eragozpenak".





Josebe Blanco, Hector Gordo eta Maddi, Pikunietan. PIKUNIETA BASERRIA

# Baserriko bizimodutik ikasteko, WWOOF sarea

Antzuolako Pikunieta baserriak 'woofer' ugari hartzen ditu etxean. Bertan, baserriko bizimodua ezagutu eta elkarbizitza lantzen dute, diotenez "esperientzia aberasgarria" denentzat. GOIENAK gertutik ezagutu ditu proiektuaren nondik norakoak

## Jone Olabarria ANTZUOLA

Kaleko eta baserriko munduak uztartzea helburu duen WWOOF izeneko mundu mailako sarean kokatzen da Antzuolako Pikunieta baserria, eta leku ezberdinetatik datozen *woofer*-ak jasotzen dituzte bertan; baserriko lanak ikastera etortzen direnak, hain zuzen ere. "WWOOF sareko baserri guztiok komunean duguna ekologikoan lan egitea da, gure kasuan artzaintzan eta gaztagintzan, baina mota askotako ereduak daude", azaldu du Pikunieta baserriko Josebe Blancok.

Hori da, hain zuzen, Hector Gordoren kasua; lanbidea ikasi nahi izan zuen, eta, hala, Miranda de Ebrokua izanda, gertu zituen aukeren artean Pikunieta jotzea erabaki zuen. "Niretzat, gakoa elkarbizitzaren aldeko apustua izan da; horregatik aukeratu nuen Pikunieta. Leku guztietan ez dute egunerokoa partekatzen, hemen familiako beste bat naiz".

Josebe Blancok azaldu duenez, familiako kide guztientzat ere oso esperientzia aberasgarria da: "WWOOF sareari esker, etxetik mugitu gabe bidaiatzeko aukera dugula entzun nion behin gu bezala aritzen den bati. Arrazoi du, beste pentsaera eta kultura batzuegandik ikasteko aukera ematen digu".

## Askotariko profilak

Gordoren esanetan, hasieran, nekazaritza ekologikoari buruz ikasi baino ez zuen nahi. Informazio bila hasi eta WWOOF sarearekin topo egin zuen. Egun Pikunietan orturik ez duten arren, "giro polita" nabaritu zuen eta hori Antzuola aukera-

**"ETXETIK IRTEN GABE, MUNDUKO KULTURA ETA PENTSAERA EZBERDINAK EZAGUTU DITZAKEGU"**

tzeko erabakigarria izan zela adierazi du.

*Wwoofer*-en profilaz galdetuta, mota askotako pertsonak hartu dituztela azaldu du Blancok: "Oinarrria baserriarekiko eta jarduera ekologikoarekiko interes handia izan ohi da. Askotan, haien formakuntza eta lanbidea oso urrun dago baserrietik, edo ez dute inoiz mundu honekin harremanik izan. Hala ere, denen artean ohikoa da oinarrira bueltatu gura izatea, jende askok bilatzen du."

## Euskara, helburu

Pikunietatik diotenez, badira, ekologikoaz gain, euskaragatik aukeratzeko dituztenak ere: "Asko euskara landu nahi dutelako etortzen dira. Pertsona horientzat helburu oso garrantzitsua izaten da. Guk, helburu horretan laguntzeko, gure egunerokoa partekatzen dugu haiekin, lanak, aisialdia... Eginez ikasten da, eta Pikunieta baserrian, hain zuzen, hori eskaintzen dugu".



Antzuolako Alardeko kideak Jaizkibel konpainiarekin. ANTZUOLAKO ALARDEA

## Antzuolatik ere, babes sendoa Jaizkibel konpainiako kideei

Jaizkibel konpainiari babesa adierazteko asmotan, Hondarribian izan ziren antzuolarrak pasa den domekan

## Jone Olabarria ANTZUOLA

Antzuolako Alardeko eta Udako kideak Hondarribian izan ziren pasa den domekan. Bertan, goizeko desfilea ikusi eta Jaizkibel konpainiari babesa erakutsi zieten. "Herritar guztien ondare kulturala da eta jaiak integratzailea behar du", azaldu dute ordezkariak.

## Jai giroa nagusi

Domekan Hondarribian bizitakoaz galdetuta, "jai giroa" nagusi izan zela kontatu du Lander Domingezek, Antzuolako Maiuraren Alardeko buruzagiak.

"Oso ondo joan zen dena. Zorionez, aurten, nahiko lasaia izan da eta jende gehiago izan da Jaizkibel konpainiari babesa ematen".

## Bidea egiteko

Aurtengoa "aurrerapauso bat" izan dela esan dute, baina oraindik "lan handia" dagoela egiteko. Hala, tradizioak moldatu beharra aldarrikatu dute: "Halako ospakizunak uanean uneko emakumeek eta gizonek momentuko balioen arabera bilakatu eta aberasten dituzte. Horrela lortzen dute mendez mende irautea".

## Haur eta helduentzat, eskulan tailerretan trebatzeko aukera

Edurne Uribesalgoren gidaritzapean, norberak landu nahi duen diziplinan aritzeko aukera izango da

## Jone Olabarria ANTZUOLA

Udalak antolatuta, eskulan tailerretan aritzeko aukera izango dute antzuolarrak aurtengo ikasturtean.

Umeen kasuan lehen mailatik gora, eguaztenetan 16:45etik 17:45ak arte izango dute hitzordua eta bi txandatan banatuko dute tailerra: urriaren 3tik otsailaren 9ra eta otsailaren 16tik ekainaren 18ra. Tailerrak 12 euroko prezioa izango du hileko eta, gehienez, bederatzi ume onartuko dira taldeko. Kopurua gaintuz gero, zozketa egingo da.

Helduei dagokienez, eguaztenetan 17:00etatik 18:45era izango da tailerra. Eguenetan, aldiz, 14:45etik 16:30era eta 18.00etatik 19:45era. Nagusien kasuan, hileko kuota 24 euro izango da.

Tailerra Edurne Uribesalgok emango du eta norberak nahi duen lana egiteko aukera egongo da: koadroak margotu, gauzak zaharberritu, egurra margotu, objektuak itxuraz aldatu.

Izena emateko azken eguna irailaren 27a izango da eta udalletean bertan egin daiteke, izen-emate orria beteta.

# Udana aldetik hasiko dira zubiak birgaitzen

Asteleheneetik itxita egongo da mendate azpitik Olakuako lehen semaforo bitarteko errepide zatia, lau hilabetez. Olabarrietako auzotarrendako ordezkari bideak egokituko dituzte, baina gainerako ibilgailuek Bergararik joan beharko dute Udanz bestaldera

## Oihana Elortza OÑATI

Astelehenean, irailak 16, dira hastekoak Ugarkalde paretik Udana hasiera bitarteko zubien konpontze lana, eta horrek esan gura du errepide tarte hori itxita egongo dela lanak egin bitartean; lau hilabetez.

## Auzotarrendako baimenak

Errepide tarte horretan dago Olabarrieta auzoa, esaterako, eta bertako auzotarrek eta hor dauden lantegietako langileek bestelako bideak erabili beharko dituzte tarte horretan. "Auzo barrutik bideratuko da zirkulazioa, eta, horretarako, semaforo batzuk jarriko dituzte. Dena dela, Udana mendatean egunerokoan dabilen zirkulazio guttia ezingo da auzotik pasa; kamioi handiak, esaterako. Horiek beste errepide batzuk erabili beharko dituzte tarte horretan. Obrek irauten duten bitartean auzo barrutik ahalik eta ibilgailu gutxien pasatzea izango litzateke egokiena, eta horretan ahaleginduko gara", azaldu du alkateak, Izaro Elorzak. Eguneroko Legazpi aldera lanera joaten direnei, berriz, Bergarako bidea erabiltzeko dei egiten die Udalak. Berdin mendatearen bestaldetik Oñatira joan behar dutenei ere.

Auzotarrei, hango enpresetako langileei eta kalean bizi arren Olabarrietan duten baserrira sarri joaten diren herritarrei baimena emango diete ibilgailuekin auzotik pasatzeko. Baimen horiek lortzeko, eskuorri bat bete beharko dute. Herritarren Arreta Zerbitzura joanda eska dezakete, edo baita postaz mezua bidalita ere, helbide honetara: [haz@onati.eus](mailto:haz@onati.eus).

## Udana aldetik hasi

Udana azpitik Olakuako lehen semaforora bitartean lau aldiz zeharkatzen du errepidea Olaran errekak, eta lau zubi horiek



Olaran ibaiak zeharkatzen duen zubietako bat. O.E.

## BI FASETAN EGINGO DITUZTE LANAK ETA UDANA ALDERA DAUDEN ZUBIETATIK HASIKO DITUZTE

indartu, egonkortu, behar dituzte. Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo ditu lanak, eta, alkateak azaldu duenez, bi fasetan egingo dituzte: "Udana aldetik hasiko dira eta bi zubiaren konpontze lanak sartuko dira lehenengo fasean. Pare bat hilabete beharko dituzte lan horiek egiteko eta beste pare bat, gutxi gorabehera, Olakua aldera dauden beste biak indartzeko".

## Autobusak

Inguru horretan bizi diren umeen eskola garraioan ere izango du eragina obrak. Autobus handi batek garraiatzen ditu hiru ikastetxeetara doazen ikasleak, eta lehen fasean zerbitzuak berdina izaten jarraituko du, autobusak auzo sarreran ematen du-eta buelta. "Bigarren faserako aukerak aztertzen ari gara orain ikastetxeko ordezkariekin bate-

ra", azaldu du alkateak. Aukeretak bat izan daiteke, akaso, autobus handia erabili beharrean txikiak erabiltzea.

Garraio publikoan ere eragin zuzena dute lan hauek. Zumarraga-Oñati-Arrasate autobus linea moztu eta Oñati eta Arrasate artean soilik beteko zela iragarri zuen Foru Aldundiak. Baina Oñatiko eta Legazpiko udalak ez daude horrekin ados eta halaxe jakinarazi zieten Aldundiko ordezkariari. Diputazioak jakin arazi du, bestalde, Arrasate eta Zumarraga arteko linea berria jarriko dutela asteleheneetik. Mugikortasun sailekoekin hitz egiteko saiakerak egiten jarraituko dute udal ordezkariak.

## Lau zubi

Lau zubi birgaituko dituzte. Horietako azkena da Olakua amaieran eta Ugarkalde hasieran dagoena. Lan horiek aprobetxatuz, herritik Olabarrieta aldera doan bidegorria zuzenean egiteko aukera ikusi du Udalak. Foru Aldundiari helarazi dio nahi hori, baina ez du oraindik erantzunik jaso. Egingo dituzten lanetan, baina, ez da hori egitea jasotzen.

# "Etxean moduan jardunez gero, txapela janzteko moduan gaude"

## MIGEL ARREGI ARTZAINA

Euskal Herriko artzain-txakur txapelketan lehiatuko da

## O.E. OÑATI

Kataluniako, Gipuzkoako eta Euskal Herriko artzain-txakur txapelketak irabazi zituen Arantzazuko Azpilleta baserriko Migel Arregik, bata bestearen atzetik, 1971n. Erretiroa hartu zuenean hasi zen berriz txapelketetan parte hartzen. *Argi* txakurra eta bera bigarren sailkatu ziren Legazpin, Gipuzkoako txapelketan, eta bihar arratsaldean Euskal Herrikoan lehiatuko dira, Atxondon.

## Prest zaudete biok Euskal Herriko txapelketarako?

Bai. Maila handia egongo da eta ikusi egin behar zer-nolako lana egiten dugun, baina, etxean moduan jardunez gero, txapela janzteko moduan gaude.

## Prestaketa berezirik egin duzue?

Ez, ez. Eguneko ibiltzen gara elkarrekin eta Gipuzkoako txapelketatik hona ere horrela ibili gara, eguneroko lanak eginez.

## Nolakoa da *Argi*?

5 urte dituen gorbeia arrazako txakurra da. Lan handia egin dugu biok batera eta ondo ulertzen dugu elkar, baina Atxondon zer gertatuko den jakin ez. Etxe inguruan eta ezagutzen dituen parajeetan oso ondo ibiltzen da,



Migel Arregi oñatiarra. M.A.

baina txapelketetan aldatu egiten dira batzuetan, jendea dagoelako, tokia ere beste bat delako... eta aldatuz gero zaila izaten da berezko egoerara bueltatzea.

## Zer lan egin behar duzue?

Egin beharreko ariketak aurreko txapelketetako berdina dira. Aldatzen den bakarra distantzia da, luzeagoa izango da.

## Oñatikoan parte hartuko duzue?

Auskalo, maila altua egongo da bihar eta... Birritan hartu dut parte Oñatikoan eta bietan huts beragatik deskalifikatu ninduten.

# Plater tradizionalak eskainiko dituzte Txopekua berrituan

Lehenengo jatetxearen zerbitzu bera ematen saiatuko direla diote nagusi berriek, eskaintza zabaldua

## O.E. OÑATI

Astelehenean, Arantzazuko Amaren egunean, zabaldu zuten Txopekua berritua. 2012an itxi zuten, 85 urteko ibilbidea egin ostean, eta orduko ilusio bera-ekin eta eskaintza zabalagoarekin zabaldu ditu ateak berriz.

Itxita egon den tartean, eraberritu egin dute erabat eraikina. Lehenengo itxura bera du kanpotik, baina barrua hustu egin dute eta jangela, esaterako, berritua da erabat. "Jateko tokia aldatu dugun arren, platerak betikoak izango dira aurreran-

tzean ere; plater tradizionalak eskainiko ditugu, etxeok", dio Jesus Arsuagak. Mari Jose Urzelai emaztearekin batera zabaldu du Txopekua berritua. Lehenengo nagusiaren, Kandido Bikuñaren, lobak dira eta orduko Txopekuak eskaintzen zuen zerbitzua ematen saiatuko direla diote. Eraikinaren inguruan ere egin dituzte lanak, eta, esaterako, terraza bat eta ziburuak dituen parke txiki bat jarri dituzte. Eguneko menuak ez ezik, pintxoak eta errazioak ere eskainiko dituzte.





Ume dantzariak plazako frontoian. EKAITZ FILARMENDI

# Dantzariak beteko dira herriko kaleak domekan

Oñatz dantza taldeak gonbidatuta, beste hamabi herritako ume dantzariak eta txistulariak etorriko dira etzi egingo den Haurren Eguna. Iker Isasti da aurtengo alkate txikia eta eguerdian egingo die agurra Foruen plazan

## Oihana Elortza OÑATI

Beste herri batzuetako dantza taldeak gonbidatuta ospatu ohi izan du Oñatz dantza taldeak Haurren Eguna, eta aurten ere horrela izango da. Herrikoaz gain, beste hamabi dantza taldeetako umeak ibiliko dira dantzan kalez kale domeka goizean, eta alarderako elkartuko dira arratsaldean, Foruen plazan.

## Beasain, lehenengo aldiz

Lizarrako, Antzuolako, Legazpiko, Arrasateko, Portugaleteko, Zumarragako, Sorluzeako, Gernikako, Aretxabaletako, Sestao eta Beasaingo dantza taldeak etorriko dira Oñatira domekan. Azken taldea, Beasaingoa, gainera, lehen aldiz izango da Oñatiko Haurren Egunean.

Umeekin batera arduradunak eta txistulariak ere etorriko dira. 355 ume eta 80 nagusi izango dira kanpotik etorriko direnak. Horiei, herrikoak gehitu behar zaizkie, beste 295 ume eta 68 nagusi. Guztira, beraz, 660

## Herriaren erantzun zabala

Oñatz dantza taldekoak pozik daude, beste behin, dantza taldeko gurasoek eta herriko elkarte gastronomiko eta kulturalak zelan erantzun duten ikusita. Azaldu dute ume guztiek etxeetan bazkalduko dutela eta arduradunek eta txistulariek, betiko moduan, herriko elkarte gastronomikoetan. Urterik urte txandakatu joaten diren herriko bost soziedadetan bazkalduko dute nagusiek. 800 bat lagunek hartuko dute parte Haurren Egunean.

ume dantzari eta beste 148 heldu, arduradun eta txistulari.

## Alkate txikiaren agurra

Ohikoa den moduan, Aita Madina txistulari taldeko kideen doinuekin hasiko dute eguna eta 10:00etan kanpoko taldeei harrera egingo diete Oñatz dantza taldekoek Otadui zuhaiztian. Iker Isasti izango da aurtengo alkate txikia eta 11:45ean egin die hark agurra, Foruen plazan. Taldea herriko kaleetan zehar ibiliko dira eta 17:00etan elkartuko dira berriz, alarderako. "Lau bloketan izango da alardea. Lizarrakoak hasiko dira larrain dantzarekin eta azken blokean arku dantza izango da herriko dantzariak egingo duten lehena", azaldu du Oñatz dantza taldeko Arkaitz Bengoak.

Datorren urtean, 50. Haurren Eguna ospatuko dute eta aurtengoa bukatu ostean hasiko dira prestatzen, berezia izatea gura dute eta Oñatz dantza taldekoek.

## Aitor Gartzia entrenatuko ditu eskubaloiko mutil nagusiak

Zapatuan jokatuko duten Mikel Deunaren txapelketa izango da zuzenduko duen lehen norgehiagoka

### O.E. OÑATI

Aitor Gartzia Burcio oñatiarra izango da Fagor Industrial-Aloña Mendi eskubaloiko taldeko entrenatzaile berria. Zapatuan egingo du estreinaldia, Zubikoa kiroldegian jokatuko den Mikel Deuna txapelketan.

### Neskak eta mutilak

Senior mailako talde biek jokatuko dute txapelketa: nesken taldeak Gasteizko Eharialde taldearen kontra jokatuko du, 16:00etan, eta mutilenak, berriz, Zarautzen kontra, 18:00etan.

"Arerio zuzena izan genuen joan den denboraldian Zarautz. Euren kontra jokatuko genuen lehen mailara igotzeko fasea. Partidu gogorra izango da", adierazi du eskubaloiko zuzendaritzako kide Karlos Ugartek.

Denboraldi berria, berriz, irailaren 22an hasiko du Fagor Industrial-Aloña Mendik. Aurreko denboraldiko jokalaririk berak egongo dira taldean; entrenatzailea izango da aldatuko den bakarra. Ligako lehen partidua etxean jokatuko dute, Zubikoan, Basauriren kontra.

## Senior mailako taldeak jokatuko du areto futboleko txapelketan

Gipuzkoa mailako txapelketa izango da eta maila bereko hiru taldek jokatuko dute Zubikoan domekan

### O.E. OÑATI

Gipuzkoako hirugarren mailako taldeen areto futbol txapelketa antolatu du Aloña Mendik domekarako. Mikel Deuna txapelketa izango da eta Zubikoa kiroldegian jokatuko da, 10:00etan.

### Sei urteren ondoren

Maila bereko hiru taldek jokatuko dute: Ingou Aloñak, Tolosalak eta Ttakunek. Hirurak dira senior mailakoak, baita Oñatiko taldea ere. "Lehen, egon zen maila horretako taldea, baina desagertu egin zen, eta ka-

dete mailako eta gazte mailako taldeak egon diren arren, nagusien mailako areto futbol txapelketa ez da egon Aloña Mendin azken sei urteetan. Baina taldea berriz egitea lortu dugu eta aurtengo denboraldian jokatuko dugu. Gipuzkoa mailan lehiatuko gara eta domekako txapelketan parte hartuko duten beste bi taldeak, esaterako, gure aurkarietako bi izango dira", dio Santi Bernalek.

Domekako txapelketa kanpotik etorriko diren bi taldeek elkarren kontra jokatuz hasiko dute.

## Auzo bazkariak dituzte San Martinen eta Zañartun

Auzoko jaiak dituzte asteburu honetan San Martinen eta Zañartun, eta bietan auzo bazkaria egongo da: zapatuan lehenengoan eta domekan bigarrenetan. San Martin auzoko jaiak, baina, gaur, egubakoitza, hasiko dira, txorimaloekin. Gauean, talde hauek joko dute: Biznaga, Bullet Proff Lovers eta Tilikum. Bihar goizean, umeendako jolasak egongo dira.

## OHARRAK

### Yoga ikastaroak

Datozen bi asteetan, hasiberriendako yoga ikastaroak izango dira. Izen-ematea: [yogaonati@gmail.com](mailto:yogaonati@gmail.com) eta 610 95 3 7 94.

### Gimnasiako eskolak

Fitness eta gimnasia zerbitzuetako ikastaroak datorren astelehenean, 16an, hasiko dituzte Zubikoa kiroldegian.

# Asteburuan hasiko dute zinema eskaintza

Egubakoitzean, zapatuan, domekan eta astelehenean, 'Érase una vez en Hollywood' filma eskainiko dute; eta hurrengo aste bukaeran, '6.000 metroan ere'. Jaien ostean hasiko dira haurren emanaldiekin eta zineklubeko eguenetako emanaldiekin

## Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI

Udako oporraldiaren ostean, badator bueltan kultura etxeko zinema eskaintza. Asteburuan eskainiko dute lehenengo filma: hain zuzen, *Érase una vez en Hollywood*.

Quentin Tarantino zuzendariren filmeko protagonista nagusiak Leonardo DiCaprio, Brad Pitt eta Margot Robbie dira. 60ko hamarkadako Hollywoodera bidaiatuko du ikusleak; izan ere, garai hartako aktore baten gorabeherak kontatzen ditu istorioak. 165 minutu irauten du filmak.

## '6.000 metroan ere', doan

Irailaren 20tik 23rako asteburua berezia izango da. Izan ere, Felipe Uriarte zuzendariaren *6.000 metroan ere* dokumentala eskainiko dute. Bederatzi xerpa gaztek eta hamabi euskal gaztek 2018ko urrian bizitakoak jasotzen ditu dokumentalak. Hamabi gazte horien artean lau oñatiar daude.

"Doako emanaldiak izango dira, eta solasaldia ere izango dugu zuzendariarekin", azaldu du Kultura teknikariak.

## Besteak, jaien ostean

Iraileko bi emanaldi horien ondoren, jaiak izango diren asteburuetan ez da zinema eskain-



*Érase una vez en Hollywood*-eko protagonistak. ECARTELERA

## NAGUSIEN EMANALDIEN PREZIOA 5 EURO IZANGO DA ETA UMEENA, 4 EURO

tzarik egongo. Jaien ostean hasiko dira berriro ere eskaintzarekin. Asmoa da zinema komertziala, haurren eskaintza eta zineklubeko saioak San Migel eta Errosarixo jaien ostean hastea.

Aitor Arregi oñatiarrak zinemaldian aurkeztuko duen *La trinchera infinita* filma epe laburrean Oñatin ikusteko aukerarik egongo den galdetuta, Kultura Sailak azaldu du oraindik ez dakiela.

## Ordutegiak eta prezioa

Zinema eskaintzaren ordutegia izango da: egubakoitzetan eta zapatuetan, 22:30ean; domeketan, 19:30ean eta 22:30ean; eta astelehenean, 19:30ean. Nagusiek 5 euro ordainduko dute eta umeek eta ikuslearen egunean, 4 euro.

## Irazan-ek antzerki eskola eskainiko du urritik aurrera

Haurren, nerabeen eta nagusien taldeak egongo dira; izen-ematea zabalik da dagoeneko interesa dutenentzat

## A.E. OÑATI

Irazan Antzerki Guneak antzerki eskola jarriko du martxan urritik aurrera. Antzerki zale-tasuna sustatzea izango da helburu nagusia.

## Hiru taldetan banatuta

Hiru talde egingo dituzte, eta dagoeneko izen-ematea zabalik dago. Taldeak izango dira: haurrak -LH1-LH5-, martitzenetan eta egunetan, 17:00etatik 18:30era; nerabeak -LH6-DBH4-, martitzenetan eta egunetan, 18:30etik 20:00etara; eta, nagusiak, -16 urtetik gorakoak- hilean aste bukaera bat izango da. Azken horien izen-ematea urrian zabalduko dute.

Haurren eta nerabeen eskole-tako prezioa 30 euro izango da, hileko. Antzerki eskolan izena emateko, Irazanekin harremanetan jarri beharko da; sare



Irazanekoak, Galapote-an. GOIENA

sozialen bitartez, [irazantaldea@gmail.com](mailto:irazantaldea@gmail.com) helbidean edo 659 03 10 36 telefono zenbakian.

"Mundua beste begirada batekin" ikusi gura duen orori eta "sormenaren bitartez hori erakutsi" nahi duenari zuzendutako eskola izango da.

## Plazako dantza tradizionalak ikasteko aukera egongo da

Aurten ere, Musika Eskolak plazako dantza tradizionalen ikastaroa eskainiko du. Bi talde egingo dituzte: hutsetik hasiko den hastapeneko talde berria; eta jarraipeneko talde beteteranoa.

Ikastaro hauen helburua da gaur egun Euskal Herriko plazetan egin ohi diren dantza molde guztiak ezagutu eta prak-

tikatzea. Patxi Monterok jardungo du irakasle.

Urritik ekainera bitartean izango dira eskolak -urriaren 2an hasita-, eguaztenetan. Izena emateko edo informazio gehiagorako, Musika Eskolarekin harremanetan jarri, irailaren 26ra arte: 943 783 174 zenbakian edo [idadkaritza@jazpiazumusikaeskola.com](mailto:idadkaritza@jazpiazumusikaeskola.com) helbidean. Lotuan, soltean, jauziak, kotradantzak, sokadantza... ikasteko aukera egongo da.

## 'Handia' izan zen film ikusiena

Kultura Sailak emandako datuen arabera, 2018an arrakasta handiena izan zuen filma Aitor Arregi oñatiarraren *Handia* izan zen. Bi aldiz eskaini zuten filma: 2017an 792 lagunek ikusi zuten, eta 2018an 579 ikuslek.

Umeen kasuan, *Ferdinand* filmak piztu zuen interesa umeengan. Iazko denboraldiko film ikusiena izan zen zezena protagonista duen istorioa.



*Handia* filma.

## Aire libreko pintura lehiaketa egingo dute bihar, Arantzazun

Arantzazuko Adiskideek eta Arantzazu Gaur fundazioak antolatuta, Xabier Alvarez de Eulate aintzat hartzen duen pintura lehiaketa egingo dute bihar, zapatua. Zigilatzea Gandiaga Topagunean egingo dute, 10:00etatik 12:00etara. Lanak 16:00etatik 17:00etara entregatu behar dira. 1.500 euro jasoko ditu irabazleak. Edonork parte har dezake.

## Swing estiloa ezagutzeko ikastaroa egingo dute domekan

Hasiberriei zuzendutako swing klasea eskainiko du Oñatiko swing elkarteak, Eltzian, domekan. Swing dantza estiloa ezagutzeko aukera paregabea izango da; eta, klasea doakoa izango da. 17:00etan hasiko dute hasiberriendako ikastaroa. Interesa duenak aurrez eman beharko du izena 669 663 184 telefono zenbakian.



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

### ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Boente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Eigeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 76 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

### BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### JULEN MURUAMENDIARAZ KIROPRAKTIKA ZENTROA

Bergara / Ibargarai 41 / 688 80 16 72

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)


Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.



# 15 UDAKO ARGAZKIEN .GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

Irailaren 23ra arte bidal  
ditzakezu zure argazkiak!



VIRPAZAR (MONTENEGRO) | Argazkia: Ander Orbegozo Igartua



ZANNSE SCHANS (HERBEHEREAK) | Argazkia: Mikel Fernandez de Arroiabe



LA TORRASSA (LLEIDA) | Argazkia: Gorka Arbaolaza



FILIPINAK | Argazkia: Alaine Roa Perez




GALIZIA (ILUNABARRA) | Argazkia: Uxue Otxoa Alberdi



PORTUGALGO ALENTEJOKO KOSTA | Argazkia: Jokin Urteaga



MANHATTAN, NYC | Argazkia: Nerea Zubizarreta



AZOREAK, PICO MENDIA | Argazkia: Ion Lizarazu

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**EROSKI**  
ARRASATE

**GURE AMETSA**  
Restaurante · Jatexea

**ARRASATE BIDAIAK**

BERGARA  
**EREIN  
DA  
JAN**






LAREDOKO PROTAGONISTAK | Argazkia: Javier Vicente Sanchez



BAÑARES (ERRIOXA) | Argazkia: Olatz Laborda



TRE CIME DI LAVAREDO, DOLOMITAK | Argazkia: Esti Unanue



IZARO, IZARON | Argazkia: Maria Gardoki



TALLINGO UDALETXEAREN PLAZA FLASKO ZAHAR BATEAN | Argazkia: Javier Zumelaga



BELMONTEKO HAIZE ERROTAK (CUENCA) | Argazkia: Itziar Gardoki



MEDA MENDIA, GALIZIA | Argazkia: Laura Aldalur Olazabal

## Sariak

**LEHENENGO SARIA:** Xiaomi Redmi 6A smartphonea, Eroski Arrasateri esker.

**BIGARREN SARIA:** Bi pertsonarendako bazkaria edo afaria Gure Ametsa jatetxean.

**HIRUGARREN SARIA:** Zumaiaiko Zelai Talasoterapian bi pertsonarendako zirkuitu termala eta Zelai menua, Arrasate bidaiei esker.

**PUBLIKOAREN SARIA:** Bergarako Ereindajan-en eskutik bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra.

Oharra: Publikoaren saria bozkatzeko epea irailaren 27tik urriak 2ra zabalduko da 'Goiena.eus'-en.

Egin klik eta bidali **poltsikoko telefonoarekin, argazki kamerarekin edo tabletarekin ateratako udako argazkiak!**

Posta elektronikoz ([argazkiak@goiena.eus](mailto:argazkiak@goiena.eus)) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu argazkiak!



Argazki guztiak hemen:  
<https://labur.eus/15>





Bergarak eta lurretakok joan den astean Agorrosinen jokaturako Bergara Hiria torneoko momentu bat; etxean hasiko dute liga mahoneroek. IMANOL SORIANO

# Hastera doaz liga txapelketak

**FUTBOLA** Ohorezko erregional mailan asteburuan hasiko dute liga. UDAk eta Bergarak etxean hasiko dute txapelketa eta Mondrak, hirugarren mailatik jaitsi berri den Ordiziaren zelaietan. GOIENA hiru taldeetako entrenatzaileekin izan da

**Xabier Urzelai** ARRASATE  
Amaitu dira uda sasoiko lan nekagarri eta lagunarteko torneok. Hala, liga hasieraren atarian, GOIENA ohorezko erregional mailako hiru entrenatzaileekin izan da.

Bergarako entrenatzaile Jose Javier Barkeroren taldeak etxean, Agorrosinen, jokatu du bihar, zapatua (17:00); Añorga izango dute aurrean: "Ondo hastea garrantzitsua da, eta etxean hastea plus bat da guretako. Añorgak

talde polita dauka, jokalaririk onak ditu, gazteak, eta talde dinamikoa da". Hala, Barkerok ez du aurreratu gura Bergarak non egon behar duen: "Anaitasuna, Eibar Urko, Hernani, Mondra... goialdean egoteko moduko tal-

deak dira. Guk lasai egon behar dugu, puntu bakoitzagatik borrokatu eta joango gara ikusten zein den gure lekua".

UDAK ere etxean jokatu du, domekan (Ibarra, 16:30), eta kategoriako oilarretako bat izango du aurrean, Eibar Urko: "Gurago dugu orain jokatu euren kontra; izan ere, aurrerago, erritmo handiagoa izango dute eta orduan zailagoa izango da irabaztea. Gipuzkoako jokalaririk puntakoenekin osatutako taldea da, lagunduko digu ikusten non gauden", dio Mikel Larburuk.

Mondrako aulkian, berriz, Jorge Davilak jarraipena eman dio proiektuari; Ordizian jokatu dute, zapatuan (16:00): "Ordizia hirugarren mailatik jaitsi berri da eta lagunduko digu ikusten orain momentuan non gauden. Ahalik eta goren egoten saiatu behar dugu".



**JOSE JAVIER BARKERO**  
BERGARAKO ENTRENATZ.

"Sentsazio ona izan dugu denboraldi-aurrean, talde lehiakorra dugu. Zelai gutxi daude Agorrosin modukoak; horrek abantaila izan behar du guretako. Etxean hastea ona da; joango gara ikusten zein izan behar den gure lekua. Puntu bakoitza borrokatu beharko dugu".



**MIKEL LARBURU** UDA-KO ENTRENATZAILEA

"Azken bi urteotan belaunaldi aldaketa izan da Aretxabaletan, eta, epe motzeko emaitzak baino gehiago, etorkizuneko taldea eraikitzen joan behar dugu; taldeak orain ez du aparteko presiorik izan behar. Gustura nago udan egindako lanarekin; ea zer moduz gauden".



**JORGE DAVILA** MONDRAKO ENTRENATZAILEA

"Aste positiboak izan dira eta ilusio handia dugu, liga hasteko gogotsu gaude; besteak beste, ligan gure lekua zein den ikusi gura dugu. Iaz, azken jardunaldietan lortu genuen laugarren postura iristea; ea aurten hasieratik aurrealdeko postuetan egoteko kapaz garen".

## Nesketan, batuketa

Emakumezkoek irailaren 21ean hasiko dute liga. Eta hor, albiste da Leintz Arizmendik eta Aloña Mendik indarrak batuko dituztela senior mailan bi talde ateratzeko —ohorezko mailan eta gorengo preferentean—. Bergara da ibarreko beste ordezkaria.

## Antzuola eta Aloña Mendi ere abian

Gorengo mailan ere liga hasiko dute asteburuan. Eta hor daude ibarreko beste bi herri ordezkatzeko dituzten Antzuola eta Aloña Mendi, eta baita Mondrako eta UDAko bigarren taldeak ere.

Aloña Mendik Soraluzeren kontra jokatu du domekan Azkoagainen (16:30) eta Beasainen jokatu du zapatuan Antzuolak, Loinazen (17:00).



Joan den astean Elorrioren kontra jokaturako partiduko irudia. IMANOL SORIANO



# Aramaioko rallysprinta adinez nagusi da jada

**AUTOMOBILISMOA** Zapatuan egingo duten lasterketaren hemezortzigarren edizioak 45 pilotu batuko ditu irteera puntuan. Iaz bezala, Andramariko bidegurutzean hasiko dute lasterketa, eta pilotuek Gantzagarako bidea hartuko dute handik

**Xabier Urzelai** ARAMAIO

Azpikoracing taldeko lagunek dena dute gertu bihar, zapatua, 15:00etan hasita, Aramaioko rallysprintaren 18. edizioari ekiteko: "Parte-hartze kopurua polita da, eta, gainera, Debagoieneko pilotu mordoa izango dira irteera puntuan. Bestalde, urtero moduan, aurrealdeko postuetan borrokan dabiltzan Aingeru Castoren (78 puntu) eta Enrique Barrenetxea-Arandoren (73 puntu) artean indarrak

pare parean daude eta emozioa egongo da hor", dio Inhar Amenabarrek.

Antolatzaileak, baina, jabetu dira orokorrean rallysprintetan beharakada izan dela: "Ez dakit, bada, jendeak rallysprintak beharrean rallyak gurago dituelako edo, baina, Gabiriako lasterketa erreferente den moduan, gainontzeko rallysprintetan beste pilotu gutxiago izan dira", dio Inhar Amenabarrek.

Aramaioko lasterketa, baina, osasuntsu iritsi da heldutasunera, eta, iaz bezala, aurten ere kontrako norabidean egingo dute lasterketa, Andramariko bidegurutzean gora: "Lasterketa erabat ezberdina da. Behetik gora, Etxaguengo bidegurutze-raino auto indartsuek abantaila izango dute, baina, ondoren, malda behera gogorak datoz, eta ezkerretara hartu beharreko zenbait bihurgune txar. Hor, arriskatzea erabakitzen duten pilotuek segundo baliagarriak eskuratu ditzakete".

**Aldapa behera, 140 km/h**

Lasterketa berdin pasako da Arriolako eta Arexolako auzotatik –kontrako noranzkoan–, eta, hain zuzen, Arexolatik hasi eta Zubitzazpiko aldapa-gainalderaino autoek abiadura handia hartuko dute: "Zubitzazpi aurreko zuzen luzean batek baino gehiagok autoa 140 kilometro ordura jarriko du, baina hor atzeko gurpilak airean jartzen dira, sentsazioa ematen du". Tramuaren azken zatian, Uribarri auzotik pasako dira.

## Debagoieneko pilotuak

### PILOTUAK

Aingeru Castro eta Alaitz Urkiola  
Eneko Uribe eta Asier Rioja  
Eneko Uribe eta Asier Rioja  
Iñigo Errasti eta Xabier Eguren  
Javier Mugarza eta Iker Mugarza  
Jose Ferrereira eta Maialen Lete  
Inhar Amenabar eta Agurtzane Zubieta  
Monika Muñoz eta Naia Lasagabaster  
Asier Robledo eta Raul Perez  
Mikel Beretxinaga eta Oskar Sarasua  
Gorka Urrutia eta Maialen Iarza  
Alex Calzon eta Itxaso Errasti

### AUTOA

BMW M3  
Mitsubishi EVO VI  
Mitsubishi EVO VI  
Clio Sport  
Clio Sport  
Clio Sport  
R5  
Citroen ZX  
BMW 325i  
BMW 325  
BMW 318i  
Saxo VTS



Renault Clio Sport autoa, iaz, Zubitzazpiko maldaren gainaldean. IMANOL SORIANO

## Aretxabaletako martxarekin hasten dira ibarreko hitzorduak

**MENDI BIZIKLETA** Bihar, zapatua, mendi bizikleta zaleak 09:00etan abiatuko dira herriko plazatik

**X.U. ARRASATE**

Irailan eta urrian, Debagoienean hainbat mendi bizikleta martxa egingo dituzte. Aretxabaletako bihar, hilak 14, egingo du UDAK. Bergarako Palmerakuak taldeko lagunek irailaren 22a aukeratu dute eta Mondranbike urriaren 19an izango da.

**Oraingo, hiru martxa**

Aretxabaletan –09:00etan, herriko plazan–, helduendako 40 kilometroko ibilbidea prestatzearekin batera familian egiteko txangoa ere prestatu dute, 10 kilometroko ibilbidearekin –Urkulura igoko dira–. Hala, bihar bertan eman ahal izango da izena –federatuek, 10 euro; ez federatuek, 15 euro–.

Bergaran –irailak 22– aspaldi hasi ziren Trekutz inguruetan bidezidor berriak prestatzen. Bi ibilbide izango dira, eta zailtasun



Bizikleta zalea bidezidorrean. GOIENA

tekniko aldetik ere egongo da non aukeratu. Eta Mondranbike martxarako –urriak 19– ere neurrirako ibilbideak prestatzen dabilta. Bi horietarako ere eman daiteke izena, [KiroIprobak.com](http://KiroIprobak.com) webgunean –informazio osatua [Goiena.eus-en-](http://Goiena.eus-en-).



Alvaro Cuadros, helmugan. GOIENA

## MENDIA Kontzientzian sakontzeko, Oroimen Eguna etzi Besaiden

Domekan egingo dute Besaiden Oroimen Eguna. Ohiko egitarauaren barruan, Aramaioko, Elorrioko eta Besaideko mendi elkarteetako ordezkariak ekimen bateratua egingo dute, ingurumena zaintzeko kontzientzian sakontzeko; bertako monumentua babesteko neurriak hartu gura dituzte. 11:00etan hasiko da ekitaldia eta txosna egongo da.

## ZIKLISMOA Oñatiko 32. Proba egingo dute amateurrek bihar

Lehendakari Txapelketarako puntuagarria den 32. Oñatiko Proba egingo dute bihar, zapatua, Oñatin –10:00etan, Unibertsitate hiribidean–. Oñatikoa egutegiko azken lasterketa izango da, eta bertan erabakiko da txapelketa. Ziklistek 100 kilometro izango dituzte aurretik, eta Udana, Atagoiti eta Aztiriako gainak gainditu beharko dituzte. Helmuga 12:30 aldera izango da.

## PILOTA Emakume Master Cup berrikuntzekin dator

Pilotariek irailaren 30era arte dute Emakume Master Cup txapelketako hirugarren edizioan izena emateko –lau eta erdiko torneoa da–. Aurten, txapelketa bi mailatan jokatu da, pilota mistoekin eta pilota goxoeekin. Eta bigarren multzo honetan hiru azpi-maila egongo dira: hastapena, promozioa eta lehen maila.


# Bertsotan gozatzeko eta gozarazteko asmotan

Oñatiko Santa Ana antzokian bihar, zapatua, 17:00etan abiatuko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa; 'Bertsosarrerak.eus'-en eta leihatilan eros daitezke sarrerak



**AINHOA AGIRREAZALDEGI**  
REKONDO  
ELGETA, 1978

Bergarako bertso eskolan hasi zen elgetarra bertsotan. Gaur egun, Zarautzen bizi da eta Añorgan batzen da bertsotan egiteko lagunekin. Ofizioz, helduen euskara irakaslea da Donostiako Hizkuntza Eskolan.



**ANE ZUAZUBISKAR**  
IÑARRA  
ARRASATE, 1997

Arrasateko bertso eskolan hasi zen 8 urte zituela. Gaur egun, Aretxabaletako Lekaixoka bertso eskolako irakaslea da eta Aramaioko bertso eskolako kidea ere bai. Kazetaria da ofizioz; *Berria* egunkarian eta Euskadi Irratian aritzen da, batez ere.



**MAIDER ARREGI**  
MARKULETA  
OÑATI, 1996

Oñatiko Txinparta bertso eskolan hasi zen bertsotan, eta, oraindik ere, han jarraitzen du. Aurreko ikasturtean, Filosofia ikasketak bukatu zituen, eta aurren, Donostian ari da, Hezkuntza eta Batxilergoko Irakaskuntza graduondokoa egiten.

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE  
48 bertsolari abiatuko dira Gipuzkoako txapelaren bila, eta, oraingoan, emakumezkoak izango dira Debagoiena ordezkatu duten hirurak: Ainhoa Agirrezaldegi elgetarra, Ane Zuazubiskar arrasatearra eta Maider Arregi oñatiarra. Pozik daude eskualdea ordezkatzeko, nahiz eta dioten parte hartzaile kopuru osoa hartuta parekidesuna ez dela horrenbestekoa.

## Arregik, bihar estreinakoa

Elkarren lagun eta bertso-kideak dira askotariko ekimenetan. "Euren artean konplizitatea" dutela diote. Lan ona egiteko indarrez eta gogoz datozela diote, baina euren buruari presiorik jarri gura barik. Hirurak bat datoz gauza batean: "Ahalik eta ondoen kantatu eta saioan goatzera goaz".

Arregi izango da taularen gainera igotzen lehena, bihar, zapatua, txapelketa zabalduko duen saioan. Alboan izango ditu: Felix Zubia, Aratz Igarzabal, Haritz Mujika, Andoni Mujika eta Amaia Iturriotz; oñatiarraren esanetan, aspaldiko lagun eta bertso-kideak horiek ere. Zuazubiskar eta Agirrezaldegi, berriz, hurrengo zapatuan, Ordizian, izango dira elkarrekin.

## Hamasei saio, guztira

Bihar, zapatua, Oñatiko Santa Ana antzokian, 17:00etan, izango da estreinakoa eta azkena, finala, berriz, Donostian Illunben, abenduaren 14an; Arrasateraino ere helduko da txapelketa, azaroaren 17an, finalaurrekoetako bat jokatzeko.

*Bertsosarrerak.eus* atarian daude saio guztietarako sarrerak eskuragarri.

## BERTSOGINTZAREN EGOERA DEBAGOIENEAN

### AINHOA AGIRREAZALDEGI

"Egia esan, urte asko dira bailaratik kanpo bizi naizela eta ez dut bertako bertso-giroa hurbiletik jarraitzen. Isilpeko lan handia egin zuten garai batean batzuek eta hala egiten jarraitzen dute gaur egun belaunaldi berriek. Bertso eskolak aurrera eramaten eta herrietan zaleak elikatzen ikusten ditut gazteak. Lan hori da fruituak ematen dituen, eta lanean ari den jende hori zaindu behar dugu".

### ANE ZUAZUBISKAR

"Ez dakit gai naizen iritzi objektiboa emateko bailarako bertsogintzaren osasunaren gainean. Gertutik, Arrasateko, Bergarako eta Aretxabaletako bertso eskolak ezagutzen ditut, eta, horiei begiratuta, esango nuke bertsoaren bueltan haurra nintzenez baino jende gehiago ari dela. Heldu gehiago, haur gehiago, emakume gehiago... Arrasatek sekulako poza ematen dit, eskolan hasi nintzenez baino talde gehiago daude egun.

### MAIDER ARREGI

"Kanpotik begiratuta, badirudi Debagoiena ez dela eskualde bereziki bertsozalea; dena dela, nik uste dut hemen ere bertsolaritza indartsu dagoela: bertso eskolak daude ia herri guztietan, hezkuntza arautuan bertsolaritza irakasten da, saioak antolatzen dira han eta hemen... Nik Oñatiko kasua ezagutzen dut gehien, eta harrigarria da zenbat saio antolatzen diren herrian bertso eskolaren bidez".

## Sinfonia Kooperatiboaren azken plater nagusia bihar dastagarri

Buesa Arenan eskainiko dute, 18:00etan, 'Humanity at music' ikuskizuna; egun osoko egitaraua prestatu dute

**A. Aranburuzabala** ARRASATE  
Ikuskizun kultural-kooperatiboak 1.000 lagun jarriko ditu Gasteizko Buesa Arenako taularen gainean bihar, zapatua, Fernando Velazquez konpositoreak eta Jon Sarasua bertsolariak elka-

rrekin osatutako soinu banda eskaintzeko. Ez dira nolana hiko artistak: Euskadiko Orkestra; puntako zortzi bertsolari; Kukai dantza taldea; 450 ahotseko abesbatza; Pirritx, Porrotx eta Marimotots...

### "Galdu ezinezko aukera"

Hilabetetan prestatzen jardun duten ikuskizunak "Mondragon Taldearen balioak" adierazten eta batzen dituela dio Taldeko presidente Iñigo Uzinek, eta horren erakusle dela parte hartu dutenen profila eta kopurua.

Velazquez konpositoreak azaldu du askotariko diziplinak batzen dituen ikuskizuna "ikaragarria, dibertigarria, eta guztiontzako gozagarria" dela, eta biharkoa "galdu ezinezko aukera" dela gaineratu.



Fernando Velazquez konpositorea eta Jon Sarasua bertsolaria. MONDRAGON



**BERTSOLARIEN ETA BERTSOZALEEN PROFILA GAUR EGUN**

"Bertsolaritza ez da lehen bezain homogenea. Egund, hainbat dira jendea bertsolaritzara hurbiltzen duten ateak. Hizkuntzaz, jatorriz, lagun giroz, kultur ikuspegiz, ideologiaz... abiapuntu askotariko zaleak daude eta bertso saioak ere gero eta dibertsifikatuagoak dira. Bertsolaritzaz buruan dugun irudia askoz klasikoagoa da errealitatea bera baino. Etorkizuna aberastasun horretan egongo da".

**SARE SOZIALAK, LAGUNGARRI ALA KALTEKO?**

"Uste dut gainzamatuta gauzkatela. Gaztetxoek eta sare sozialen erabileraz hitz egiten da sarri, baina helduok ere ez gaude salbu. Nik ez ditut asko jarraitzen, baina bai denbora pixka bat *galtzeko* adina. Informatzeko erabiltzen ditut, baina ez nago oso gustura informatzeko modu berri honekin: esklabotasun handia da. Sanoagoak ziren egunkaria bakarrik irakurtzen genitueneko garaiak!".

**OROIMENEAN GORDETA DUZUN BERTSO MINA**

"Lazkao Txiki ispiluari jarritakoak –Mutiloan, 1989an, *Hitzetik Hortzera*-ko bazkarian–. Samurtasuna, egiazkotasuna, umorea, ingenioa... denetik daukate bertsoak. Hauze: *Aizak, nik hiri bota behar dit bertso koxkor bat edo bi behingoa jarri geran ezkerro biok aurpegiz aurpegi neri begira hortxe daduzkak alferrikako bi begi hik noski ez nauk ni ikusiko baina nik ikusten haut hi*".

"Gero eta leku, giro eta jende gehiagorengana iristen da bertsoa; irudipen hori dut, behintzat. Bailaran gutxiago igarriko dugu hori, agian, baina beste leku batzuetara joaten garenean konturatzen gara. Leku ezberdinetan aritu nahi izaten dut nik. Herrian aritzea polita da beti, baina gehiagotan egokitzen zait kanpoan abestea. Hala ere, egia da gazteok gazteoi kantatzeko espazioen hutsunea sumatzen dudala".

"Batzuetan, paranoiak jota aritzen naiz ni ere, eta sare sozialetako kontuak ezabatzeko gogoia izaten dut... Bertsoarako eta lanerako, hala ere, batzuetan, eskertzen dut sare sozialetan jasotzen dudana informazioa, baina bertsozotara eramateko, gero, nahiago izaten dut gaiak eta albisteak patxadaz hartu. Sare sozialetako kontuen beste kezka da, pertsona moduan zenbateraino eragiten digun, hori ere plaza publikoa delako".

"Ume-umea nintzelako edo, baina 2005eko Txapelketa Nagusiko finaleko arratsaldeko *Kartzela* gogoratzen dut. Gogoan dut nekatuta nengoela, zuzenean entzuten nuen lehen finala zen, eta ordu asko neramatzan geldirik eta eserita, baina badakit Amets Arzallusen bakarkakoa hasi zenean adi-adi jarraitu nuela. Finaleko gazteena bera zelako edo harrapatu egin ninduelako hasieratik, baina adi-adi jarraitu nituen bertsoak".

"Nik uste dut gaur egun profil ezberdinak kabitzen direla bertso-munduen barruan. Badago betiko profil tradizionala, baserriarekin, herrigintzarekin, abertzaletasunarekin... lotua, eta badaude profil berrigoak ere; borroka feministarekin lotuak, adibidez. Batzuetan, bertso-modu horiek elkarren aurka jartzera tematzen gara, dikotomia bat sortuz, baina, berez, elkar elika dezaketela uste dut".

"Hainbat eztabaida interesgarri sarean gertatzen dira eta horri ez diot baliorik kendu nahi. Hala ere, sare sozialak informazioa etengabe trukatzeko espazioak dira, eta ez dute denborarik uzten gaiei buruz lasai eta kolektiboan pentsatzeko. Aparte, *Gustuko dut* moduko mekanismoekin elkar epaitzen dugula iruditzen zait, eta bakoitzak bere irudi onena erakutsi beharrak perez handia ematen dit".

"Ez daukat bertsoz beti gogoan izaten dudarik. Boladaka batzuk ala beste batzuk izaten ditut buruan. Azkenaldian, Maialen Lujanbioren 2013ko BECeko goizeko *kartzela*-koarekin nabil. Uste dut momentuan ez zela eta, gero ere, ez dela bertsoaldi hori bereziki baloratu; baina hiru bertsoak oso konplexuak eta ederrak iruditzen zaizkit, bertso sorta hori entzuten dudana bakoitzean emozionatu egiten naiz".

**Oraindik ere badira sarrerak**

*Humanityatmusic.com* atarian eta leihatilan eros daitezke sarrerak, 19 eurotan merkeena eta 60 eurotan garestiena. Buesa Arena kanpoan izango diren ekitaldietarako, berriz, ez da txartelik erosi beharrik izango.

Gasteizera joateko, hainbat herritatik abiatuko diren autobusak prestatu dituzte; interesa dutenek lehenbailehen *Tellebamos.eus* atarian egin beharko dute eskaera.

**Egitaraua**

Gasteizko Buesa Arenan askotariko ekintzak izango dira bihar, zapatua:

- **12:00** Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoez *Musua* ikuskizuna eskainiko dute.
- **12:00-20:00** Alai Gunea. Ekintza eta zerbitzu asko izango dira Buesa Arena kanpoan: haurrentzako askotariko tailerrak eta jolasak, ludoteka, puzgarriak, jan eta edari saltokiak, *Bidezko mundu baten alde!* Mundukideren erakusketa...
- **18:00-20:00** *Humanity at music* ikuskizuna.
- **20:00-22:00** Jaia Buesa Arena kanpoan.

**Goiena Klubaren txokoa****Goiena Klubeko irailako sariak!****Chromecast**

Parte hartzeko sariaren izena: Chromecast



**Sarrerak**  
Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

**ARRIKUTZ**  
GASTAZOIA



**Otarrea**  
Bidezko merkataritzako produktua.  
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

[www.barremanokidea.org](http://www.barremanokidea.org)  
Bidezko Merkataritza Produktua

**PARTE HARTZEKO:**

**Posta elektronikoz:** [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrez gero LURD 15/1000 legearen arabera, informazio diruzko sari datu pertsonali Goiena Komunikazio Zerbitzuaren tratamendua automatizatuta beten sariak dira. Datu billete honen helburu bakarra da indarrez gero sariaren sustapenean laguntzea. Eskubidea izango du datuak ez erabiltzeko, baina ez erabiltzeko erabakirik ez dago. Helbide berbera idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**Irabazi bi lagunendako otordua**

**TABERNA BERRI JATETXEARI ESKER**

Begiratu *Puntuo* aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

☎ 943 25 05 05 ✉ [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

📍 KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



*Puntuo* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaituz 2019ko irailetik aurrera: 31€

Deitu: 943 25 05 05 • [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**  
Euskara irabazte, denok irabazte!

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Apartamentu txiki bat behar dut ikasurte honetarako. Telefonoa: 687 46 24 47

**Arrasate.** Hiru logela eta igogailua dauzkan etxebizitza hartuko nuke errentan, Musakolan. Telefonoa: 688 85 44 78

**Baserría.** Arrasateko lau gazte langile eta arduratsua gara eta Debagoieneran baserri bat errentan hartu nahian gabilta. Interesatuok deitu: 638 85 53 26 (Leire) edo 646 296023 (Antton)

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 500 euro arte ordain dezaket. 610 34 97 88

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Telefonoa: 650 67 16 91

**Bergaran edo Arrasate.** Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dut errentan. 695 12 06 79

## 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean, ikasleendako. Berokuntza zentralarekin. Telefonoa: 618 82 02 41

## 3. LOKALAK

## 303. ERRENTAN EMAN

Bulegoak Oñatin. Bulegoak ematen dira errentan Kale Zaharrean. Hilean 350 euro gastu guztiak barne. 652 75 60 52

**Kontsultarako gelak Arrasate.** Arrasateko terraza zentro baten, kontsultarako gelak ematen dira errentan. Hilabetea, egunka edo orduka, beharren arabera. Kontakua: zentroat@gmail.com

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

